

DBH/Batxilergoa

XXI. Idazlan Koaderno

2022





Argitaratzailea

**Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua
eta Hezkuntza Saila**



Laguntzaileak

**Barrutialde Institutua
Gernika-Lumoko Institutua
Mertzedeko Ikastetxea
San Fidel Ikastola
Seber Altube Ikastola**

Portadaren egilea

Xin Lin (BATX. 1. maila)

Babesleak

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila
(Euskara Zuzendaritza)



Maketazkoa

11barri (Markina-Xemein)

Inprimaketa

Lizaso Grafikak (Zornotza)

2022ko edizioa.

egilea	maila	idazlana	orr.
Araceli de Bilbao	DBH 1.	<i>Emakumea Marten</i>	1
Leizuri Guzman Coca	DBH 1.	<i>Goizeko miraria</i>	3
Malen Bilbao Omabeiti	DBH 1.	<i>Ametsak egia bihurtu dira</i>	5
Laia Oleaga Elortegi	DBH 1.	<i>Guztion borroka</i>	7
Naia Atutxa Aurrekoetxea	DBH 1.	<i>Beste mundu bat</i>	10
Martin Larrozea Apraiz	DBH 1.	<i>Apel gaixotu da!</i>	13
Ane Gregorio Zabala	DBH 2.	<i>Izar uxok enaren antzera</i>	16
Sara Agirre	DBH 2.	<i>Konturatu barik egindako idazlana</i>	18
Elene Martinez Artetxe	DBH 2.	<i>Elkarbizitza</i>	21
Angel Gonzalez Jimenez	DBH 2.	<i>Familia bidaia bat</i>	24
Maddi Gaztelu-Urrutia	DBH 2.	<i>Clara Martinez</i>	27
Xabier Legarre	DBH 2.	<i>Ispiluaren aurrean</i>	29
Yuko Hualí Alvarez	DBH 2.	<i>Maitasuna kiribil amaigabe bat balitz</i>	32
Aratz Leciaga Murga	DBH 3.	<i>Maitasunezko istorio bat</i>	37
Irati Munitxa Mestraitua	DBH 3.	<i>Asgard-en mundua</i>	40
Uxue Hormaetxea Arrien	DBH 3.	<i>Benetako bizitza</i>	44
Izaro Trespalacios Uriarte	DBH 3.	<i>Denbora</i>	48
Maialen Blanco Iturriaga	DBH 3.	<i>Zaldun baten egunerokoa</i>	51
Markel Leciaga Murga	DBH 3.	<i>Ingalaterrara bidaia</i>	54
Markel Lejardi Zugazaga	DBH 3.	<i>Autobus gidaria</i>	57
Udane Bilbao Triay	DBH 4.	<i>Katu beltza</i>	60
Garoa Oleaga Goikolea	DBH 4.	<i>Besarkatuta</i>	63
Aicha Abdelhadi Mulay	DBH 4.	<i>Gauzen beste aurpegia</i>	68
Alluitz de Bilbao Ortega	DBH 4.	<i>Edelweiss</i>	72
Anastasia Rotari	DBH 4.	<i>Eider</i>	75
Naroa Sandia	DBH 4.	<i>Gehiagorik ez</i>	79
Nahia Ertzilla Goieaskoetxea	DBH 4.	<i>Ispiluaren bi aldeak</i>	83
June Zameza Azurmendi	BATX 2.	<i>Hitz ederrak zuretzat</i>	87
Ane Mei Aspiazu Etxeandia	BATX 2.	<i>Argi-itzalak</i>	89
Elena Agirre Martija	BATX 2.	<i>Kafe bat?</i>	92
Zihara Undabarrena Loizaga	BATX 2.	<i>Oroitzen zaitut, ama</i>	95
Irati Arana	BATX 2.	<i>Jolasten irakatsi</i>	99
Iera Larrinaga Vergel	BATX 2.	<i>Barkamenak emango didan bakea</i>	102
Mikel Gomez Jauregi	BATX 2.	<i>Nire bizitzaren melodia</i>	105
Oleksandra Mazur	BATX 2.	<i>Sustraiak</i>	108
Olatz Lejarza / Aldita Chávez / Tislem Mohamed	HHI/EPA	<i>Kolore askotako bizitzak eskola bakar batean</i>	113
Ana Alonso / Tamsir Ndoeye	HHI/EPA	<i>Tamsir naiz</i>	115
Nuria Moreno Mansoura Babouid	HHI/EPA	<i>Mansoura naiz</i>	117

DBH/Batxilergoa

XXI. Idazlan Koadernoak

2022





Araceli de Bilbao
DBH 1. maila

EMAKUMEA MARTEN

Kaixo, nire izena Maite Mendizabal da. Ingeniari aeroespazial eta astronauta oso famatu bat naiz. Zuetako askok, orain dela bi urte, Marte zapaldu duen lehenengo gizakia bihurtu nintzelako ezagutuko nauzue, baina, nire istorioa, orain dela 12 urte inguru hasi zen, 25 urte nituenean.

Urtebete neraman NASAn lan egiten. Toki honetan gizonak zeuden gehienbat eta oso emakume gutxi zeuden nirekin lanean, honek hainbat arazo sortu zituen, zenbait aldiz, nirekin lan egiten zuten gizonei baino txarrago tratatzen ninduten eta.

Proiektu oso garrantzitsu batean lan egiten nenbilen, bat-batean gizon bat lantokira sartu zenean. Gizonak hau esan zuen: “Kaixo denoi, nire izena Jason White da eta gizakia Martera nola bidali ikertzen ari den proiektuan lan egiten dut. Proiektua aurrera eramateko jendea behar dugu, eta zuetako bat aukeratu nahi dugu gurekin lan egiteko. Proiektu hau oso korapilatsua da eta horregatik jende onena behar dugu. Gurekin lan egin nahi baduzue, Martera joango den espazio ontziaren prototipo bat egin beharko duzue. Lan oso zaila denez 6 hilabete izango dituzue proiektu hau egiteko. Prototipo onena egiten duen pertsonak gurekin lan egingo du. Zorte ona opa dizuet denoi.”.

Ezin nuen nire entzundakoa sinetsi. Nire gauzak batu eta etxera joan nintzen. Etxera iristean, mahai erraldoi bat hartu eta egongelaren erdian jarri nuen. Inguruan zeuden gauza guztiak kendu eta arbel bat jarri nuen mahiaren aurrean. Nire ordenagailua mahaiaren jarri ondoren, paper mordoa hartu eta mahaiaren ertzean jarri nituen. Arratsalde guztia eman nuen nire lantoki berria prestatzen. Banekien denbora asko emango nuela egongela hartan, noski, proiektu hura, Jasonek esan bezala oso korapilatsua baitzen, baina egun hartan ez nuen pentsatu hurrengo 6 hilabeteetan egin nuen lana alferrik izango zela.

Sei hilabete proiektu hura egiten eman ondoren, prototipoa aurkezteko eguna iritsi zen. Egund hartan, beti bezala, goizeko zazpitan jaiki nintzen ohetik, zerbait jan nuen eta jantzi ondoren lantokira joan nintzen. Iristean dena berdin zegoela ikusi nuen.

Lankideak agurtu ondoren nire mahaira joan nintzen; hutsik zegoen, beraz, nire gauza guztiak haien tokian jarri nituen. Nire gurasoen argazki bat jartzen ari nintzen, Jason lantokian sartu zenean. Prototipoak eskatu zituenean 6 pertsona soilik altxatu ginen: Liam, Noah, Jackson, Dylan, Connor eta ni. 6 pertsona hauetatik ni nintzen emakume bakarra. Dylan izan zen prototipoa aurkeztu zuen lehena, ondoren, Jackson, Liam, Connor eta Noahk aurkeztu zuten haien lana eta azkenik nik. Aurkezpenak entzun ondoren Jason joan egin zen, eta lankide guztiak batu ginen prototipoen inguruan hitz egiteko. Nire ustez nire lana zen onena, eta nire lankide guztiek berdina uste zuten. Irrikan nengoen nork irabazi zuen jakiteko.

Arratsaldean, Jason bueltatu zen nork irabazi zuen esateko. Denok harrituta gelditu ginen Jasonek irabazlea Liam zela esan zuenean. Denek zekiten nire lana hobeagoa zela, baina inork ez zuen ezer esan. Denak Liam zoriontzen ari ziren bitartean ni Jasonengana joan nintzen. “Zergatik ez didazu niri aukeratu ?” galdetu nion. Bere erantzunak gehiago haserretu ninduen: “Lan hau ez da emakumeentzako.”

Oso haserre joan nintzen etxera, eta gau horretan NASAn neukan lana utziko nuela erabaki nuen, toki hartan ez ninduten merezi nuen bezala tratatzen eta. Hurrengo goizean nire lantokira joan nintzen, aurreko egunean jarritako gauza guztiak hartu eta etxera bueltatu nintzen. Goiz guztia zer egingo nuen pentsatzen eman nuen eta azkenean enpresa bat sortzea erabaki nuen. Enpresa hartan, txarto tratatu izandako emakumeak lan egingo zuten. Enpresa hark lehen gizakia Martera eramango zuen, baina ez edozein gizaki baizik eta Maite Mendizabal, hau da, ni. Bi urte eman nituen prototipoa hobetzen. Espazio ontzia prest zegoen baina orain enpresa sortu behar nuen.

Hiru urte eman nituen lantokia egokitzen. Lehenengoz, non egongo zen erabaki nuen, eta erosi ondoren dena egokitu behar nuen; ezin duzu Martera joango den espazio ontzi bat edozein tokitan eraiki. Honetarako noski, jendea kontratatu behar izan nuen. Enpresa martxan jartzeko bost urte eman nituen, baina merezi izan zuen, hamar urte beranduago Martera joaten ari zen espazio ontzi batean nengoen eta.



2018ko otsailaren 1ean Martera joango zen espazio ontzian sartu nintzen. Bidaiak urte bat eta 15 egun iraun zituen, eta denbora oso luze baten ondoren, 2019ko otsailaren 16an Marte zapaldu nuen. Espazio ontzitik irten nintzenean dena gorri zegoen, ezin nuen Marten nengoela sinetsi. Nik, ez nuen ilargia zapaldu zuten lehen gizakiak bezala nire herrialdeko, hau da, Espainiako bandera Marten jarri nahi, eta horren orde, bi bandera jarri nituen: lehenengo, Euskal Herria nire etxea zela adierazteko ikurrina bat jarri nuen, eta bigarren emakumeok ere gauza harrigarriak egin ahal ditugula adierazteko, morez margotutako bandera bat jarri nuen. Azken bandera honekin emakumeak oso indartsuak garela esan nahi nuen eta espero dut denok ulertzea eta nirekin ados izatea, bestela oker egongo zinatelako.



Leizuri Guzmán Coca
DBH 1. Maila

“Musika eta familiarekin egotea gustuko ditut.”

GOIZEKO MIRARIA

Afrikako herri txiki batean Kenya izeneko neskato bat bizi zen. Berak 15 urte zituen. Bere ilea beltz-beltza zen, ikatza bezalakoa. Bere begiak berdeak ziren, hostoak bezalakoa. Neskatoak ez zuen etxerik, kanean bizi zen bera bakarrik, inor barik.

Bere gurasoak orain dela 3 urte hil ziren, eta diru apur bat lortzeko bere gustukoen zaletasunean jarduten zen, hots, margotzen. Horrela, 17 euro edo, lortzen zituen egunero, jendeak bere margolanak erosten zituenean. Diru horrekin ogitarteko gutxi batzuk baino ez zituen ahal jan. Beste batzuetan jendeak uzten zizkion manta batzuk, arropak edo janaria.

Abenduaren 23a zen eta bera oso triste zegoen, Gabonak bakarrik pasatuko zituelako. Bat-batean gizon altu bat hurbildu zitzaion neskari. Gizonak irribarre bat zuen bere aurpegian eta garrantzitsua zirudien, trajez jantzita zegoelako. Neskarengana hurbildutakoan hau esan zion:

–*Kaixo neska.*

–*Kaixo. Zer nahi duzu?* – erantzun zion Kenyak.

–*Zerbitzu sozialetan lan egiten dut. Kanean bizi zarela ohartu naiz, eta zuk nahi izanez gero, zure egoera aldatzeko familia bat lortu ahal dizut* – jarraitu zuen gizonak.

Kenyak pentsatu barik gizonarekin joan zen.

Gizonak zerbitzu sozial zentro batera eraman zuen eta bertan 60 ume baino gehiago zeuden. Kenyari logela bat, arropak eta janaria eman zioten. Oso pozik zegoen, baina apur bat triste ere bai. Inork ez zuela bera adoptatu nahi izango pentsatzen zuen.

Abenduak 24a, goizean (11:07am)

Kenya deitu zuten zentroko zuzendariaren bulegotik. Neska bertara heldutakoan bikote bat topatu zuen. Bikoteak irribarre handi bat zuen aurpegian. Neskak ezer esan baino lehen, zerbitzu sozialekoek, zoriondu egin ondoren, bikote hori bere familia berria izango zela jakinarazi zioten. Neskak hori entzutean besarkada handi bat eman zien bere ama eta aita berriei.

Paper eta txosten batzuk bete eta sinatu ostean, Kenyak zeuzkan gauza gutxi hartu zituzten eta bere etxe berrirantz abiatu ziren. Han bi ume gehiago zeuden: Amil eta Alike. Bere ahizpa eta neba berriak. Aitak Nadir zuen izena eta margolari famatua zen Afrikan. Amak Ada zuen izena eta abokatua zen.

Kenya bere logela berrira sartu zen margotzera. Zortziretan amak afaltzera deitu zion. Denetarik zegoen: oilaskoa, pernila, arraina...Hori bai zela Gabonak ospatzeko modu galanta. Afaldu ostean Gabonetako opariak irekitzera joan ziren. Kenyari margo berri batzuk oparitu zizkioten. Gurasoek Kenyari margotzea asko gustatzen zitzaiola bazekiten, eta neska poz-pozik zegoen. Opariekin amaitu ondoren, aita berriak bere margolanak ikusi nahi zituela esan zion. Marrazkiak ikustean, aita aho bete hortz geratu zen. Ezin zuen sinetsi bere begiak ikusten zutena.

–*Margolan hauek bikainak dira! Sekulakoak, ederrak! Koloreak, konposizioa, formak, testurak!* – esan zuen aitak.

–*Hortaz, onak direla pentsatzen duzu?* – galdetu zion Kenyak.

–*Onak baino gehiago, ezin hobeagoak dira. Nire alabatxoa, artista aparta zarela ustedut eta mundu osoak zure lanaren berri izan behar du.* – erantzun zion aitak.

Kenyak hori entzundakoan gorri-gorri jarri zen eta ez zuen ezer esan.

Gabonak pasatu eta gero, aitak bere hitza bete zuen, eta Kenyaren lanaren berri zabaltzeari ekin zion. Hala ere, Kenyak osperik ez zuela izango pentsatzen zuen. Hori zela eta, bere ametsa lortzeko lanean jarraitu zuen. Margolan desberdinak egiten zituen, hala nola: zuri-beltzeko koadroak, arte abstraktua, pertsona ospetsuen erretratuak...Gau eta egun, jo eta ke lanean zebilen.

Bi hilabete eta gero, Kenyaren ospea piztu eta munduan zehar hedatu zen. Margolanak egiten jarraitzen zuen eta ia 50.000 euro irabazten zuen hilero. Mundu osotik bidaiatzen zuen: Europa, Hego Amerika, Estatu Batuak... bere margolanak aurkezteko, eta arteari buruz hitz egiteko. Oso famatua egin zen, eta beste artista ospetsuekin kolaborazio asko egiten zituen. Hori zela eta, bere ospea gero eta handiagoa zen, baita irabazten zuen dirua ere.

Egunak, hilabeteak, urteak pasatu ziren, eta Kenyak bere-berezko familia sortu zuen; bi ume zituen: Nassoumi eta Naoni deiturikoak, eta senar bat: Alin. Kenyak margotzen jarraitu zuen, eta hori gutxi ez balitz, liburu bat ere idatzi egin zuen. Bere izenburua “Nire bizitza” zen eta bertan, berak izandako pasadizo garrantzitsuenak eta gogoetak kontatzen zituen. Liburua honela amaitzen zen: “Nahiz eta nire ametsa zein zen argi izan, goiz hartan gizon hori nigana hurbildu ez bazen, batek daki nolakoa izango zen nire bizitza. Beraz, amets bat badaukazu, ez gelditu inoiz lortu arte. Eta zorte pixka bat baduzu, hobeto!”.





Malen Billbao Omabeiti
DBH 1. maila

AMETSAK EGIA BIHURTU DIRA

Euskal herriko txoko batean bazegoen familia oso pobre bat. Familia horretan 11 ziren, ama Amaia, aita Mike, aitonak, amonak, eta 5 neba arrebak. Mikelek 45 urte zituen oso langilea zen eta beti zegoen familia babesteko prest, ile beltza zeukan, peto urdina kamiseta zuri batekin eta narruzko zapatak. Amaiak 44 urte zituen, emakume alaia eta sentibera jantzi zuria zeukan lerro urdinekin eta ile larankxa zeukan. 4 anaia zeuden eta arreba bat, nagusia Leire zen, asko gustatzen zitzaion idaztea eta istorio asko asmatzen zituen, 12 urte zituen begi urdinak zituen eta ile luzea larankxa. Anaiarik argiena Aimar zen, asko gustatzen zitzaion kirola eta matematikak egitea. 10 urte zituen begi marroixkak eta nahiko altua zen. Karlosek 8 urte zituen ez zitzaion gustatzen lanak egitea eta beti zegoen kexaka, ile eta begi beltzak zituen eta betaurrekoak zituen. Jabier eta Jokin bikiak ziren 6urte zituzten oso aktiboak eta bihurriak ziren, begi marroiak eta ile larankxa zuten. Goiz ilun eta euritsu batean 5 neba-arrebak eskolarako bidean joan ziren. Leire bera hurrengo ipuinetan pentsatsen eta bere neba bihurriak eskolara eramaten zegoen. Egun luze eta gogor bat pasatu eta ondoren etxera bueltatu ziren eskolatik 17:00etan. Leirek amari lagundu zion etxeko lanak egiten eta anai nagusiak aitarekin joan ziren basora egurra biltzera. Gutxi gorabehera 18:00etan Leire bere anaiekin partekatzen zuen logelara joan zen hasi zen istorioa bukatzera, aprobetxatuz ez zeudela bere anaiak. Gero amari lagundu zion afaria prestatzen, afaldu eta denak ohera joan ziren. Hurrengo egunean beti bezala eskolarako bidean joan eta Leirek soinu bat entzun zuen:

- *AAAAAAAH!*


Ez zekien zer zen baina ziur zegoen ez zela ezer ona. Eskola eta gero joango zela pentsatu zuen ikusteko ea zer zen. Eskola bukatu eta bere anaia nagusiari esan zion gaur beranduago joango zela etxera eta abisatzeko amari. Motxila lurrean utzi eta segituan joan zen lehen soinua atera zen lekura. Lurra lokaztuta zegoen eta zuhaitzak horizatuta. Lokatzetan oinatz batzuk ikusi zituen, oinatzei jarraituz, azkenean landare jauzi batzuetara heldu zen, Leirek pentsatu zuen bidea bukatu egin zela baina bat batea txorien txioa entzun zuen. Orduan ausartu egin zen beste aldera pasatzen. Eskuarekin landare horma baztertu, begiak ireki eta ez zuen ikusi espero zuena, zelai berde bat, animaliak eta ibai bat ikusi zuen ur urdin batekin. Baina gauza arraro bat sumatu zuen,

urrunean lur multzo baten modukoa ikusi zuen. Eguzkia ezkutatzen hasi zen astiro-astiro horregatik etxera bueltatzea pentsatu zuen. Afaldu eta ohera joan zen baina ezin zuen lorik egin zer izango zen jakin nahi zuelako. Larunbata zen, egunsentia heldu eta Leire eguzki izpiekin jaiki zen. Isil-isilean prestatu eta ohar bat utzi zion amari gauza inportante bat egiteko goiz jaiki zela eta berandu iritsiko zela etxera. Segituan atzoko lekura joan zen oraindik ez zen ikusten ongi orduan kontuz ibili behea zuen. Zelaira heldu zenean pixka bat itxaron zuen. Itxaroten zegoela ilun zegoelako lokartu egin zen. Esnatu zenean konturatu zen animalia guztiak bere inguruan zeudela eta pixka bat ikaratu zen. Baina konturatu zen animaliak berari laguntzen zeudela, janaria zegoelako bere ondoan. Pixka bat jan eta lanean hasi zen atzo ikusi zuen lur multzoa bilatzen. Denbora asko behar izan zuen aurkitzeko baina lortu zuen. Konturatu zen ez zela lur multzo bat untxi zuloa baino. Zuloan sartzea bururatu zitzaion eta hankak sartu zituenean irrist egin eta zuloan behera jauzi zen. Konorte gabe gelditu zen, esnatu zenean zeru gorri bat ikusi zuen eta hegazkin txiki batzuk ikusi zituen zeruan hegaka. Ezin zuen sinetsi zer ikusten ari zen. Altxatu eta ibiltzen hasi zen, aurrean edifizio handi batzuk ikusten zituen auto hegalariai eta pertsona oso desberdinak. Pertsona horiek desberdin hitz egiten zuten eta janzkera ere ez zen berdina, zilar koloreko prakak eta kamiseta zeukaten, aurpegian maskara berezi bat eta hanketan bota moduko batzuk flotatzen zutenak. Ibiltzen jarraitu zuen eta bat batean bera zegoen lurra jaisten hasi zen. Gela more argi batean agertu zen ohe eta mahai arraro batzuk zeuden. Bat batean neska bat agertu zen ate batetik. Hitz egiten hasi zitzaion, baina Leirek ez zion ezer ulertzen, neskak poltsikotik botila txiki bat atera zuen likido berde bat zeukana barruan eta edan egin zuen. Leire harrituta gelditu zen, ez zuen ezer ulertzen. Neska hitz egiten hasi zen eta orain bai ulertzen zion.

- *Kaixo, ni Gerta naiz. Zer egiten duzu hemen, zu ez zara hemengoa! Hau Kropolia hiria da.*

Leirek dena azaldu zion eta Gertak dena ulertu zion, Pentsatu zuen egun batzuk gelditzea Kropolian. Bost egun geroago etxera bueltatu zen bere lagunaren laguntzaz, asko ikasi zuen hiri misterioitsu horri buruz. Etxera bueltatzean amak bronka handia bota zion. Begiak itxi zituen.

Handik minutu batzuetara ahots bat entzun zuen, begiak ireki eta ama zen. Kezkatuta zegoen baina Leirek ez zuen gogoratzen zergatik zegoen kezkatuta. Amak azaldu zion aldats batetik irrist egin eta zorabiatu egin zela. Leirek ez zuen sinesten gertatu zen guztia amets bat besterik ez zela. Horregatik bere ametsa egia bihurtu nahi zuen eta liburu bat idaztea erabaki zuen.





Laia Oleaga Elortegi
DBH 1. Maila

“Saskibaloira jolastea gogoko dut, eta lagunekin bada hobeto”

GUZTION BORROKA

Bazen behin Irene izeneko neskatxa bat. Aita eta amarekin zoriontsu bizi zen hamabost urteko neskatxa zen Irene. Bere adineko beste nerabe asko bezala egunero Ikastolara pozik joaten zen, lagunekin egoteko desiatzen zegoen eta inguruko guztiak harreman oso ona zuen...

Egunero bezala Irene goiz esnatu zen 2019.eko otsailaren 4 hartan. Gosaldut, jantzi, motxila hartu eta ikastolara abiatu zen. Matematika irakaslea azalpen garrantzitsu bat ematen ari zen momentuan, Ireneri zuzendariaren bulegora joateko oharra pasatu zioten.

Bulegora sartu eta zuzendariak telefonoan jartzeko eskatu zion. Telefonoan Ireneren aita zegoen, Irenek bere aita urduri zegoela nabaritu zuen. Aitak klaseak bukatzerakoan saskibaloiko entrenamendura joan beharrean etxera joateko eskatu zion. Irenek hainbat aldiz zer gertatu zen galdetu zion arren, aitak lasai egoteko eta etxean hitz egingo zutela baino ez zion esan.

Klaseak amaitzerakoan Irenek etxerako bidea hartu zuen, buruari bueltak baino ez zizkion eman egun osoan ea zer gertatu ote zen jakin nahian. Etxera sartu zenean, ama sofán eserita aurkitu zuen, erdi negarrez. Ireneri ama horrela ikusita, arnasa ere eten egin zitzaion. Ez zekien zer gertatu zen baina argi zeukan ezer onik ez zela. Momentu hartan aita sartu zen egongelan. Aitak esan zuen gauza bakarra ama gaixo zegoela izan zen eta hurrengo egunean ospitaleko medikuak erantzungo zizkiola galdera guztiak.

Ireneren ezin egona gero eta handiagoa zen, ez zuen ezer ulertzen.

Afaldut ondoren Irene ohera sartu zen eta ia gau osoan loak hartu ezinik pasatu zuen, buruari milaka buelta emanaz.

Hurrengo egunean Irene eta bere gurasoak Bilboko ospitalera joan ziren. Bertara iritsi eta amak kontsultan sartzeko deia jaso zuen bozgorailutik. Ireneren ama hirugarren

konsultan sartu zen. Irene eta bere aita itxarongelan geratu ziren biak isil-isilik. Ireneren aitak ez zuen barbarik egiten eta horrek Irene urduriago jartzen zuen. Hamar minutu pasa ostean Ireneri eta aitari ere kontsulta barrura sartzeko esan zienten.

Irenek hirugarren kontsultako ate grisa zabaltzean, inoiz burutik kentzea lortuko ez zuen irudia zeukan aurrez aurre. Ama bere burua bi eskuekin eutsi ezinik eta bibote zuridun medikua Ireneri begietara begira.

Irenek mesedez norbaitek zer gertatzen den azaltzeko eskatu zuen. Medikuak argia izango zela eta beharrezko azalpen guztiak emango zizkiola esan zion. Baina Ireneren belarrietara iritsi zen mezu bakarra honako hau zen:

- Zure amak minbizia dauka.

Momentu horretan mundua gainera erori zitzaion. Galdera asko zituen medikuari egiteko baina bakarra atera zitzaion:

- Ama hil egingo da?

Medikuak asko lasaitu zuen Irene. Minbizia, guztien artean irabazi beharreko burruka bat zela azaldu zion. Amak burruka irabaziko zuela esan zion, baina horretarako bidelagunak beharko zituela.

“Guztion artean irabazi beharreko borroka,” horrekin geratu zen Irene. Baina amak eta aitak ezer ez kontatu izana ez zitzaion asko gustatu.

Egunak pasa ahala Irenek bere ama gero eta ahulago ikusten zuen, amaren ilea arraro ikusten zuen.

Amari gertatzen zitzaion guztia jakin nahi zuen, baina amak izkutatzera egiten zuen momenturo, beti ahoan irribarre batekin ondo zegoela esanez. Irenek ez zuela nahi gezur bat gehiago esan zion amari iletik tira eginez. Bazekien amari ilea erori zitzaiola. Bazekien amak gauero botaka egiten zuela, bazekien amak negar asko egiten zuela...

Irenek ez zuen ulertzen amak zergatik ez zioen egia esaten.

- Laztana, ez da zuk uste bezain erraza, zu zoriontsua izaten jarraitzea nahi dugu. Irene sutan jarri zen amak esandakoaz.
- Ama, gogoratu medikuak esandakoa, guztion artean lortu beharreko borroka da. Guztion artean. Nik ere zure bidelaguna izan nahi dut.

Horrela ez bazuten ulertzen berarekin ez kontatzeko eskatu zien gurasoei.

Hurrengo egunetan Irenek ez zuen inorekin hitz egin nahi izan.

Ikastolan oso triste ikusten zuten bere lagunak, baita bere lagunik onenak ere. Kattalin zer gertatzen zitzaion galdetzera ausartu zen. Irenek nahiz eta hitz egiteko gogo handirik ez izan, bere lagunik onenari bere amaren gaixotasunaren inguruko beldur guztiak kontatu zizkion.

Arratsalde hartan Irenek espero ez zuen pertsona bat zeukan etxean bere zain. Amona!!!.

Amona oso pertsona berezia zen Irenerentzat. Amonak oso ondo zekien Irene ez zegoela ondo. Irenek bere egonezina erakutsi zion amonari, ez zuen ulertzen bere gurasoen jarrera. Irenek egia jakin nahi zuen eta hala adierazi zion amonari. Amonak amorru eta haserrea alde batera uzteko eskatu zion ilobari. Haserre eta amorrua ez ziren bidelagun onak izango inorentzat.

Amonak paper garrantzitsua bete zuen gau hartan. Borrokatzeko guztiak ondo sentitzea oso garrantzitsua zela adierazi zien amonak Ireneren gurasoei. Irenerentzat egia osoa jakitea beharrezkoa zen, berak horrela nahi zuelako. Irenek amaren gaixotasuna hurbiletik bizi nahi zuen eta ez ezjakintasunetik.

Asteak pasa ahala guztiek lortu zuten beraien etxera etorritako bizilagun berriarekin elkarbizitzen. Bakoitzak paper garrantzitsu bat zuen borroka hartan. Guztiak batera borroka gainditzeko indar guztiak jarritz.

Hurrengo urteko otsailaren 4ean, munduko minbiziaren kontrako egunean, Irenek berak bizitako pasartea idatzi zuen Berria egunkarian, bera bezalako nerabeak lagundu nahian.





Naia Atutxa Aurrekoetxea
DBH 1



BESTE MUNDU BAT

Nik beti izan ditut marrubi bat sudurraren azpian eta ahabi bat bekain bakoitzaren azpian, baina nire amamak esaten du berak eta amonak, gaztetan, aho bat eta bi begi zituztela marrubi bat eta bi ahabi izan beharrean. Txikia nintzenean, nire amamak gauero kontatzen zidan istorio bat, eta esaten zuen istorio hori benetan gertatu zela. Nik ez dut sinisten, fantasiazko ipuin bat dirudi, baina ez dakit.

Orain kontatuko dizuet nire amamaren istorioa, ea zer pentsatzen duzuen. istorio hau, 2016an gertatu zen.

Itziar (nire amama), 16 urte zituenean, Iruñeko “Columbus” izeneko udaleku batera joan zen, baina ez udaleku oso atsegin batera, ez. Udalekua, udako institutu bat zen, Itziarrek ez zituelako nota oso onak atera aurreko ikasturtean. Baina udaleku edo “infernu” horretan, ez zuen hain txarto pasatu. Lagunak egin eta zerbait oso interesgarria gertatu zitzaion, batez ere Itziarri.

Itziarren logelako lagunak Igor, Amaia, Aitor eta Leire ziren.

Igorrek 17 urte zituen. Oso buruargia zen, eta oso atsegina. Baina ez zitzaion hitzik ere ulertzen, beti ordenagailuei buruz hitz egiten. Horregatik, inork ez zion kasurik ere egiten eta denbora gehiena bakarrik pasatzen zuen.

Amaia... ez dakit nola esan, Amaiak 17 urte zituen. Oso gutxi hitz egiten zuen, inoiz ez zuen irribarre egiten, eta beti joaten zen beltzez jantzita. Ez zitzaizkion gizakiak gustatzen, baina lagunak bati norbaitek zerbait egiten bazion, norbait hori ez zen bizirik aterako.

Aitorrek 16 urte zituen. Ez zen bat ere atsegina. Beti egoten zen jendeari ziria sartzen. Lagun asko zituen, baina ez benetako lagunak. Bere gurasoak banatuta zeuden horregatik da pertsona desatsegina, triste zegoelako.

Eta azkenik, Leire. Leirek 16 urte zituen. Neska jasanezina zen. Beti modara janzen zen eta, nola ez, Aitorren neska-laguna zen. Lagun asko zituen. Batzuetan atsegina zen eta bere arropa uzten zizun, baina beste batzuetan errekara botatzeko gai izango zen.

Esan dizuedan moduan, udaleku hori aspergarria zen, baina bazegoen zerbait irakasleek ezkututzen zutena. Ez zuten uzten ate bat zabaltzen. Gainera, ate hori zabaltzeko pasahitza behar zen.

Egun baten, logela kideak elkartu eta ate hori zeharkatzea erabaki zuten, baina ez zekiten zein izan ahal zen pasahitza. Arratsalde horretan, paseo txiki bat ematera joan ziren eta, batez ere, pasahitza zein izan ahalko zen pentsatzera.

Bat-batean, zerbait arraroa ikusi zuten: leiho bat, baina leiho hori ez zekiten zein logelatakoa zen. Orduan, hurbildu egin ziren. Leiho horren beste aldean, horma batean, graffiti bat zegoen. Graffiti horretan, “2014” jartzen zuen.

Gela horrek ez zeukan aterik eta lurrian aldizkari bat zegoen. Aldizkaria irakurri zuten. 2014ko uztailaren 8ko berri bat agertzen zen, izenburu honekin: “15 urteko neskato bat desagertu egin da Iruñeako “Columbus” udako institutuan. Nerea Bergara ez zen logelara itzuli atzo gauean eta goiz osoan ez da institutuan agertu. Leku guztietan arakatu dute eta ez dago arrastorik”. Lagunak aho zabalik geratu ziren. Minutu batzuk ezer esan gabe egon eta gero, Amaiak esan zuen Nereak ate misteriozua zeharkatuko zuela. Denak ados jarri ziren eta arratsalde horretan beraiek ere ate hori zeharkatuko zutela erabaki zuten.

Arratsaldean, atearen aurrean geratu ziren guztiak batera. Pasahitz moduan “2014” jarri zuten, baina zenbaki gehiagoko pasahitza zen eta ez zekiten zer zenbaki ziren.

Bat-batean, Leirek albistea hartu, berriro irakurri eta pasahitz moduan “201478” jarri zuen. Horrek zentzua zuen, Nerea desagertu zen egunaren data zelako. Pentsatu zuten Nereak jarriko zuela pasahitza eta atearen beste aldean geratuko zela. Baina zergatik?

Azkenean, ate hura zabaltzeko zuten eta beste aldean pasillo luze bat zegoen. Hasieran beldurra zeukaten. Gainera, gaua egiten ari zen eta afaltzera joan behar ziren. Baina jakinminak bultzatuta, pasilloan sartu ziren. Pasilloa amaitu zenean... ez zuten bat ere espero ikusten ari zirena: institutua zen! Pasillo osoa zeharkatu zuten, ezertarako ere ez!

Baina ez, pertsonetan fijatu zirenean... inork ez zeukan begirik ez ahorik! Bi ahabi eta marrubi bat zeukaten bi begi eta aho bat izan beharrean.

Gazteak aho zabalik geratu ziren, eta bat-batean emakume bat hurbildu zitzaien. Eskuan 10 ahabi, 5 marrubi eta orratz bat zeuzkan. Emakumea oso atsegina zen eta leku arraro horretako pertsonak, beraien mundukoak baino atseginagoak ziren.

Emakumearekin gela handi batera joan ziren, beste munduan zuzendaritza gela zena. Han tea eta gaileta batzuk jaten egon ziren bitartean, emakumeak mundura itzuli beharrean mundu horretan geratzea proposatu zien. Baina horretarako, begietan bi ahabi eta ahoan marrubi bat josi behar zituztela. Itziar pentsatzen geratu zen: leku hori oso atsegina zen, bere mundua ez zitzaion batere gustatzen, eta oso ausarta zenez, baiezkoa eman zuen. Bere lagunek... ezezkoa. Beldurra ematen zien. Gainera beraien mundua ez zegoen hain txarto.

Bat-batean, neska bat sartu zen gelara eta emakumeak “Kaixo, Nerea” esan zuen. Neska-mutilak harrিতa geratu ziren hori entzutean.

- Zu al zara Nerea Bergara?- esan zuen Itziarrek.

Nereak baietz esan zuen eta Itziar ikusi zuenean... begietan bihotzak marraztu zitzaizkion. Itziarri ere Nerea oso atsegina iruditu zitzaion, baina bere ezpainak ukitu zituen egunean, bera ere txora-txora eginda geratu zen.

Gaua han pasatu zuten eta hurrengo goizean denak joan ziren Itziar izan ezik. Itziarrek bi ahabi eta marrubi bat josi zituen aurpegian eta Nerearekin geratu zen. Mundu horretan familia berdina zeukan, baina aurpegian frutak zeuzkaten eta askoz atseginagoak ziren.

Bai, Nerea eta Itziar, nire amona eta amama dira. Azkenean... ni ere amamaren istorioa sinesten hasita nago. Nolakoa izango zen bi begi eta aho bat izatea... Ba ez dakit, baina uste dut oso *guaia* izango zela. Zuek zer uste duzue? Egia izango da, ala gezurra?



Martin Larrozea Apraiz
DBH 2.maila
“Makinak munduan jabe”

APEL GAIXOTU DA!

Goiza heldu zen eta Apelek lo jarraitzen zuen. Aurreko gauean berandura arte lanean ibili zen eta deskuidoan lo geratu zen. Asus ere lo zegoen. Lo seko. Bakarrik zeuden, eta betirako lo gelditzeko arriskuan. Oso langileak ziren baina azken egunetan kutsaduraz inguratuta eta atsedetik hartu barik ibili ziren.

Nano, euren lagun ona, egun batzuk lehenago oporretan joan zen eta eskolako lan baterako informazioa bilatzen utzi zituen. Ondo eta osasuntsu utzi zituen; beti bezala baina kontuz ibiltzeko eskatu zien.

- Eskolan power-point bat egiteko eskatu didate eta ordenagailuak erasotzen dituen birusei buruzko informazioa behar dut. Martxan jarriko zaituztet eta idatzita dituzuen helbideetara jo. Bueltan natorrenean antolatuko dugu dena- esan zien Nanok.

Alexak dena entzun zuen eta “jarri lanean” errepikatu zien.

Orduan aparatu guztiak martxan jarri eta lanean hasi ziren. Apel informazioa bilatzen hasi zen, eta Asus Power point-a editatzen.

Ordenagailu guztiak lanean zeuden, baina Apel informazioa bilatzen ari zela, bat-batean, orri batetik bestera salto egitean, eztul-soinua egiten hasi zen. Oso astiro zebilen, eta mahaigaineko argia biztu ta itzali hasi zen. Sorgindua zegoela ematen zuen.

Hurrengo egunean, Apel ez zen piztu ere egiten. Alexa Apel geldirik zegoela konturatu zen eta Nanori deitzen hasi zen.

- Nano! Nano! Apelek ez du erantzuten. Zerbait du!- esaten zuen Alexak.

Alferrekoa zen, Nano oporretan zegoen eta oraindik aste bete falta zen bera itzultzeko.

Astea pasatu zen eta Nano itzuli zen. Etxeko atera hurbildu zenean, Alexaren oihua entzun zuen.

- Azkar! Apel hilzorian dago! Astebete darama ixilik eta lotan dagoela dirudi. Bere azken soinuek gizakien eztula ematen zuten. Eta geroztik, akabo!- esan zion Alexak.

Nanok, orduan Asus-i galdetu zion ea ezer arrarorik susmatu ote zuen. Eta Asusek bere pantailan, birusen irudiak, gizakiak, txertoak, ospitaleak ...jarri zituen. Nanok ez zuen ezer ulertzen. Imajinatzen zuen birusen bat sartu izango zitzaiola eta antibirusa erosi beharko zuela.

Hurrengo egunean antibirusa eroatera joan zenean teknikariei azaldu zien arazoa. Eta hauek antibirusa jartzeko esan zioten. Baina , nola jarriko zion ba, ordenagailua ez bazen pizten? Teknikaria joan zen berarekin etxera eta harrituta geratu zen Alexak egin zion harrerarekin.

- Egun on teknikari jauna!. Zure beharra genuen aspalditik. Konponezineko arazoa daukagu. Gure laguna den Apel ixilik dago aspalditik, eta beldur gara berriro martxan jartzeko. Bere azken zarata gizakiak egiten duen antzeko eztula izan zen eta horrelakorik inoiz ez dugu entzun!- esan zion Alexak.

Teknikaria pentsakor eta urduri geratu zen. Ez zekien nolako antibirusa jarri eta Apel-en etxera deitu zuen gomendio bila. Ez zuen jaso espero zuen erantzuna; ordenagailuen munduan birus berri bat zebilen ordenagailuak erasotzen eta oraindik ez zegoen inolako antibirusik. Hainbat saiakera egiten ari ziren baina emaitzak ez ziren onak.

Ezer konpondu gabe Nanoren etxetik alde egin zuen.

Ordenagailuak pandemia baten barruan zeuden, eta bitartean, ordenagailu-fabrikatzaile eta saltzaileak urrezkoak egiten ari ziren.

Aurreko antibirusak, Panda, Avast, eta horrelakoak moldatzen hasi ziren ,baina birusa ez zutenez ezagutzen, ez zuten ezertarako balio. Eta oraindik gutxiago ordenagailua lotan bazegoen.

Azkenean, Nano mediku batengana joan zen. Galdetu zion zein birus motaren eraginez egiten zen eztul. Birus mota asko aipatu zizkion eta gehienek gripearekin zerikusia zuten. Baina horrek ez zuen zerikusirik ordenagailuekin, pertsonekin baino.

Asteak pasatu ziren eta Apel-ek gaixorik jarraitzen zuen. Horregaitik Nanok beste ordenagailu bat erosi zuen, Mak deiturikoa. Eta imajinatzekoa zenez, Mak ere gaixotu egin zen Asus gaixotzen ez zen bitartean. Horren zergatia bilatzen hasi zen eta gaixoak oso hurbil kokatuta zeudela ikusi zuen; Asus, ordea, gelaren beste muturrean zegoen.

Barregarria zirudien. Makinak barik pertsonen ziruditen. Eta pertsonen emandako txertoa nola eman pentsaten hasi ziren .

Munduko informatiko aditu guztiak elkartu ondoren, birusa deskonposatu zuten atomoetan eta berriro birus horrekin elkartzeko moduko antibirusa eraiki zuten. Ordenagailu mota askotan egin zuten aproba eta erantzunak espero baino hobeak ziren. Gutxienez ordenagailuak berriro piztea lortu zen nahiz eta informazio asko galdu.

Oso garestia zen antibirus hori eta bakarrik herrialde garatueta saltzen zen. Beraz, herrialde pobreak ordenagailu gabe zeuden, bitartean aberatsak lasaitzen hasi ziren.

Nanok lortu zuen antibirusa bere ordenagailuentzako. Ordenagailua konektatu bezain pronto pen-driven bidez sartu zien antibirusa eta garbiketa prosezua martxan hasi zen. Alexa oihuka hasi zen.

- Azkar! Teknikaria etor dadila. Apel zoratu egin da! Bere mahaigainean irudiak eta irudiak pasatzen ari dira kontrolik gabe. Ezin da gelditu -esan zuen Alexak.

Teknikaria etorri zen etxera, eta hau sarritan gertatzen zela esan zion. Denborarekin pasatzen omen zen batzuetan, baina beste batzuetan konponezina zela esan zion. Beraz itxaron beharra zegoen.

Urtebete igaro ondoren, 2022-ko Errege egunean, pantaila berez gelditu zen. Egun berean Nano txarto sentitzen hasi zen. Gabon zaharretako afarian pertsona asko elkartu ziren eta ia denak gaixorik zeuden. Birus batek jota zeuden. Antigenoen test-a egin ondoren positibo eman zuten eta zazpi egunez etxean egon beharra zuten.

Gero gertatu zena mundu guztiak daki. Baina ez dakitena da Nanoren Power point-a ez zela inoiz bukatu.



Ane Gregorio Zabala
DBH 2. maila
“Izen zirelako gara”

IZAR UXOAK ENAREN ANTZERA

Etxean, ahizpak eta biok beti sentitu izan genuen zirrara berezi bat musikarekiko. Horregatik, nire ahizpa Enarak pianoa jotzeko erabakia hartu zuen eta nik berriz, zeharkako txirula jotzearena. Enara eta ni oso ezberdinak ginen itxuraz eta izaeraz baina ezin hobeto konpontzen ginen. Itxuraz, Enarak ile liso marroia zuen eta begi berde handiak. Nik ordea, ile kizkurra eta begi ilunak. Inork ez gintuen ahizpatzat hartzen. Enara alaia, zaratatsua eta dibertigarria zen bitartean, ni lotsatia eta isila. Nahiago nuen etxean eguna pasatu, lagunekin egotea baino. Baina biok etxean geundenean, arratsaldeak pasatzen genituen musika-tresnei itsatsita gure abesti gogokoenak jotzen.

Urteak igarotakoan, etxeko giroa asko aldatu zen. Batez ere, Enarari medikuak gaixotasun madarikatu haren berri eman zionetik. Ospitaleko egonaldian, asteen, hiru egunik behin bisitatzera joaten nintzaion, nire musika-tresna eraman eta gustuko zituen kantak jotzen nizkion. Jotzen ari nintzen bitartean, Enarari ipuin ezberdinak bururatzen zitzaizkion eta bisitaldi bakoitzean ipuin bat kontatzen zidan, eskerrak emateko asmotan edo, nik behintzat hori uste.

Adibidez egun horietako batean hurrengo kontatu zidan:

“Egun eguzkitsua egiten zuen. Zerua oskarbi zegoen eta txorien kantuak antzematen ziren. Logelako leihotik eguzki izpiak sartzen zirenean, hondartzara joatea gustuko zuenez, hara joaten ginen. Lagunei ere, gure asmoaren berri eman genien eta harantz abiatu ziren. Hondartzan jende mordoa zegoen eta bero izugarria. Heldutakoan, eguzkitako krema eman eta uretara sartu ziren. Bueltan, eskuoihalean jarri ziren lehortzeko eta bitartean hizketan jarraitu zuten. Iluntzen ari zela etxera bueltatzeko erabakia hartuta, autoan sartu ziren. Buel tako bide osoa dantzan eta kantuan pasatzen zeudela, etxetik pare bat minututara zegoen zubi batean, beste auto bat aurrera etorri zitzaien eta talka egin zuten, irratian “Don’t Stop Me Now” kantua entzuten zela. Bat-batean zarata bortitz batek gortu zizkien belarriak eta ingurua guztiz ilundu zen.”

Horrela amaitu zen egun hartako ahizparen bisita. Gela utzi eta etxera nindoala, buruan bueltaka nuen istorioa eta azkenean lortu nuen esanahi bat aurkitzea. Nire ahizpa istorio horren partaide izan zen. Eta baliteke ospitalean egotearen arrazoietakoa bat kontakizun hori izatea.

Aste batzuetan, ezin izan nituen nire bisitak egin oso lanpetuta nembilelako eta hala ere, libratzen nituen tarte guztietan ahizparengana joaten nintzen betiko errutinarekin jarraitzeko asmotan. Domeka arratsalde bat libre nuela, bisitan joatea erabaki nuen eta eguneroko ipuina azaltzera zihoala, leihotik sartu zen eguzki izpi batek nire begirada Enarak zeukan lepokora desbideratu zuen. Ez nintzen inoiz horretaz ohartu eta ipuina kontatzera zihoala, moztu eta zintzilikarioa nondik atera zuen galdetu nion. Orduan hau kontatu zidan:

“Udaberriko arratsalde batean, eskolatik etxera bueltan zihoala, adineko emakume zahar batekin topo egin zuen. Honek itxura ahul xamarra zuen eta bere begiak tristuraz beteta zeuden. Gainera oso nekatuta zirudienez, laguntzea erabaki zuen eskuetan zeramatzan bi poltsekin bere bizilekura iritsi ziren arte. Amonak esker onez, etxean soberan zeukan janaria eskaini zion.

Hurrengo egunetan, Enara eskolatik irtendakoan, agurearen etxera joaten zen bisitan. Zahar bakartiak, bere bisitaz gozatzeaz gain, ipuin ikaragarriak kontatzen zizkion unibertsoa eta izarrei buruz.

Arratsalde euritsu batean, Enara beti bezala bisitan zihoala, etxera heldutakoan atea jo eta inork ez zuela irekitzen ikusita, ateko eskutokira begiratu eta ohartxo bat ikusi zuen izar formako lepoko bati lotuta: “Iluntasunean, izarrak begiratu”. Negar malko bat masailean zuela, zintzilikarioa hartu eta jarri egin zuen. Orduan, gau hartan logelako leihotik begira zegoela izar uxoa bat ikusi zuen”.

Ahizpak istorioa amaitutakoan, bere lepokoa kendu eta niri eman zidan erabiltzeko esanez. Nik hartu eta berehala jarri nuen altxor baten antzera eta eskutik heldu nion Enarari, malkoak nire begietatik erortzen ziren bitartean.

Bisitaren amaiera heldu zenean, Enararen begiek ezin zituzten malkoak eutsi eta negarrez hasi zen. Nik besarkada luze bat eman eta erizainak joateko eskatu zidan. Logelatik irtetzean lepokoa eskuan hartu eta osasun zentrotik alde egin nuen. Etxeranzko bidean entzungailuak jarrita nindoala, etxetik pare bat minututara zegoen zubian gelditu, eta bat-batean “Don’t Stop Me Now” hasi zen. Orduan, zintzilikarioa eskuan hartuta, zerura begiratu eta izar uxoa bat ikusi nuen. “Agur Enara” xuxurlatu nuen zerura.





Sara Agirre
DBH 2. maila
“Egin ezean, ez duzu jakingo”

KONTURATU BARIK EGINDAKO IDAZLANA

Euskarako irakasleak, joan den astean, *Idazlan Koaderno*a lehiaketa gogoratu zigun. Eta, gaur klasean geundela, ipuina aurkezteko azken eguna bihar dela ohartu naiz. Oraindik ez naiz hasi ere egin! Etxera heltzean, amari esan diot ez dudala parte hartzeko asmorik, ezta denborarik ere, baina amak haserre egin dit eta ipuina idaztera behartu nau, nahi zein nahi ez. Derrigortuta, arratsaldean, idazteari ekin diot.

Ordu erdi ibili naiz ipuinaren gaia aukeratu nahian eta oraindik ez dakit zeri buruz hitz egingo dudan. Hori dela eta, iruzurtxo bat egitea erabaki dut: nik asmatutako pasadizo bati buruz idatzi beharrean, nonbaitetik kopiatuko dut ideia, ahal dela, euskarako irakaslea ohartu gabe. Baina ez daukat argi nondik kopiatuko dudan. Beraz, beste arazo bat sortu zait. Idazlan hau egitea ikastolara joatea baino nekezagoa da!

Badut ideia bat! Liburu baten istorioa kopiatuko dut. Hasieran, *Txano Gorritxo* erabiltzekotan egon naiz, baina hori haur literatura denez, nerabeentzako ipuin bat aukeratzea hobe dela pentsatu dut. Irakurri ditudanen artean, *A dos metros de ti* izeneko bururatu zait.

Liburu honetan, Stellak birikietako gaixotasun larri bat du: fibrosi kistikoa Ospitalean dagoela, Will ezagutu du, hura ere gaixorik dagoelako. Neskak oso zehatz betetzen du gaixoentzako protokoloa eta Willek, ordea, kontrakoa egiten du. Horregatik, hasieran, Stellak ez du Will onartzen. Baina, asteak aurrera, gutxika-



gutxika, bi nerabeak maitemindu egiten dira. Egun batean, gazte biek ospitaletik ihes egiten dute herriko argiak ikusteko. Bertan ondo pasatzen dauden bitartean, neskari bere erizainaren mezu bat heldu zaio, biriki-emaile bat lortu dutela esanez. Baina Stellak ez ikusiarena egin du, ibilaldiarekin jarraitzeko. Bat-batean, neskak laprast egin eta laku izoztu batera jauzi da. Guztiz estututa, Willek ahoz ahokoa egin dio, nahiz eta horrekin bi metrorra egoteko debekua bete ez. Willi esker, Stella salbatu egiten da eta biriki berriak jartzen dizkiote. Istorio polita izan daiteke, baina oso tristeia. Hobe beste zerbait pentsatzea.

Badut beste ideia bat! *Titanic* pelikularen istorioa kontatuko dut. Beno, beharbada, oso ohikoa denez, irakaslea konturatu egingo da. Film ezezagunago bat aukeratu beharko dut. Mota askotako pelikulak ditut gogoan: akziozko filmak, amodiozkoak, abenturazkoak, beldurrezkoak, poliziakoak... Azkenean, *Way Down* akziozko filma azalduko dut.



Film honetan, lapur talde bati Espainiako Bankuan sartzea bururatu zaio. Uztailaren 11n, Espainiako futbol selekzioak Herbehereetako selekzioaren aurkako partida jokatuko duenez gero, lapurreta egun horretan egitea erabaki dute, polizia jendetza jagoten egongo delako ziurrenik. Baina, ondo pentsatuta, ez dakit film honi buruz idatziko dudana: orain dela gutxi estreinatu dute eta agian irakasleak ikusita izango du. Konturatu egingo da kopia egin dudala. Hobe beste zerbait pentsatzea.

Badut beste ideia bat! Abesti bati buruzko idazlana egingo dut. Orain, zein abesti izango den pentsatu beharko dut. Aukeran-aukeran, *Gatibu* musika taldearen abestiren bat izango da, nire talde gustukoena da-eta. Egia esan, *Gatibu*-ren kantu guztien artean bat aukeratzea oso zail egiten zait, guztiak ere ezin hobeak direlako.



Badakit zer egin: abesti-zerrenda bat prestatuko dut. Bada, lehendabizi, *Aske Maitte* agertuko da; gero, *Urepel*; horren ostean, *Euritan Dantzan*; eta azkenik, *Gabak Zerueri Begire*. Lau horiek idatzi ondoren, abesti paregabe bururatu zait, ekaineko kontzertuan liluratuta entzun nuena: *Gora Kopak!* Abesti honetan, Alex Sarduk dio lagun onak gutxi dituela, lau bakarrik eta eurek merezi dutela kopak topatzea. Ezagunak, ordea, asko ditu eta batzuegan konfiantza jarri izan duenean, huts egin diote, estrofa honetan erakusten duen bezala: *Eskuzabala izen naz ni, bueltie etorko*

dala pentseurik. Zenbat bider fixeu nazen eta, popatik emostie. Tira, tira... Nork ez du Gernikan kantu hau ezagutuko? Hobe beste zer bait pentsatzea.

Badut beste ideia bat! Futbol partida bat kontatuko dut modu erakargarrian! Athletic Club futbol taldearen partida bat hautatu beharko dut, nire talderik gogokoena delako. Ez da nik esaten dudalako (beno, beharbada bai), baina futbol talde guztien artean, filosofia jatorrena eta esanguratsuen du.



Aukeratzekotan, aurtengo denboraldiko partida bat izan beharko da. Eta bistan dago Athletic-ek irabazitako partida bat izango dela eta, ahal izanez gero, San Mamesen jokatutakoa eta neuk ikusitakoa. Errege Kopako final zortzirenetan, Bartzelona futbol taldearen aurka egindako partida ikusgarria kontatuko dut. Modurik onenean hasi zen norgehiagoka, bigarren minutuan Iker Muniainek gol ikaragarria sartu zuelako. Tamalez, hamabost bat minutu igaro ondoren, Bartzelonak emaitza berdindu zuen. Partidaren lehen zatia berdinketarekin bukatu zen eta, bigarren zatia berrogei minutu partidaz gozatzen egon ostean, Athletic-ek bere bigarren gola sartu zuen. Athletic-eko zaletu askok partida irabazitzat eman genuen, baina bukatzeko bost minutu baino gutxiago falta zirela, Bartzelonak bigarren aldiz berdindu zuen markagailua. Luzapenean, epaileak gure aldeko penaltia adierazi zuen eta Munianek ez zuen hutsik egin. Garaipena ahaztezina izango da askorentzat. Beraz... hori ere ezin dut erabili idazlana egiteko.

Iluntzeko zortzi eta erdiak dira eta oraindik idazlanaren gaiari bueltak ematen nabil. Itxaron, itxaron... Dagoeneko hau laugarren orrialdea da eta ipuina ez da hori baino luzeagoa izan behar. Bukatu dut: ezin dut sinetsi! Seguruenik, hauxe izango da irakasleak irakurriko duen idazlanik arraroena, baina seguru ez dela aspergarriena izango.



Elene Martinez Artetxe
DBH 2. maila

“Karakola eta barea, zelako pare!”

ELKARBIZITZA

Egun zoriontsu eta eguzkitsu batean, Maia erlea eta Margarita Lorea jaio ziren Pasaiako belardi berdeetan. Maia erlea oso langilea, arduratsua eta ausarta zen, eta Margarita, ordea, oso lausoa zen, beti geldi zegoen. Oraindik, ez zuten elkar ezagutzen, baina oso lagun onak egingo ziren etorkizunean.

Maia egunero altxatu, gosaria hartu eta loreen bila joaten zen, haien polena xurgatu nahian. Lore intsektujaleak, oso tratu txarrekoak ziren, beti erleak harrapatu eta irensten zituzten. Horregatik Maia erlea oso ikaratuta eta kontu handiz joaten zen haiengana.

Egun batean, erleak lorea negarrez ikusi zuen eta harengana hurbildu zen kezkatuta. Margaritak, bakardadea sentitzen zuen, gainerako erleak ez zirelako harengana hurbiltzen beraren polena zurrupatzera. Orduan, hitz egiten hasi ziren eta negar horietatik, barre algaretara pasatu ziren. Orduetik aurrera, Maia erlea eta Margarita lorea egunero belardi eguzkitsuetan elkartzen ziren askotariko kiroletan aritzeko, bai eta polena zurrupatzeko eta ezia egiteko ere.

Hain lagun onak ziren, non gizakiekin batera ezti konpainia bat sortzea pentsatu zuten. Egunero, jo eta ke ibiltzen ziren ahalik eta ezti gehiago lortzeko eta gizakiei saltzeko. Gizakiek, eztiaren ordainetan, lore gehiago landatuko zituztela hitz eman zieten, eta horrela Maiari errazago egingo zitzaion esti gehiago lortzea.

Uda heldu zen eta atsedentxo bat hartzea erabaki zuten. Maletak hartu eta Hawaii-ko irletara abiatu ziren biak batera. Hamar orduko hegaldia egin eta gero, maletak hoteleko biltegian utzi eta hamaketara joan ziren ziztu bizian, eguzkia hartu nahian. Askotariko ekintzak egin zituzten elkarrekin: surf-a, paddle-surf-a, tiburoiak ikusi, irla guztiak bisitatu, askotariko erosketak egin...

Lagun berriak ere egin zituzten; adibidez, Hawaii irlako erregina; Hibiskusa. Hibiskusa oso lore eder, koloretsu eta maitekorra zen eta denbora osoa pasatzen zuen surf-a egiten. Hamabost egunetako oporrak bukatu zitzaizkien eta Pasaiako belardietara

bueltatu beharra izan zuten. Dena betiko moduan zegoela egiaztatu zutenean, lo egitera joan ziren bidaiaren nekeagatik.

Hurrengo egunean, harrituta, zuhaitzetan bola borobil antzeko erlauntz bat zegoela konturatu ziren. Ez ziren Maia erlearen lagunak, baina ez zioten arretarik jarri bola arraro xamarrari, beraz jolasten jardun zuten goiz guztia.

Gaua heldu bezain laster, Maiaren lagun mordoa hilda aurkitu zituzten. Zer gertatu ote zen? Batzuei burua falta zitzaien, besteei aldiz, hankak. Argi zegoen zerbaitek edo norbaitek eraso egin zietela. Baina, nor izan zitekeen hain maltzurra?

Liburutegi batera gerturatu eta isil-isilik ordenagailuetan informazio bila hasi ziren. Ikertzaile paperean jarri eta ordu asko igaro ondoren azkenean lortu zuten biltzen ari zirena. Aurkitutako erlauntza, asiar liztorrena zen!

Asiar liztorrak, espezie inbaditzaileak dira, beste intsektuez elikatzeaz gain, erleez ere elikatzen dira eta haien haragia beldarrak elikatzeko erabiltzen dute.

Informazio berri honekin Maia eta Margaritari izuikara piztu zitzaien eta begien aurrean zuten arazoa hasieran uste zutena baino larriagoa zela konturatu ziren.

Ondo zekiten landareen eta erleen lana beharrezkoa zela, izan ere, haien arteko sinbiosia ezinbestekoa zen naturaren oreka ekologikorako, baita gizakien bizitzarako ere. Halaber, ekosistemen oreka mantentzeko beraien lana derrigorrezkoa zela argi zegoen. Maia erlea eta Margarita lorea jabetu ziren beraien lanik gabe mundua ez zela ezer.

Plan bat asmatu beharra zeukaten asiar liztorren erasoekin bukatzeko, baina ez zen batere erraza konponbidea bilatzea, gehiegi ziren eta ondo babestutako erlauntzetan bizi ziren.

Hurrengo goizean, Maiaren lagun zahar bati bisita egitera joan ziren, hain zuzen ere, Willi, erle zaharrenari, bera baitzen jakintsuena. Erle nagusia poztu egin zen eta arretaz entzun zien arduratzen zituen gaiari buruz mintzatu zirenean. Maiak eta Margaritak azaldu zioten asiar liztorrekin zegoen arazo larria. Willik hainbat aukera eman zien liztorrekin amaitzeko.

Baikor atera ziren haren etxetik baina emandako irizpideak banan-banan jarraitu arren, ez zuten ezer lortu. Liztorrak gero eta okerrago jarduten zuten eta erleen kopurua gutxitzen jarraitu zuen.

Oso indartsuak ziren eta ez ziren kearekin izutzen, hotza ere oso ondo jasaten zuten, beraz, haiekin bukatzea helburu lortezina bilakatu zitzaien. Atsekabetuta berriz Willingana bueltatzea pentsatu zuten beste aukerarik ez zutelako aurkitzen. Willik, une luze batez pentsakor gelditu ondoren, zera esan zien:

- Nire aitak beti esan ohi zuen arerioarekin bukatzeko erarik bilatu ez ezean, berarekin lagun egitea zela irtenbide egokiena.

Lagun min biak, elkar begiratu eta hitzik egin gabe, konponbidea zutela ulertu zuten. Adostasun batera heltzeko bidea lortu beharra zegoen. Horretarako, erle eta lore guztiak bildu eta batzar nagusi bat antolatu ostean, irtenbidea nola gauzatzeaz aritu ziren.

Denok zekiten, asiar liztorrei, erleei bezala, ezia gustatzen zitzaiera eta horregatik itun bat sinatzeko proposamena luzatuko zieten. Egunero erleek liztorren esku utziko zuten ekoiztutako eztiaren kopuru bat haien elikadurarako; eta, liztorrek, aldiz, erleen lana erraztuko zuten, baita beste intsektuengandik babestuko ere, eta bizi arrunta egiten utziko zieten. Itundutakoa betetzen ez bazuten erleek gizakien laguntza eskatuko zuten eta liztorrak pozoituko zituzten.

Erabakia hartuta zegoen, bakarrik falta zitzaien asiar liztor buruzagiarekin hitz egitea. Beregan gerturatu zirenean, liztorra zakar eta harroputz portatu zen, haiek baino handiagoa, indartsuagoa zela adieraziz, boteretsuagoa sentitzen baitzen. Hala ere, erletxoek ondo aztertuta zuten nola helarazi konponbiderako mezua eta proposamena entzun bezain laster, liztorra pozik jarri zen erleek beraientzat lan egingo zutela ulertu baitzuen. Alde batetik horrela zen; baina bestetik, erleek irabazten zutena lasaitasuna, bizipoza eta bakea ziren. Ez dago munduan halako hitz potoloak bermatzeko erraz aurki daitekeen bide segururik.





Angel Gonzalez Jimenez
DBH 2. Maila
“Futbola gustatzen zait.”

FAMILIA BIDAIA BAT

Gaur oporretan goaz herrira, denok lagundu behar dugu mailetak eramaten, bizikletak zintzilikatzen eta bidaiarako janaria prestatzen: tortilla, txorizoa, gazta eta freskagarriak. Ziur nago, bide erdian erreka baten ertzean geldituko garela, mahaia eta zuhaitzak dituen piknik eremuan, non aitak ordubeteko siesta egingo duen bitartean, nire arreba eta biok erreka urarekin elkar bustiko garen eta amak gelditzeko esaten digun bitartean.

Landetako bideetatik ibiltzen gara, nire aitari eguzki-loreen soroak, abeltzainak beren ardiekin eta txakurrak euren lana egiten ikustea gustatzen zaio. Nire aita errepidean trabatuta gelditzen bada haserretu egiten da, orduan gustuko duen eta lasaitzen dion musika jartzen du. Nire arreba lo geratzen da eta ni leihotik begiratzen hasten naiz. Noizean behin arranoren bat agertzen da zeruan, usoak usategietan babesten dira eta eperrak soro artean ezkututzen dira, lurrari itsatsita geratuz. Nire aitari gustatzen zaio nire aitonarekin soldadutza egin zuen gizon bat bizi den herri batean geldi unetxo bat egitea. Gizonak beti gonbidatzen gaitu berak eta bere emazteak egiten dituzten pasta batzuk jatera. Nire aitak eta nire amak kafea eskatzen dute eta nik eta nire arrebak bitartean, soda bat hartzen dugu. Bien bitartean, gizonak nire aitonarekin eraiki zuen errotrari buruzko gauzak kontatzen dizkigu. Beti aldatzen ditu istorioak eta batzuetan ez dakizu asmatu egiten dituen edo benetan zerbait kontatzen dizun. Nire aittitte, alde horretatik, berdina da. Gero, nire arrebari eta niri ukuilura eramaten gaitu eta animaliak erakusten dizkigu: 6 zaldi, 20 ardi, txakur bat eta 2 poni. Nik mantsoa den zaldi batean ibiltzen naiz eta nire arreba poni pintto batean. Hasieran beldurra izaten du, baina joateko ordua denean ez du jaitsi nahi izaten.

Joateko ordua heltzen denean, nire aittittek bidali dizkion gauza pare bat ematen dizkiogu. Kotxera itzuli eta errepidera irteten gara. Pasatzean txakur asko ikusten ditugu korrika eta zaunka gure atzetik. Nire arrebak aitari esaten dio arinago joateko, txakurrek ez gaitzaten harrapatu. Azkenean haiek engainatzea lortzen dugu.



Herrira heltzean, auzokideekin zain daude aittitte-amumak ikusi ditugu guri harrera zoragarria egiteko. Nire arreba eta biok herriko plazara ateratzen gara, aita eta aitonak kotxea deskargatzen duten bitartean, eta gure lagunekin elkartzen gara. Egun horretan bederatzieta afaltzen dugu eta hamabiak arte jolastera irteten gara. Nire arreba nekatzen denean, bere lagunekin terrazan eserita dagoen nire amarengana joaten da, magalean esertzen zaio eta loak hartzen du. Beraz beranduago aita joaten da, besotan hartu eta ohera eramaten du. Etxeko kaleko atea zabalik uzten du. Nire aittitte eta amuma bere lagunekin kanpoan daudelako eta nire arrebak amesgaiztoren bat badu eta negarrez hasten bada, entzuten dutelako eta berarengana joan daitezkeelako segituan. Lehenengo egunean, nire aita eta aitona goizez jaikitzen dira, etxea oso zaharra delako, handia eta bertaratzean beti dagoelako zerbait egiteko etxea txukun jartzerako orduan. Beraz, hamaikak arte laguntzen diet garbitzen. Gero aittittek ematen dit diru apur bat eta plazara joaten naiz nire lagunekin.

Traktore bidetik hamar kilometrora dagoen herri batera joango gara eta inguruko belardi pasatzean, behiak, txoriak... ikusten ditugu. Herrira iristen garenean, plazara joaten gara eta herriko koadrilarekin elkartzen gara eta bi talde egiten ditugu futbol partida bat jolasteko. Bukatzean tabernara joaten gara, freskagarri batzuk eta patata frijitu batzuk erostera eta gure herrira itzultzen gara. Hirurak direnean, bazkal ordua, etxera iristen naizenean ahizpa lo dago, beraz nire aittite-amumak, nire gurasoak eta biok jatera goaz eta seiak arte egoten gara mahai jokoetan jolasten; partxisean, adibidez. Baina nire amaxu asko haserretzen da nire aittitterekin tranpati bat delako. Aittittek beti defendatzen nau nik irabazteko, eta horrela, irabazitako dirua aittitte eta nire artean banatzen dugu.

Berriro kalera irteten naizenean, lagunekin plazan gelditzen naiz, nire amuma eta nire ama haien lagunekin ateratzen dira kalera eta nire arreba eurekin joaten da, nire amaren lagunak alabekin egoteko. Nire amama eta nire aittitte petankako lehiaketa bat jokatzeko dute eta ez dutenez inoiz irabazi, oraingoan lehiakortasun askorekin jolastu

nahi dute irabazteko baina amuma eta aitite oso txarrak direnez azkenean galdu egiten dute.

Gero afaltzeko ordua heltzen denean, aita, aitite eta ni paseo bat ematera joaten gara. Oso dibertigarria izaten da: aittittek istorio oso barregarriak kontatzen dituelako. Etxera bueltatzerakoan, lo egitera joaten gara. Azkeneko eguna heltzean, pena asko ematen izaten dut baina lagunak agurtu behar izaten ditut. Goizean amarekin egoten naiz janaria prestatzen eta oso janari gozoa egiten dugu. Nire aita eta aitite berriro egoten dira kotxea prestatzen eraman behar dugun guztiarekin. Eta beti izaten dute elkarriazketa berdina:

- Pena izugarria ematen dit joatea baina ordua da- dio aitak.
- Arrazoia daukazu baina ez zaigu ezer gehiago gelditzen eta gainera hurrengo urtean, bueltatuko gara erreformarekin jarraitu behar dugulako -erantzuten dio aittittek.
- Benetan, izugarrizko ilusioa daukat berriro egun hori heltzeko.
- Nik ere bai.

Joateko ordua heldu da, denok agurtu ditugu, nire amumaren lagunak dirua eman didate eta iada joan gara. Berriro errepidean gaude baina kontrako norabidean.



Maddi Gaztelu-Urrutia Ruiz
DBH2. maila

Busturitarra naiz eta maite dut herria.

CLARA MARTINEZ

Kaixo, ni Clara naiz, eta duela bi urte gertatutakoa kontatuko dizuet. Nik 15 urte ditut, begi urdin-urdinak, ile kizkur, luze eta horia dut, hanka luzeak eta azal kolore nahiko iluna, kafe kolorea bezalakoa. Kanpotik ikusita edonork nahiko zuen familia bat daukat bi neba-arrebekin, amona, aitona, ama eta aitarekin.

Oso polita zen dena duela 4 urtera arte, egia esan printzesa bat bezala bizi nintzen, nahiz eta nire familiak diru asko ez eduki, oso ondo zaintzen ninduten, nire aitag bereziki. Baina duela 3 urte dena okertzen hasi zen, jadanik nire gurasoak ez zidaten ia kasurik egiten nire neba-arrebekin okupatuta zeudelako eta ni nahiko handia nintzelako. Nik ulerten nuen, beharbada, nire neba-arrebak atentzio gehiago behar zutela gazteagoak zirelako. Oso txikiak ziren ia jaio-berriak, nire arrebak 2 hile zituen eta nire nebak bost hile, badakit oso arraroa dela hau, baina nire neba beste emakume batena da, ez nire amarena. Baina nire amak, aita parkatzea lortu zuen oso pertsona ona delako eta asko maite zuelako.



Hile bat zeramatzen nire gurasoek niri hitz bat ere esan gabe, karten bidez komunikatzen ziren nirekin, edo mugikorreko mensajeen bidez. Baina egun batetik bestera nire aita oso atentu zegoen nirekin, zerbait behar banuen han zegoen nirekin, gaixorik banangoen ere berak jai egun bat hartu eta etxean geratzen zen nirekin, ni zaintzeko.

Egunak pasa ahala ni arraro sentitzen hasi nintzen. Egun batean nire aita ni dutxatik irtetzen ari nintzela kumuneko atletik begira ikusi nuelako, berak esan zidan papela bila zegoela, baina berak eta nik badakigu ez zela horrela. Nire aita nitaz sexualki akosatzen hasi zen: besarkatzean ipurdia eta ikutzen zidan, dutxetan beti egoten zen begira, toallak behar zituela edo horrelako komentarioekin aitzakia bezala. Nik ez nuen ezer esan, baina kokoteraino nengoen berarekin eta nire amari esan eta esan nenbilen. Hark ez zidan sinisten, internatu batera sartuko ninduela ikastetxe pribatu batean esaten zidan. Nik gehiago aguantatzen ez nuenez nire amona eta aitonarengana jo nuen, beraiek bai ulertu zidaten, beraiekin bizitzera joan eta denuntzia bat jarri zuten nire aitaren aurka, hau da, beraien semearen aurka.

Poliziek asko tardatu zuten nire aita epailearengana eramanez, beharbada beste kasu garrantzitsuagoak zeuzkatelako eta nirea beraientzan hain inportantea ez zelako. Urte eta erdi gutxi gora-behera. Epaiketarik beste urte erdi iraun zuen, baina egia esan, askotako balio izan zuten. Nire aita kartzelan dago, nire amak niregan urrutze agindu bat du eta nire neba-arrebak eta ni aitona eta amonarekin bizi gara oso pozik.

Baina oraindik beldur handia dut nire aitarekiko, berak 3 urteko zigorra besterik ez duelako, nahiz eta guk hamar urtekoa eskatu epaileari, berak uste zuen oso zigor gogorra zela, bakarrik ni bortxatu ninduelako eta ez nire neba-arrebak ere.

Aitak karta bat bidali zidan duela aste bat eta bertan, esaten zuen kartzelatik irten eta segituan nire eta nire aitona eta amonen bila etorriko zela. Ez ziola axola kartzelan berriz preso sartzea edo kristolako multa jasatea bere kartzelako lagun batzuei gertatu zitzaizen bezala. Nik hori irakurtzean nire oraingo gurasoak, hau da, nire aiton-amonek erabaki zuten herriz eta herrialdez aldatzea, ezin nintzela horrela bizi nire bizitza osoa, eta Estatu Batuetara alde egin genuen New Yorkera. Han lagun berriak egin, ikasketak bukatu eta ingeles maila oso ona lortu eta oso bizitza ona dut orain.

Espero dut historia honek, edo antzeko bat gertatutako beste neska askori laguntzea, jendea konturatzeke hau errealitate bat dela eta ez dela bakarrik pelikuletan edo fikziozko liburuetan gertatzen, pertsona oso txar asko daudelako mundu honetan desgaziz. Epaileek askotan kasu gutxi edo zigor oso txikiak ezartzen dituztelako, konturatzeke gehienetan bortxatzaileak gizonezkoak direla, nahiz eta emakumezkoak ere egon, txarren geratzen direnak, traumekin etab. Emakumezkoak dira beti txarto bukatzen dutenak.



Xabier Legarre

DBH 2. maila

“Idazkera gehiena idazmakinetik kanpo egiten da”

ISPILUAREN AURREAN

Behinola, aspaldi, mamu bat ikusi nuen. Baina ez zuen beldurrik ematen. Ez horixe. Atsegina eta arretatsua zen, han egoten zen beti, nire zain, nahi nuen edozertarako.

Ez zuen gainerako espektroen antzik, mamu kontzeptuaren guztiz kontrakoa; barregarria, berritsua, arrotza, dibertigarria, eta umore zentzugabekoa zen.

Barre algara galantak egiten genituen beren txiste txarrekin. Haren irria oso kutsakorra zen baina ezinezkoa bere aurpegia ikustea.

Belarrira xuxurlatu besterik ez zidan egiten. Gainerakoa, imajinazioa erabili behar nuen, bere aurpegia, ilea, ezpainak eta izterrak irudikatzeko. Batzuetan, bizkarrean sentitzen nituen haren esku bero eta leunek, sorbalda laztantzen zidaten.

Horrela ematen nituen orduak, zerumugari begira, berak bere txutxu-mutxuak kontatzen zizkidan bitartean.

Triste nengoenean, kontsolatu eta irribarre bat ateratzen zidan malko artean.

Berdin dio zein egoeratan nengoen. Hala ere, horrek txundituta sentiarazten ninduen.

Begirunerik gabea nintzen, une oro entzun behar nituen nire txorakeriak. Nik beti ezagutu ahal nuen beste norbait, baina zer gertatuko zitzaion? Neskame bat bezala alde guztietara jarraitzera kondenatuta zegoen, besterik ezin zuen egin.

Hala ere, ez nuen negar egiten, nirekin bekatua egon arren. Baina ezin nuen beste ezertan pentsatu, ikusi, ukitu eta irribarre egin behar nion. Nahiz eta segundu bat iraungo zuen hausnarketa besterik ez izan.

Etxera iritsi, argiak itzali, eta linterna bakarrarekin komunera joan nintzen. Mugitu gabe, ispilu haren aurrean neure buruari begiratu nion, Izugarria zen: bestaldean zegoenak begi- niniak dilatatuak zituen, begien azpian zirkulu ilunak, azala eta bekaina nahasia zituen.



- Zein itsusia naizen... – komentatu nuen – Nire aurpegia ikuskizuna da...Baina txarrenetarikoa.
- Denok genekien hori -erantzun zuen sarkastikoki- Niri ere ez zait axola.
- Aizu, ez izan gaiztoa! – esan nion txantxetan.

Minutuak pasa ziren eta ez zen beste sarkasmo deserosorik egon, gogor jokatzeko saiatu nintzen, baina linterna hori merke-merkea zen eta nire figura baino ez zuen argitu. Isilik zegoen dena. Kanpoko euria besterik ez zen antzematen.

Nahiko beldurgarria zen. Hala ere, denbora gogor hura pasatzeko prest nengoen. Kliskatu egin nahi nuen, baina pentsaezina zen. Ahalegin guzti horren ondoren, ezin nuen etsi.

Bost minutu igaro ziren eta ez nuen ezer ikusi. Dena puntutxo zuriz beteta zegoen, eta aurpegi hura ezezaguna zitzaidan. Begi-nini berde haiek baino ez nituen ikusten niri begira. Egoera hura oso ezezaguna egiten zitzaidan.

Oso arraro sentitzen nintzen, eta hura ikusteko gogo kentzen ari zitzaidan, berak nire aurrean agertu nahi ez bazuen ezin nuen ezer egin.

Baina une hartan, hainbeste denbora itxaroten egon ondoren, miraria gertatu zen, lurretik esku bat agertu zen, ni agurtzen. Bere azala zuria eta leuna zen.

– Ispilu honetan, egunen batean elkarrekin bizi eta amets egingo dugu, elkarren ondoan. – xuxurlatu zuen bere ahots ahul eta leunarekin.

Azkenean begiak zarratu nituen eta irekitzerakoan ez zegoen inor.

Segundo bat itxaron gabe, atea itxi, linterna itzali eta komunaren gainean eserita irribarre egin nuen. Inoiz ez naiz hain zoriontsu egon.

Lortu nuen! Ez zen ezer egoera hura bezain pozgarria. Nire begien aurrean ikustea izan zen lehen urratsa. Ez nuen nire beharrik zoriontsu izateko.

Euria gelditu zen eta korredore bat ireki zen nire aurrean, argiz betea. Korrika eta presaka ibili nintzen kalexka horretatik, akitu arte.

Nire pausoak gero eta zehatzagoak ziren, arnasa sakon hartu nuen, eta harengana joan nintzen, azkenean besarkatu ahal izateko itsuturik. Ezin nuen segundo bat gehiago itxaron. Eszena hark larritu ninduen, zeruan sentitzen nintzen. Ilun zegoen, dena isilik, eta haren zain nengoen.

Gau osoak ematen nituen geldirik honetan pentsatzen eta une hura heldu zen. Bat-batean, esku batek, edo, hobeto esanda, gorputz batek, apur bat ukitzen ninduela sentitu nuen.

Airea garbi zegoen, baina nik ezin nuen nire pentsamenduekin jarraitu. Han zegoen oraindik, niri begira. Bere begiak lepoaren atzealdean josita susmatzen nituen nire gorpua inguratzen.

Hurbildu eta indar guztiekin besarkatu nuen. Azkenean, besoa ukitzen sentitu nuen haren ile luzea. Ahal bezain gogor heldu nion, eta musu bat emateko gai izan nintzen.

Inoiz ez naiz hain pozik egon, egun hartan bezalaxe. Nire helburua lortu nuen, ez nuen beste ezeren beharrik.

Hala ere, zerbait gaizki zihoan.

Leku batean, oharkabea, inork ohartu ezin duen lekuan hain zuzen ere, gizon zurbil bat ageri zen, guri begira. Pupilak dilatatuta zituen. Begi ero haiekin so egin zigun. A ze beldurra!

Baina, nor zen? Agian ni, beharbada hura.

Ez nintzen ausartu harengana hurbiltzen, han gelditu nintzen ispiluaren aurrean, geldi-geldi, noiz desagertuko ote zen zain.



Yuko Huali Alvarez Peral
DBH 2. maila
“Beti maitasunez”

“MAITASUNA KIRIBIL AMAIGABE BAT BALITZ”

Haiku

*So neurriari
Hemendik ta aurrera
Zenbat zedarri*

*Kontatzeko asmoz
Barruan dudan hori
Mina zein poz*

*Eta hola da bai
Maitasuna ohi dugu
Izan mintzagai*

*Hemen idatzi
Gogoetak batu
Zuei helarazi*

*Balio dezan ba
Barrua hustutzeko
Besterik ez bada*

*Inor bederen
Ez uzteko ba epel
Hartu atseden*

*Hemen hasten da
Gizaki maitasunaz
Nire berbaldia*

*Hasiera da
Guztiz txundigarria
Gaua da egun*

*Eguna gau
Gezurra badirudi
Sinetsi dazu*

*Egunen batean
Zerorrek sentituaz
Egia benetan*

*Oh, txundigarri
Eder ta egiazko
Sentiarazi*

*Bestearengan
Dena da dizdiratsu
Egi egitan*

*Oso osorik
Hartzen duzu bestea
Hark hunkiturik*

*Baina denbora
Gero pasa ahala
Den dena astora*

*Ederra zena
Ez da hain polita
Aldatzeko sena*

*Astiro, gogor
Dugu egiten bestea
Giza aldakor*

*Gure nahia
Gure gogo ispilu
Egokitzea*

*Haren akatsak
Gure desirenara
Oh, zuzentzea*

*Lehen ona ta
Orain ez, horrela
Ikusten duzu ta*

*Nire galdera
Zergaitik ete den
Gertatzen hara*

*Nik ikusita
Nahi baino are
Gehiagotan*

*Dit eragiten
Zer pentsa jokatzeko honek
Are asaldatzen*

*Zer da benetan?
Erakartzen gaituea
Gure bestean*

*Bera al da ba?
Ala gure gaitasuna
Aldatzekoa*

*Grekoek zuten
Kontatzera noa zuen
Mitoa sinisten*

*Agian hor da
Agertutakoaren
Oh, azalpena*

*Lau hankadun
Izan ginen sortuak
Lau besodun*

*Orduan ginen
Gure garaitako
Gizaki osoen*

*Baina hasi zen
Gure harremana
Korapilatzen*

*Bat izan ginena
Banatzen hasi eta
Hautsi ginena*

*Jainko maltzur
Haiek asperrak jo
Ez nago zihur*

*Kontu da gero
Nor bere aldetik
Zu hotz ni bero*

*Aurkitzean
Baliazko bestea
Erakartzean*

*Hasi ederra
Ez dakigu zergatik
Buka okerra*

*Seguru asko
Jainko haiexen
Barreak franko*

*Mortalok berriz
Guroil zoro horretan
Negar ta irriz*

*Ikasi ahal
Egingo dugu ote
Luze ta zabal*

*Madarikatu
Liteken harritzarra
Gainetik kendu*

*Haru emanak
Izan ahal daitezen
Sakon zabalak*

*Bestea hartu
Gure magalean
Ta ez eskatu*

*Ha bere bizitza
Sobera ta bakarra
Nire bestea*

*Gara pertsonak
Ez beti bikotea
Banan sortuak*

*Onar dezagun
Bestea gizakilez
Baina ez dezazun*

*Inoiz ahaztu
Lehen gure brua
Maita dezagun*

*Hola bakarrik
Maitatuz zure
Burua lehenik*

*Sentituz osorik
Lortuko bait duzu
Zoriontasunik*



Aratz Leciaga Murga
DBH 3. maila

“Betebeharra baino indartsuagoa al da maitasuna?”

MAITASUNEZKO ISTORIO BAT

Emmak haizea sentitu zuen bere ilean, itsasontzia Londresera bidean itsasoratzen ari zen aldi berean. Une hartan, bere haurtzaroko oroitzapen guztiak bere burura itzuli ziren, bere ama zenaren barrea, aitaren whisky usaina, bere anaiarekin izandako borrokak... Emmak ezin izan zion malkoei eutsi, ezin zuen burutik kendu etorkizunak zer ekarriko zion Londres bezalako lurralde ezezagun batean.

Emmari itsasontziko egunak betierekoak egin zitzaizkion, bakarrik eta beldurturik sentitzen zen etorkizun ezjakin baten aurrean, zenbait egunez errutina berarekin Londres ikusi zuten azkenean, hodei gris eta ilun baten azpian zegoen hiria. Emmak ezin izan zion emozioari eutsi, bere ekipajea hartu eta zurezko korridore estuan behera jaitsi zen, bere oinekin lur sendoa ukitzeraino. Hor zeuden izeba May eta osaba John. May bere amaren ahizpa gazteena zen, andre txikia zen, lodikote samarra, baina irribarre irribarretsua zuen beti aurpegian. Ama serioagoa eta finagoa zen, New Yorkeko goi mailako klaseekin erlazionatzea maite zuen. Izeba May emakume xumeagoa zen, baina era berean Londinense goi mailako gizartean kokatua, bere senarra Kensingtongo dukea baitzen.

Lau uda inguru ez zituela ikusten, eta une hartan konturatu zen haiek izango zirela hemendik aurrera bere familia berria. Bere gurasoak eta bere anaia bi hilabete eskasera hil ziren zirkulazio-istripu batean, batzuetan oraindik amaren ahotsa entzuten zuela uste zuen, baina oroitzapenak baino ez ziren, atzean bere bizitza New Yorken geratzen zen, bere lagunak, bere irakasleak... Osabak eta izebak doluminak eman zizkioten gertatutakoagatik, eta gero zalgurdian sartu ziren. Handik pixkat batera, azkenean, izebaren etxe txikira iritsi ziren. Etxe handi bat zen, lorategi izugarriekin, zalgurditik lekaio bat irten bezain laster haren zain zegoen, maletak hartu eta bere gela berrira eraman zuen. Gelako hormak hormigoizkoak ziren, ez zeuden margotuta eta ohe bat eta armairu txiki bat besterik ez zeuden. Lekaioa joan bezain laster, atea itxi, ohera bota eta negarrez hasi zen.

Emmak arratsalde osoa eman zuen ohean etzanda eta hamarretan lehen egondako lakaio bera agertu zen bere gelara eta afaria prest zegoela esan zion. Mutil garai, beltzaran, serio eta eder hark jakin-mina sortzen zion Emmari, inoiz sentitu ez zuen jakin-mina. Afaltzen ari zirela, Will lehengusuak hitz egin zion Londongo goi mailako elkartearen hurrengo jaietako bati buruz; Brougeko kondeen jauregian egitekoak ziren eta maskara festa bat izango zen. Willek joatera gonbidatu zuen, eta Emmak ideia ona izango zela pentsatu eta proposamena onartu zuen.

Jaieguna zen, eta bere lehengusina Julietek bi soineko eman zizkion, luzaro pentsatzen egon ondoren soineko bat aukera zuen. Festara maskarak jantzita sartu zirenean, dantza batzuk onartu zituen, eta gero izebak Frank aurkeztu zion, kondeen semea. Hau harroa zen, baina Emma bere gustukoa zela ikusten zen. Dantzak amaitu zirenean, mutilak etxe ondoko lorategi bateraino zuzendu zuen. Emmak inolako trabarik jarri gabe jarraitu zion, baina arazoa mutiko batzuek ikusi zituztenean etorri zen; laster iritsiko zen zurrumurrua goi mailako gizarte osora, eta hori gertatuz gero, bere familiaren ospea suntsituko lukete. Emmak ezin izan zion aurre egin eta dena kontatu zion izebari, lasai egoteko esan zion, irtenbide bat aurkituko zuela.

Aste batzuk igaro ziren eskandalotik, baina azken aste haietan zerbait gertatu zen. Emma gero eta biziago bihurtzen zirela konturatu zen Andrew (lakaioa) ikusten zuen bakoitzean bere urdaileko tximeleta haiek. Emma jakiten hasi zen gertatzen ari zitzaiena, baina ehuneko ehunean seguru ez zegoenez, ez zuen sinesten. Hori guztia aldatzen hasi zen Londresko aste bereziki euritsu hartan. Hainbeste euritan, inork ezin izan zuen etxetik irten, eta noizean behin kartetan aritzen ziren. Une hartan Emma liburu bat irakurtzen ari zen, eta gosea zuenez, sukaldera jaistea erabaki zuen janari pixka baten bila. Sukaldean zegoela, ahots batzuk entzuten ziren eta jakin-min handiagoz entzuten hasi zen; konturatu zen ahotsak sukaldariarenak eta laguntzailearenak zirela,

- *Neska gaixoa, Kensington jaunek Franken pertsona gaiztoarekin ezkondu nahi dute, eskandalua konpontzeko.*- esan zuen sukaldariak, Pennyk
- *Egia da, neskak sufritu duen guztiaren ondoren, hain gizon mesprezagarri eta doilor batekin ezkonduko dutela.*- esan zuen laguntzaileak
- *Tira, ezin dugu ezer egin.*


Une hartan, Emmak ezin zuen sinetsi entzuten ari zena, azken astetan fidatu zen familia ez zuten nahi bakarrik hura ezkontzea eta, horrela, hartaz libratzeko egin zuten dena. Haserre, bere gelara joan eta Andrewrekin topo egin zuen. Une hartan, Emma haserre zegoen, ez zekien zertan ari zen, eta emozioz gainezka, Emmak bere sentimenduak adierazi zizkion lekaio hari. Azalpenik ez zuen maitasun horrek, apenas ezagutzen baitzuten elkar, bere beldurak, bere erokeriak. Beranduegi izan zen Emma egindakoaz ohartu zenean, ez baitzeukan atzera bueltarik.

Egunak joan ziren, eta Emmak eta Andrew-k ezin zuten elkar ikusi, udaberriko egun hotz hartan ustekabeko berri bat iritsiko zitzaien; etxeko jaunek ezkontzeko data zehaztu zuten, Emmak ere ez zekien zer gertatuko zen, sukaldean entzun zuen solasagatik izan ez balitz ez zuen jakingo ezkontzarena. Izebak azaldu zenez, bere errua izan ez zen hondamendi hura konpontzeko irtenbide bakarra zera zen: leku hartan kondearen semeak ezkontzeko proposamena egin ziola eta eskandalua ez zela existituko

esatea. Horrela Londresko goi mailako pertsona batekin ezkontuta eta ondo kokatuta egongo zela esan zion. Bere izebaren arabera, abantailak baino ez zeuden, baina berak ez zekien Emma lekaio hartaz maiteminduta zegoela. Izebarentzat axolagabea zen pertsona hura. Will lehengusua oso pertsona bitxia zen, eta berehala konturatu zen zer gertatzen zitzaion. Willek Emmari esan zionean, onartu besterik ez zuen egin, eta horri esker Willek esan zion lakaioak ere harenganako sentimenduak zituela jakin zuela. Hori zen Emmak behar zuen berria, hitz haiek eman zioten borrokan jarraitzeko adina indar bere maitasuna konprobatzeko.

Ezkontza baino egun bat lehenago, dena prest zegoen. Emmak eta Andrewk hurrengo trena hartuko zuten eta gero ontzi bat hartuko zuten berriro New Yorkera joateko. Han oharkabea igaroko ziren eta bere maitasun istorioa lasai bizi ahal izango zuten. 8: 00ak ziren trena hartzeko ordua, Andrew eta Will-ek ekipajea igo zuten eta bitartean, Emma lehengusinari agur esan zion. Zaindariaz tiketak eskatu eta trenera igo ziren. Une hartan, Emmak bere bizitzako momenturik zoriontsuena biziko zuen, bere jaioterrira itzuliko zen lagunekin, eta Londresen gertatu zen guztia han geratuko zen.

Emma eta Andrew azkenean libre eta zoriontsu zeuden New Yorken zorionez gainezka, baina biek ez zekiten kaosa ezkontza egunean askatuko zela Emma ezkontza egunean agertu ez baitzen.



Irati Munitxa Mestraitua

DBH 3. maila


*“Istorio honek esan nahi asko du niretzat,
txikitan antzeko gauza bat gertatu zitzaidalako”.*

ASGARD-EN MUNDUA

Behin eta berriz hau ez da inoiz geldituko, baina ezin dut gehiago jasan, bakean uztea behar dut, eta berataz ahaztu behar naiz, ez da inoiz fijatu nigan eta ez du inoiz egingo, lortzen dudan gauza bakarra nire bizitza konplikatzea da. Nik dauzkadan pentsamenduak beti txarrak dira, positiboagoa izan beharko nuke, baina ezin dut, ezin dut beti egoera bera delako; Klasean nirekin sartuko direla jakinda altxatzen naiz ohetik, eguna luzea egiten zait eta etxera etortzen naizenean ez dut oheratu nahi, ez dudalako nahi hurrengo eguna heltzea. Eta horrela aste osoan, hilabete osoan eta urte osoan. Dudan gauza bakarra nire lorategian dagoen zuhaitza da, esaten dudanagatik ez nauela kritikatu jakinda, hitz egin dezakedan bakarrarekin delako. Zuhaitz hori ez banu, ez dakit zer gertatuko zen nirekin, zoratu egingo nintzateke.

Uste dut neure burua aurkeztu beharko nukeela, ni Agata naiz eta hamasei urte ditut, eta dagoeneko ikusi duzuen bezala lesbiana naiz eta horregatik sartzen dira egunero nirekin. Ez daukat lagunik, bueno batzuk, baina denak dira faltsuak, bakarrik nahi naute nire diruagatik. Jauregi batean bizi naiz, lorategi oso handiarekin eta nire zuhaitza etxearen atzealdean dago.

Hau hemen nire etxea da eta etxearen atzean dagoen lorategia hau da:



Txikitan beti pasatzen nuen denbora nire lorategian, nire zuhaitz gogokenarekin; nire gurasoak ez zeuden inoiz etxean, beti lanean ari ziren eta itzultzen zirenean ez ninduten kasurik egiten, ikusezina sentitzen nintzen eta horregatik joaten nintzen lorategira.

Gaur klasetik bueltan, nire gelara igo eta etxeko lanak egiten hasi naiz. Pixka batean afaltzera jaitsi naiz, eta gero lorategira joan naiz eta beti bezala nire zuhaitzaren azpian negarrez hasi naiz, ez dakidalako zer egin dudan gaizki eta zaborra bezala sentitzen hasten naiz ;gainera, inork ez nau ulertzen, ezin naiz inorekin fidatu eta ezin dut inorekin hitz egin.

Etixerako bidean nengoela egun horietako batean, Dianarekin topo egin nuen, gustuko nuen neska. Ez nekien zer egin, berak ez zekien ni existitzen nintzenik ere, baina hala ere beregana hurbildu eta elkarrekin joan nahi ote zuen galdetu nion neure buruari.

Zein tontoa naizen batzuetan; ondo hitz egingo zidala pentsatu nuen, eta baietz esango zidala, baina bere erantzuna izan zen: Ez zaitut ezagutzen, nor zara? Tira, niri ere berdin zait nor zaren, utzi bakean.

Lasterka joan nintzen etxera, ez nuen beste inor ikusi nahi. Nire zuhaitzean eseri nintzen, bizkarra bere enborraren kontra eta gertatu zitzaidana kontatzen hasi nintzaion. Harik eta momentu batean atzerantz erortzen ari nintzela ohartu nintzen, baina ez nuen ezer ikusten, lo geratu nintzelako.

Ordu batzuk igaro ondoren zeozeren barruan nengoen... Egia esan ez nekien non negoen, jakin nuen gauza bakarra zen pixka bat zorabiatuta eta nekatuta nengoela eta ez nintzela gogoratzen nola iritsi nintzen hara. Gauza bakarra ikusi zitekeena egurrezko horma batzuen barruan nengoela eta dena oso polita zela

- Aizu Tauriel, nor da gizaki hori? Eta nola heldu da hona?.
- Ba, nik ez dut ezagutzen Ralf, nik zu bezain adina dakit. Dakigun gauza bakarra da Midgard erreinutik datorrela, baina hala ere hobe da berari galdetzea.
- Baina, ez dakigu arriskutsuan den edo ez.
- Lasai, beldurtuta dagoela ematen du, ez digu ezer egingo.
- Kaixo, ikusi zaitugu eta Midgard mundutik etorri zarela suposatzen dugu, baina ez dakigu nor zaren.
- Emm, barkatu baina ez dakit non nagoen eta zer zareten, eta zer da Midgard?
- Noski, gu iratxoak gara, eta oraintxe gure munduan zaude, hona nola heldu zinen ez dakigun arren. Eta, Midgardi buruz, zure mundua ez al da horrela deitzen?
- Ba ez, lur planeta deitzen diogu. Eta zuek zergatik deitzen diozue horrela? Zerbait esan nahi du?
- Ez genekien horrela deitzen zenionik, mundu honetan Midgard zure munduaren edo erreinuaren izena da eta gizakien erreinua esan nahi du.
- Ez nekien, interesgarria dirudi, baina ametsetan nago edo zerbait? ez nago ziur hau benetakoa denik.
- Oraintxe zuhaitz baten barruan gaude; beraz, ziurrenik erori zara baina ez dakigu nola.
- Gogoratu dut, zuhaitzean jesarrita nengoela, haserretzen naizen bakoitzean zuhaitzera etortzen naiz eta berarekin hitz egiten dut. Horregatik erori nintzen.

- Zuhaitzarekin hitz egiten duzula?, orduan berarekin hitz egiten baduzu, nola da Takarak ez dizula ezer esan?
- Takara? Nor da Takara?
- Nola! Ez al dakizu nor den Takara?
- Ba ez.
- Itxaron pixka bat...
- Ralf, entzun al duzu nik entzundako gauza bera?
- Bai! Takara ez duela ezagutzen esan du, baina hori ezinezkoa da, ezta?
- Zehazki, ezinezkoa da bera ez ezagutzea. Ezin da izan, beti zuhaitz honekin hitz egiten bazuen Takara ez ezagutzea.
- Agatha, etorri gurekin

Hirurak ibiltzen hasi ziren eta ibilaldian dena ulertuko zuen toki batera eramango zutela azaldu zioten.

Ezin nuen sinetsi ikusten nuena. Nire eskuaren tamainako tximeleta batek hegan egin zuen nire ondoan eta kolore berri batzuk zituen niretzat. Momentu batean pentsatu nuen txikitu egin nintzela baina nire ondoan ikustean iratxoak tamaina bera zutela jakin nuen ezetz.

Urrunean ur-jauzi handi bat zegoen eta ez zen ikusten non bukatzen zen. Ur-jauziaren inguruan puntu hori distiratsu batzuk ikusten ziren eta iratxoek azaldu zidaten ur-jauziko “maitagarriak” zirela.

Mendi ikusgarriak ere ikusten ziren...

- Suaa! -egin zuen garrasi Agathak
- Lasai, Takara da -lasaitu zuen Taurielek, eskua bizkarrean ezarriz.
- Bera da guztia azalduko dizuna -esan zuen Ralfek.

Ikusi nuenean lehorreratu zen izakia dragoi erraldoi bat zela izoztu egin nintzen. Baina arraroa bada ere, ez nuen beldurrik sentitu, guztiz kontrakoa ezaguna iruditu zitzaidan.

Dragoiaren koloreak izan ziren liluratu nindutenak, bere tonuak urdinetik berdera igarotzen ziren. Bere begi gorriekin begiratu zidan urrezko hego distiratsu haiek jasotzen zituen bitartean.

- Kaixo Agatha -esan zuen Takarak.
- Dr...dragoi ba... ba...batekin hitz egiten nago -esan zuen Agatak guztiz harrituta.
- Lasai, ezagutzen zaitut eta zuk ere ezagutzen nauzu, baina oraindik ez dakizu
- Ralf, Tauriel, utzi biori bakarrik une batez -esan zien Takarak
- Noski -esan zuten biek batera.
- Hau guztia oso konplikatua izango da zuretzat, baina hobe da oraintxe bertan dena kontatzea. Dena dakit zutaz, badakit zenbat urte dituzun, non bizi zaren, nolakoa zaren, nola sentitzen zaren... baina lasai, ez naiz psikopata bat, zu izan zara dena kontatu didazun.
- Nik inoiz ez diot inori ezer esaten.
- Eta zure lorategian dagoen zuhaitza?
- Baina zuhaitz bat besterik ez da, ez nau ulertzen.

- Hori uste duzu, baina zure lorategian dagoen zuhaitza eta biok lotuta gaude, zuhaitzari esaten diozun guztia niri esango bazenit bezala da.
- Ba ez nuen hori espero, denbora beharko dut hau guztia asimilatzeke.
- Denboraz ari garela, gogorazten dizut oraintxe bertan ez zaudela zure munduan, Asganahird-eko erreinuan zaudela eta hemen denbora polikiago pasatzen da.
- Uste dut ideia ona dela etxera joatea, atsedean hartzeko, eta horrela bihar berriro elkartzeko.
- Ba orduan, bihar arte.

Etxera itzuli nintzenean konturatu nintzen nire munduan zazpi ordu pasa zirela eta Asgard Erresuman lau baino ez zirela pasatu.

Hilabete osoa eman nuen arratsaldero Asgardera joaten. Takara eta biok banandu ezinak bihurtu ginen eta mundu horretan bikain sentitzen nintzen; gainera, askotan galdera bera pasatzen zitzaidan burutik: Zergatik itzuli nire mundura? Inork ez nau han kasurik egiten eta ez ziren konturatuko ez nagoela.

Denborarekin Takara konturatu zen bere mundua nirea baino gehiago maite nuela eta erabaki zuen gustatuko ez zitzaidan gauza bat kontatzea.

Asgard Erreinua faltsua zela esaten hasi zitzaidan, nire irudimenaren gauza zela eta bera ez zela benetakoa, ezin nuen sinetsi eta negarrez hasi nintzen.

- Nola, ez zarela benetakoa!? -esan nion negarrari utzi ezin nion bitartean.
- Badakit hau gogorra dela eta horregatik ez nizun esan nahi orain arte, baina uste dut prest zaudela zure bizitzako zailtasunei aurre egiteko.
- Gogoratu beti egongo naizela zuhaitzean eta nahi duzunean hitz egin dezakezula nirekin.
- Baina ez da berdina izango, zuhaitz batekin hitz egin beharko dut.
- Badakit baina beti egongo naiz zurekin.

Azken finean, Takara besarkatzen ari nintzen eta hainbeste negarrez, lo hartu nuen. Minutu batzuk geroago nire lorategiko zuhaitzari besarkatuta esnatu nintzen:





Uxue Hormaetxea Arrien
DBH 3. Maila

“Lagunekin irtetea eta musika entzutea gustatzen zait”

BENETAKO BIZITZA

2005eko maiatzaren 28a egun eguzkitsua zen. Bazen Maitane izeneko 26 urteko emakume eder bat. Joseba izeneko senarra zuen. Bilbon bizi ziren. Maitanek ama izan nahi zuen dela 2 urte. Oso urduri zegoen. Farmaziara joan zen, haurdunaldiko test bat erosi, egin eta haurdun zegoela ohartu zen. Oso pozik jarri eta Josebari jakinaraztera joan zen. Irribarre handi bat ageri zitzaion aurpegian. 9 hilabeteko min eta sufrimenduaren ondoren, azkenean jaio zen Peru izeneko haurra. Bi kilo eta laurehun gramorekin hain zuzen. Oso txikia zirudien. Ama negarrez hasi zen pozaren pozez. Peru eskuetan hartu eta ez zion negarrari utzi. Hiru egun pasatu zituen ospitalean. Egunero bularra ematen zion umetxoari. Berak ere jan egin behar zuen baina ez zuen gustoko ospitaleko janaria. Joseba egunero joaten zen bertara ta bueltan etxera ezin zelako geratu gau osoa bertan. hiru egun igaro ondoren, ospitaletik irten eta etxerantza joan ziren. Etxera heldu, Peru sofán utzi aitaren besoetan eta Maitane dutxa on bat hartzera joan zen. Berehala ateko txirrina entzun zen:

- RIN RIN! RIN RIN!
- Bai? -erantzun zuen Josebak.
- Zabaldu atea mesedez, amona eta aitona gara. Peru ikustera gatoz eta oso urduri gaude!
- Aurrera -esan zien Josebak.

Lore sorta eder eta bonboi kutxa batekin sartu ziren atetik. Sofan eseri eta aspaldiko kontuekin hasi ziren. Maitane dutxatik irten eta eupelako sorpresa hartu zuen. Poz-pozik abesten eta dantzatzen pasatu zuten arratsaldea Peruren jaiotza ospatzeko.

Peruren lehenengo urtebetetzea iritsi zen. Familia guztia batu zen. Maitanek hiru neba-arreba zituen. Josebak, ordea, bi. Josebaren eta Maitaneren iloba guztiak zenbatuta bost zituzten guztira. Beraz, Peruk bost lehengusu-lehengusina zituen: Irati 2 urtekoa, Jon 4 urtekoa, Iker 6 urtekoa, Izaro 3 urtekoa eta Liher 5 urtekoa. Familiako baserrian ospatu zuten urtebetetzea. Urtero bertan ospatzen zituzten jai guztiak. Janari asko prestatu zuten eta dena jan ondoren, tarta handi bat atera zuten mahai erdira. Tarta

jan eta gero, umeen jolasak egiten hasi ziren eta karaoke bat antolatu zuten euskal abestiekin amaierarako. Arratsalde on bat pasatu zuten.

Urteak pasatu ahala, 8 urte bete ondoren, txakur bat adoptatu zuten. Artzain alemaniarra hain zuzen. Kira izena jarri zioten eta 3 hilabete zituen. Egun eguzkitsu batean, Peru eta Kirarekin txakurren parke batera paseo bat ematera joatea bururatu zitzaien. Heldu eta pilotarekin jolasten egon zirenean, beste txakur bat agertu zen. Zitzu bizian etorri zen pilotarantz. Peruk zuen eskuan. Txakurrak bere eskuetara salto eta eskuineko eskuan koxka egin zion. Peru aldarrika hasi zen eta ospitalera joan ziren zer egin jakin gabe. Arazo larria zirudien. Berehala medikua ageri eta zera esan zien gurasoei:

- Peruren gurasoak? Non daude?
- Hemen, hemen! Zerbait larria gertatu zaio?- erantzun zion Maitanek.
- Mmm... Peruren eskua... ukondotik behera... odola... tendoiak... Askok sentitzen dut baina...ez dakit nola esan...moztu egin behar diogu esku erdia.
- Zerrr!!! Hori ezin da izan! -esan zuen amak.

Josebak pixka bat lasaiago hartu zuen eta Maitaneri dena ondo irtengo zela hitz eman zion. Peru zegoen gelara sartu ziren ea nola zegoen ikustera. Esku erdia ebaki zioten. Une hartan, bizitza guztiz aldatuko zitzaizela ohartu ziren eta egun hartatik aurrera bizitza normala ez zela izango konturatu ziren. Ezin zuen ezta bere gustukoaren kirola praktikatu, saskibaloia. Esku batekin oso zaila zen jolastea. Lehen egunero entrenatzen zuen baina ebakuntzaren ondoren, triste egoten zen beti ezin zuelako ezer egin. Oso garai txarrak ziren familia osoarentzat.

Eskolara bueltatzeko egunean, ez zuen nahi ohetik altxatu ezta eskolara joan. Bere lagunak ez zutela onartuko pentsatzen zuen. Kirarekin egiten zuen lo eta egun guztiak pasatzen zituen berarekin asko maitatzen zuelako. Beregandik urruntzeko unea heldu zen, ordu gutxi batzuk besterik ez. Geltokiraino txakurrarekin joan zen. Autobusera igo eta eskolarantz abiatu zen. Eskolara heldu eta ez zitzaion ezer arraroa nabaritzen, bere gustuko jake zuelako sorbalden gainetik. Gelara sartu eta jake kendu egin behar izan zuen. Oso urduri zegoen bere gelakoek zer egingo zuten jakin arte. Jake kendu eta momentu hartan esku erdia faltatzen zitzaizela ikustean, barrezka eta burla egiten hasi ziren. Lehenagotik ere ez zituen lagun asko, hiru edo lau, eta bere hiru lagun hoberenek soilik zaintzen zuten, Ibai, Aitor eta Juneke. Egoera hau gehiegi zen, barreak, tratatu txarrak...eta halako batean Ibai zutitu eta hau esan zuen klase guztiak entzuteko:

- Aizue! Ez egin barrerik. Ez da barregarria. Bai... ulertzen dut... esku erdia faltatzen zaio eta zer?
 - Ba hori! Barre egiteko arrazoia hori da -Esan zuen gelako ergelak, Aritzek.
 - Ez egin barre gehiago, jasan ezina da. Imajinatu zuei berdina pasatzen zaizuela eta gela guztia zuri barrezka egotea. Gustatuko litzaizueke? -Erantzun zion Juneke.
- Aritz isildu egin zen. Gelakoek ez zuten ezer ere esan. Hitzik gabe geratu ziren Ibairan eta Juneren hitzekin. Klase normala egin zuten eta jolasaldira bajatzerakoan, Aritzek Peru bultzatu eta lurrean etzanda gelditu zen. Peru negar baten zegoenean Aitor agertu zen:
- Baina Peru, zer egiten duzu lurrean botata? Zer gertatu zaizu?
 - Aritzek bultzatu egin nau. Min handia egin dut belaunean.

- Mutil hori ergela da. Ez zaitetz arduratu. Botika gelara joango gara eta zerbait egingo dizute.

Botika gelara joan eta benda bat jarri zioten. Oinez ibiltzeko zailtasunak zituen. Etxera heltzean sofán eseri eta deskantsatzen gelditu zen. Izotz apur bat jarri eta gutxika sendatzen joan zitzaion.

Urteak joan eta urteak etorri, Peruk 16 urte bete zituen. Oso pertsona alaia, atsegina, zintzoa, ausarta, azkarra eta arduratsua zen. Amari kasu egiten zion egunero baina batzuetan haserretu egiten zen. DBH amaitzeaz zegoen. Azken egunean, jai bat antolatu zuten urtero bezala eskolan. Oso urduri zegoen, hitz egin behar zuelako eskola guztiaren aurrean. Pentsatzen zegoen ea nola irtengo zitzaion baina bat-batean Aritzek mikrofonoa hartu eta hau esan zuen:

Arratsaldeon denoi. Ni Aritz naiz eta DBH4. mailako ikaslea naiz. Urte honetan eskolako ibilbidea amaitzen dugu eta hitz pare bat esan nahi dut. Zera... Kurtso honetan oso ondo pasatu dut nire gelakideekin baina portaera ez da izan bat ere ona eta Peruri gauzatxo bat esan behar diot denen edo askoren izenean. Barkatu. Peru, barkamena eskatu nahi dizut, klasera heldu zinenean zuri barre egiteagatik eta batez ere errespetu faltengatik. Ez dizut berriro egingo eta zure laguna izatea nahi dut. Onartzen duzu?


Peruk ez zuen jakin zer esan. Aho zabalik geratu zen Aritzen hitzekin. Aritzek gela guztia aho zabalik ikustean, emozionatu egin zen eta negarrez hasi zen. Peru berarengana hurbildu eta besarkada bat eman zion zera esanez:

- Bai Aritz. Pasatu egin zinen baina asko aldatu zarela ikusi dut eta barkatu egingo zaitut.. Baina jakin dezazun ez zitzaidala bat ere gustatu zer egin zenidan bueltatu nintzenean. Espero dut berriro ez gertatzea eta ondo konpontzea elkar.

Aitor, Ibai eta June, ez ziren egon ados Peruren barkamenarekin baina ez zioten ezer esan. Jaia ospatzen jarraitu zuten poz pozik guztiak. Aritz eta Peru ere batera zeuden berbetan, kontuak kontatzen. Gaua egiten ari zen eta Peru etxera joan behar zen. Etxera heldu eta amari esan zion lagun asko egin zituela eta Aritzek barkamena eskatu ziola. Ama pozik jarri eta zoriondu egin zuen.

Peruk, zortzi urte zituenetik, esku erdi gabe jarraitzen zuen. Saskibaloian jolasten ikasi zuen, idazten ere bai, eguneroko gauzak jada kontrolatzen zituen...Baina, hamar urte geroago, 18 urte bete zituenean, familia guztiaren partez opari bat egin zioten. Oparia, kutxa gorri handi batean zetorren. Oparia zabaldu eta hara! Zelako sorpresa! Bere bizitza hobetzeko eta pozago sentitzeko protesia bat oparitu zioten. Peru oso pozik jarri eta pozaren pozez negarrez hasi zen familiari eskertzen. Kirari ere besarkada bat eman zion bere ondoan egoteagatik urte guzti haietan. Oso ondo sentitzen zen momentu horretan. Egun horretatik aurrera bere bizitza asko hobetu egin zen. Unibertsitatera joatea erabaki zuen, Deustoko unibertsitatera hain zuzen ere. Bertan, lagun gehiago egin zituen. Euskal Herriko leku guztietakoak ziren: Gernikakoak, Bermeokoak, Hondarribiakoak, Durangokoak, Bilbokoak... Bazeuden arraro begiratzen ziotenak baina Peruri ez zitzaion axola. Ohituta zegoen kaletik joaten eta jendeak begiratzea.

Txikitan egondako eskolara bueltatu behar du bere diploma hartzera. Bere gelako lagun guztiak batera joan dira, baita Aritz ere. Poztu egin da Peru ikusteaz eta bere bizitza hobetu dela konturatzean. Eskolara sartu eta andereño guztiak eta zuzendariak oso pozik jarri dira. Diploma hartu eta kanpora irten dira buelta bat ematera. Parkera joan eta bertan geratu dira hizketan. Peruk guztiei kontatu die bere familiak zer egin duen eta nola pasatu dituen urte hauek. Oso pozik jarri dira eta betirako lagunak izango direla zin egin dute.





Izaro Trespalacios Uriarte
DBH 3. maila

“Etorkizuna lagunak dira.”

DENBORA

Gizakiok, gertakarien sekuentzia gisa ikusten dugu denbora, eta denok, oraina existitzen den gauza bakarra dela uste dugu, baina iragankorra da, segundu bakoitzean desagertzen da eta ondo dakigun iragana izatera bihurtzen da.

Oraina bihurtzen den etorkizuna eta iragana bihurtzen den oraina dela denbora esan dezakegu laburbilduta.

Berak ez du hori uste, eta, denbora hiru kutxa txikitan banatzen du, lehen kutxa txikia iragana da, lerro kronologiko batean, atzean dagoena, oraina sortzeko oinarria. Berak iraganeko momentu horiek oraina bezala bizi zituen bere momentuan, baina begiak ixterakoan hauts bezala iragana bihurtzen ziren. Bigarrena, erdian dagoen kutxa, oraina da; edonork adjektibo bat dela esango luke, baina berak ez, berak presaka dabiltzan momentuak direla uste du, berak nahi duena baino arinago baitoa gorroto duen lehen esandako kutxara. Azken kutxa, hirugarrena, etorkizuna da; hau azaldu, ulertu edo aurkitu ezina da, pertsonen etorkizunaren misterioan interesatuta daude, izan ere, kutxa txiki horretakoa ezagutuz gero, zentzua galduko luke bizitzak.



Zer eragingo luke lehen kutxa horretan murgilduta bizitzeak? Egindako akatsetan bizitzeak?.

Bera Jon da, bizia pozik zeraman Elenarekin, Elena bere emaztea zen, bere gauetako argitasuna; Jon, nahiko altua, ile marroidea eta laburra, begiak ilearen kolore berdin-berdinekoak zituen; editorial famatu batean egiten zuen lan, 25 urte zituen eta bi liburu argitaratu zituen ordura arte, lagun askoz osaturiko kuadrilla baten zegoen eta familia handi bateko parte ere bazen.

Dena zen perfektua, denek maite zuten, eta askok miresten zuten idaztera iritsi zen liburuengatik, baina bere handinahia handiagoa zen jasotzen zuen maitasuna baino, eta gehiago nahi zuen. Horregatik, beste liburu bat idaztea erabaki zuen, eta gau asko lo egin gabe eta orduak eta orduak idazten eman ondoren liburua bere editorialera bidaltzea erabaki zuen, haiek argitaratu ahal izateko eta maitasun gehiago jasotzeko, baina egun batzuk igaro zirenean, ez zitzaion berririk iristen, eta jakin-min handiz joaten zen postontzira 30 minuturo, bere liburua argitaratu zela adierazten zuen gutunaren zain, eta, postontzia hamaikatxo aldiz begiratu ondoren, postariak eskutitz bat utzi zuen. Gutuna zuria zen, eta estruktura oso sinpleduna, baina Jonentzat barruan zegoena ez zen batere sinplea izango, ziztu bizian igotzen zituen bere etxean zeuden eskailera gutxiak, eta atea ixtean, ziztu bizian zabaldu zuen barruan zeukan karta, baina berak karta hori txarra zela ez zekien.

Gutunak argi eta garbi adierazten zuen liburua ez zela argitaratuko, eta horrek barrutik apurtu zuen, hainbeste ordu lanean lan guztia itxaropena bezain azkar desagertzeko, baina Elenak lasaitu zuen.

Bere etxeko atean zeuden zapatila beltzak eta jaka marroia jantzi eta autora joan zen zuzenean Elenari eskutik helduta, autoaren motorra pizten zuen bitartean malko batzuk erortzen ziren bere masail gorrietatik eta arrebari deitu zion, arreba lasaitzen saiatu zen eta bere etxean geratu ziren Jon lasai egoteko. Baina kotxe bat bera ere ez zegoen errepidean, Jon negarrez zegoen eta Elena ile marroia laztantzen, malkoek begiak itsasoa bezala uzten zuten, eta horregatik ezin izan zuen ezer ikusi, ezta erreitrik atera zen kotxea ere, biek elkar jotzea eragin zuena.

Dena oso azkar gertatu zen eta begiak zabaldu zituenean familia osoa bere oinetan zegoen gela zuri batean, handik segundo batzuetara, ospitalea zela jakin zuen. Azalpenak baino ez zituen nahi, baina horiek entzun eta gero sentimendu bakarra zeukan buruan: errua.

Elena, Jonentzat bizia zen, gau beltzetan lasaitzen zuena, momentu onak bikoizten zituena.

Hortik aurrera egunak beti-betikoak ziren, iraganeko kutxa horretan gorputza eta sentimenduak gordetzen eta aurrean zuen oraina alde batera uzten.

Jaikitzen zenean, bere katilu zahar marroia hartzen zuen, eta, ondoren, prestatzen zuena edaten zuen; batzuetan, kafe bat, gauez batere lorik egin ez zuelako; burura etortzen zitzaizkion une batzuek loa kentzen ziotelako, eta askotan negarretan lehertzen zen horregatik; beste batzuetan, berriz, zenbait belar lasaigarriren infusio bat prestatzen zuen, nolabait lasaitzeko eta emaztearekin amesteko.

Gosaria amaitzen zuenean, zuzenean joaten zen bere etxebizitza txikiko egongelara, eta Elenaren aulki zaharrean esertzen zen, ondoren zigarro bat pizten zuen, ke gris bat botatzen zuena. Kea pilatzen zenean, zigarro batzuen ondoren, hodei handi eta beltz bat sortzen zen bere buruaren gainean, eta hodei hura zen arrazoi bakarra Jon besaulkitik altxatzea eragiten zuena, eta aulki zahar baten gainean zegoen leihoa irekitzen zuen sortutako keak bertatik ihes egiteko.

Egunak hainbeste errepikatu ziren, ahaztu egiten zitzaiola zein egunetan zegoen edo ze ordu zen, eta horrela igaro zuen denboraldi luze bat. Baina zerbait aldatu ahal izan zen eguzkiak hiri osoa argitzen zuen egun batean. Bere infusio beroa hartu ondoren txistu-hots errepikakor bat entzuten hasi zen, telefono finko baten soinua zen. Berehala hartu ahal izan zuen telefonoa, bere ahizpa zen, nebarekin hitz egin nahi zuen, eta lasaitu ere, familia eta lagunak bere aldean zituela gogoratzeko, eta beharko balu bera goratzeko ere, eta ez zutela berriro erortzen utziko. Baina ez, ez zuen hori egin, zutik geratu zen ezer egin gabe, katilu beroari heltzen jarraitu besterik ez zuen egin, telefonoaren soinua berriro isiltasunean geratzeko itxaroan.

Ez zuen arrebarekin hitz egin nahi, eta ezta bizia lehen bezala eraman ere, Elena gabe. Elena nahi zuen. Bere maitearekin bizi nahi zuen.

Hori da Jon, oraina eta etorkizunari lepoa ematen bizi izan dena, urteak eta urteak zuzen ere aurrera begiratu beharrean iraganeko zurrumurruen eta erruaren esklabu bizitzea aukeratu duelako, eta ohartu gabe oso baliagarria den denbora bukatu zaio.



Maialen Blanco Iturriaga
DBH 3. maila
“ Denboraren poderioa ”

ZALDUN BATEN EGUNEROKOA

1789/05/03:

Gaur Londresen egun harrigarri bat izan da. Altxatu, gosalduta eta nire lanera joan naiz. Lanean hainbat kontratu egin ditut. Adibidez, zaldiak saldu, kontratu batzuk amaitu eta zaldun batzuekin hitz egin dut. Hizketan geunden bitartean denok adostu dugu negozio honek ez duela asko iraungo eta horregatik bidaia berri bat hastea erabaki dut. Etxera heldu nintzenean poltsa bat hartu, praka pare batzuk, kamiseta bat, janari pixka bat eta makil bat. Dena poltsan sartu, zaldi bat hartu eta bidaia berri horren bila joan naiz. Gau hotza izan da, baina su pixka bat egin dut kobazulo batean eta han pasatu dut gaua.



1789/05/04:

Lehen eguzki izpia jo baino lehen esnatu naiz. Nire bidaia egiten jarraitu dut eta hainbat mailuki eta onddo hartu ditut gosaltzeko. Baina gosalduta baino lehen herrixka txiki bat topatu behar dut egun batzuk geratzeko eta nire burua antolatzeko. Ibilaldi luze baten ostean Hertford izeneko herrixka batera heldu naiz. Etxeak harri lodikoak dira eta sabaiak berriz, zurezkoak. Azukre eta ogi pixka bat ostu ditut eta gosalduta egin dut. Lasai-lasai gosaltzen nengoenean, orri batek neure burua jo du; nire erretratu bat zuen eta ni harrapatzeagatik hainbat diru emango ziela ipintzen zuen, lapur bat izango banitz bezala. Orduan nire motxila hartu eta aurrera jarraitu dut. Harrituta jarraitzen dut oraindik, zer egin dudan da nire galdera bakarra. Gau osoa pasatu dut ibiltzen herri horretatik urrundu arte.

1789/05/05:

Oraindik harrituta nenbilen, altxatu eta nire bidaia jarraitu dut. Errege-guardiako zaldun batzuek handik igaro dira. Hainbat pertsoneri niri buruzko galderak egin dizkiete. Horren ondorioz pentsatu dut beste erresuma batera joatea. Aukera egokiena da, gauza guztiak hartu eta martxan ipini naiz. Denbora igaro da, baina azkenean mugaldera heldu naiz. Hor bi ate zaintzaile egon ziren. Hainbat galdera egin ondoren, muga zeharkatu nuen. Gaua hostel batean igaro nuen. Ohean negoen bitartean hainbat zarata entzun nituen. Emakume baten zaratak zehatzago. Logelatik atera eta korridorera joan nintzen, gizon bat eta emakume bat liskarretan zebiltzan baina ez nion garrantzirik eman.

1789/05/06:


Jantokiranzko bidean beste eguneko emakume hura ikusi nuen lurrean etzanda, hilda zegoela zirudien. Nire buruan bakarrik amorrua sentitzen nuen. Jarraian nire logelara joan nintzen eta hor berari buruzko dena, nik nekiena, idatzi nuen. Baina azkenean niretzako atzerritar arrunta zen. Korrika bere gizonaren bila joan nintzen, gizona negar bizian zegoen eta erabaki nuen galderarik ez egitea. Azkenik jantokira joan nintzen kafesne bat hartzera. Alboko mahaian gizon bat zegoen, gaztea eta misteriozkoa, ezpata bat garbitzen. Ezpata odol beterik zegoen eta orduan hurbildu nintzen. Nondik dator odol hori galdetu nion eta berak berriz erantzun zidan beste ikertzaileari galdetzeko. Neure buruak bakarrik pentsatu ahal zuen, zelan beste ikertzaile bat?. Orduan ikertzaile horrengana hurbildu nintzen eta hainbat galdera egin nizkion. Galdera guztiak erantzun zizkidan, baina zerbait arraroa zegoen mutil hartan. Orduan isil-isilik jarraitu nion komunetara arte, eta han ezpata bat atera zuen odolarekin. Orduan jakin nuen bera izan zela. Beraz, korrika atera nintzen eta harrapatu ninduen. Orduan atezainari deitu nion oihuka eta guardia erreala etorri zen hiltzailea harrapatu zutela. Diru zorro bat eman zidaten eta nire bidaian jarraitu nuen.

1789/05/07:

Nekatuta nengoen eta nire bidaia hasi baino ez zen egin.. Orduan pentsatu nuen txabola bat egitea hainbat egun pasatzeko. Basorako bidean sartu nintzen eta han toki zoragarri bat topatu nuen. Mendiko ura zekarren ibai bat zegoen. Ibaiaren aurrean zelai txiki bat zegoen eta hori dena zuhaitz berdez zegoen inguratuta. Hainbat zuhaitz ebaki nituen eta belar lehorrarekin lotu nituen. Sabaia arbolen hostoekin zegoen eginda eta lurra hosto bigunekin eta belar lehorrarekin egin nuen. Zaldia lotu eta janariaren bila joan nintzen. Janariaren bila joan nintzenean, hainbat basurde igaro ziren, baina ez zen ezer berezirik gertatu. Nire etxetxora bueltatu nintzenean ohe txiki bat egin nuen. Hor hartutako janaria sukaldatu nuen eta jan egin nuen. Kontu handiarekin sua etxe barrura sartu nuen, etxetxoa berotzeko eta arreta ez deitzeko.

1790/05/30:

Urteak pasatu dira azkenengoz idatzi nuenetik. Txabola handitu egin dut eta horrekin batera sabaia. Harriekin estali dut etxetxea eta baratze bat landatu dut. Urte gogorak izan dira, baina ez naiz damutzen egindakoagatik. Zaldia orain dela bi urte hil zen eta orain beste bat daukat. Momentuz ez dut hirira bueltatzeko asmorik eta eguneroko hau jarraitzeko asmorik ere ez. Horregatik hemen lurperatuko dut, ea norbaitek aurkitzen duen.

A handwritten signature in black ink on a light background. The signature is 'Zaldia', written in a cursive, stylized script. It features several horizontal lines above and below the main text, and a large, sweeping flourish that starts from the top left and curves over the top of the word.



Markel Leciaga Murga
DBH 3.maila

“Batzuetan gezurra esatea egia esatea baino hobe da.”

INGALATERRARA BIDAIA

Diotenez, duela urte asko Euskal Herriko hiru mutil Ingalaterrara joan ziren eta ez ziren inoiz itzuli. Euskal Herriko biztanleak harrituta geratu ziren gertatu zenarekin. Hiru mutilen gurasoak herriko poliziaren etxera joan ziren esanez beraien seme-alabak Ingalaterrara joan zirela eta ez zirela inoiz aintzat hartu. Zer gertatuko zen seme-alabekin?

Herriko poliziek esan zien hori ez zegoela beraien esku, ezin zutela ezer egin. Orduan, gurasoek haien bila joatea erabaki zuten, eta hala egin zuten. Biharamuna iritsi zen eta hiru gurasoak aireportura abiatu ziren.

- Uste dut hori dela gure hegazkina.

- Bai, hori da.

Hirurak hegazkinean joan ziren eta azkenean Ingalaterrara iritsi ziren.

- Ze bero handia egiten du hemen.

- Sargori ikaragarria egiten du.

Zerbait edango dugu hotelera joan aurretik.

Hirurak hotelaren ondoko taberna batera abiatu ziren. Tabernan sartu zirenean, harrituta geratu ziren, dena hutsik zegoen, baina zarata asko zegoen. Tabernako barran ez zegoen inor, ez zegoen ez jaberik, ez langilerik, eta orduan taberna horretatik irtetea erabaki zuten. Bilurtuta eta harrituta, hotelean egin zuten habia.

Hotelean zeudela hitz egiten hasi ziren:

- Zein taberna arraroa?

- Bai, ez nuen horrelako tabernarik espero.

- Zer egingo dugu?

- Lehenengo hotelera joan eta gauzak utziko ditugu, gero Ingalaterraren planoak erosi, eta azkenean kalera irtengo gara ea aurkitzen ditugun.

- Plan bikaina!

Hirurek informazio-puntu batera abiatu ziren, mapak eskatu zituzten eta informazio-puntuan mapak eman zizkieten eta ibilbideari ekin zioten. Ibilbidea oso luzea zen, baina hirurak ados zeuden, seme-alabak aurkitu nahi bazituzten edo haietaz zerbait jakin nahi bazuten, ibilbidea egin beharko zutela. Hirurak oinez joan ziren, eta 17 kilometrotara mutiko bat ikusi zuten, bere semea zela uste zutena, eta korrika zihoazen haren bila:

- Izar, hor zaude non egon zaren, zergatik ez zatoz etxera.
- Barkatu, ez naiz Izar, Ane naiz, baina entzun dut lagun batzuekin Euskal Herriatik etorri zen Izar bat, sute bat izan zuena.

Sutea! Baina ba al dakizu bizirik dagoen ala zer gertatu zitzaion, edo beraren lagunei?

- Ez dakit ezer Izarri buruz, baina badakit Eneko ospitale batean dagoela eskua erre zuelako, eta Izar eta Ander berarekin daude eta sute hori eragin zutela entzun dut Bale, ospitalera abiatuko gara.

Hirurak ospitalera joan ziren, eta, azkenean, ospitalea aurkitu zuten, baina iritsi zirenean ospitalera Eneko ez zegoen, alta eman zioten. Gurasoak medikuarengana abiatu ziren:

- Kaixo, zu izan zinen Enekoren medikua? Ni bere ama naiz.
- Ni izan naiz, Enekok eskua erreta izan zuen eta ni lagundu egin nion, beste bi mutil etorri ziren, hirurak oso bihurtuta, baina gaur goizean mutil nagusi bat etorri da neska batekin eta bere gurasoak zirela esan dute. Karneta eta familia-liburua erakutsi ziguten eta han jartzen zuen Enekoren gurasoak zirela.

Hiru gurasoek, seme-alaben kontuarekin oso kezkatuta, poliziaren etxean egin zuten habia, duela sei aste esan zioten mafioso batzuk iritsi zirela Ingalaterrara eta umeak bahitu egiten zituztela, baina polizia haien atzetik zebilela. Hiru gurasoak FBIko arduradunarengana joan eta ihesari eman zioten. Gurasoek poliziari esan zioten bazekitela eta denek hitz egin zuten. FBIk kasu erraza ez zela izango esan zion, baina unitate osoa lanean ari zela esan zioten. Gurasoak lasaiago geratu ziren, FBIa okupatuta zegoela eta seme-alabak aurkitzen ari zirela jakin zutenean. Aste batzuk igaro ziren, baina egun batean FBIa hotelera joan zen eta esan zioten pista bat zutela eta pista hori jarraitu zutela eta lokomotora bat aurkitu zutela .

Hiru gurasoek FBIk euren seme-alabak aurkituko zituzten itxaropena zuten. Handik egun batzuetara, FBI biltegi batzuetan zegoela jakin zuten eta biltegi horietan sartzea erabaki zuten. Orduan, hurrengo eguneko goizean, almazenari eraso egin zioten, eta han izututa egon ziren hiru mutilek sekulako bilurra zuten. Poliziak ahalik eta zarata gutxien egiten saiatu ziren, baina bat-batean argi gorri bat piztu eta alarma piztu zen. Poliziak korrika atera ziren hiru mutilekin, baina mafiosoak tiroka hasi ziren. Zorte handia izan zuten eta handik irtetea lortu zuten. Denak sakon ibili ziren eta hirurak gurasoak ikustera joan ziren. Hirurak Euskal Herrira bueltatu ziren, beraien gurasoekin eta beraien bizitza egiten jarraitu zuten. Denborak aurrera egin zuen eta ez zen ezer jakin hiltzaileei buruz.

Sei hile pasatu ondoren bat-batean iragarkietan agertu zen Ingalaterran bahitua izan zen mutiletako bat hilda agertu zela herriko plazan. Iskanbila handi bat sortu zen horren ondorioz eta FBIak berriro ikerketa zabaldu zuen:

- Hiltzaile hauen istorioa nekagarria da.
- Bai zera! Espero dut guztia arin bukatzea.

Ikertzaileak lanean hasi eta familiarekin hitz egitea erabaki zuten, familiakoek esan zioten azken astetan ez zuela betiko jarrera izan eta oso berandu heltzen zela etxera, azken hilabetetan lan berri bat zuela eta horren ondorioz oso urduri zegoela esan zioten.

Hori guztia jakinda erabaki zuten berak lan egiten zuen lekura joatea.

Elektronika dendara abiatu ziren eta arduradunaren gaitik galdetu zuten, arduradunak esan zien Londresetik bueltatu zenetik bi ordu arinago ateratzen zela lanetik eta batzuetan ez zela lanera joaten. Polizia harritua geratu zen nola izan ahalko zen posible beraren familia kideei gezurra esatea.

- Ikaragarria, zer egin al dezakegu?
- Galdera ona, uste dut ideia on bat izan ahalko litzaketela segurtasun kamerak ikustea eta horrela jakin ahalko genuke nora joaten zen.
- Ideia bikaina.

Orduan komisaldegira joan ziren ikusteko kalean egoten ziren segurtasun kamerak ikustera, mutikoak jarraitu zuten aztarna galdu barik, eta bat-batean industrialde zahar batera sartu zela ikusi zuten bera hil baino bi ordu arinago.

- Ematen du lekua hau dela

Industrialde barrura sartu ziren eta ikusi zutena sinestezina zen. Londresen bahituak izan ziren mutilak, egon ziren denak odolez betea, polizia harrituta geratu zen eta erabaki zuten guztiak atxilotzea.

Komisaldegian hainbat galdetegi egin ostean, aitortu zuten errudunak izan zirela, beraien laguna hil zutela eta arazo handi bat zutela esan zuten. Zer zekien lagunak beraiek ez zutela nahi hura jakitea? Zein zen beraien arazoa?



Markel Lejardi Zugazaga
DBH3. maila

“Eskupelotan jolastea asko gustatzen zait”.

AUTOBUS GIDARIA

Ez dakit nola azaldu arratsalde hartan gertatu zitzaidana. Nire bizitzan gertatutako gauza arraroena izan zen, ulertezina. Harrezkero, beste era batera ikusten dut bizitza.

Arkaitz naiz, 50 urte ditut eta distantzia luzetako autobus konpainia batean egiten dut lan. Arratsalde hartan langile baten ordeztatu behar izan nuen. Larunbatean Bilbotik irten behar nintzen, Madrilera arte. Eta domeka gauean bueltatu, inor gabe autobusean.

Ni egunero bezala, lasai nengoen, bidaia luzea baitzen; baina ni, jada, ohituta nengoen are bidaia luzeagoetara ere. Bilboko autobus geltokian arratsaldeko bostetan bidaiariak batu, eta bidaia hasi genuen. Negua zen, eta jada 18:30etako zerua ilunduta zegoen eta ez zen ia ezer ikusten. Gainera, autopistatik barik, bide txikiago batetik joan ginen, gutxiago argiztutako bide batetik. Autobus zaharra zen eta argi gutxi zituen. Txarto pasatu nuen, bide txarra, autobus zaharra...



Baina heldu zen eremu bat, non sentsazio hotz eta arraro bat sentitu nuen. Hotz baino, inoiz sentitu ez nuen sentsazio bat. Ni ez nintzen izan bakarra sentitu nuena, zeren eta autobus guztia isilpean gelditu zen. Gazteek musika amatatu, eta altxatu egin ziren, beste bidaiari denak egin zuten bezala. Eta bat-batean, autobusa huts egiten hasi zen. Potentzia asko galtzen, eta askoz astiroago joaten. Ni, jada, arduratuta nengoen.

Horrela joan ginen bidaia osoan zehar, oso astiro. Gaua zen, eta ez zegoen ez gasolindegia, ez parking, ez kotxe, ezta farolarik ere! Azkenean heldu ginen helmugara, goizaldeko 1:30ak bueltan. Bidaiari bakoitzak bere bidea hartu eta ni hostel merke batera joan nintzen, gaua pasatzera. Gau hartan, asko kostatu zitzaidan lo egitea, baina leher eginda nengoen eta seko lo geratu nintzen.

Hurrengo goiza, egun berri bat. Autobusa mekanikoarengana eramane nuen konpontzera. Dirudienaz akats mekaniko bat izan zen, motorrarena.

Orduan, Madrilen eguna pasatzera gelditu nintzen, gauera arte. Autobusa hiri kanpoko aparkaleku handi batean utzi eta hirira bueltatu nintzen. Hirian, ez nuen asti askorik izan, jada, eguerdia zen eta denbora azkar pasatzen zegoen. Baina ez nuen izan ezertarako presarik, kafetegi batean eseri, eta kafea hartzen nuen bitartean nire pentsamenduetan murgildu nintzen. “Zer izango zen aurreko gauean sentitu genuena?... Gainera ez nintzen izan bakarra... Beste denak ere han zeuden... Eta zergatik estropeatu zitzaidan bertan autobusa?... Gaueko hamabietan gainera...” Konturatu gabe ordu bete pasatu zen, kafetegiko zerbitzaria niregana etorri behar izan zen, itxi behar zutelako.

Gero paseotxo bat ematen joan nintzen hiritik. Gehienbat zentzura jo nuen, “Puerta del sol”-etik pasatu, gero “Gran vialtik”, eta horrela arratsalde osoan zehar. Toki ezagunak ezagutzen. Arratsalde ederra izan zen, gaueko 22:30 ziren eta afaltzea pentsatu nuen. Jatetxe batean afaldu, eta bueltan Bilbora joateko garaia heldu zitzaidan. Hiri kanpoaldeko aparkalekura joan nintzen, autobusaren bila. Behintzat, itzulera lasaia izango zen, ez bainuen inor eramane behar. Autobusa hartu, eta handik 23:00etan irten nintzen, nire biziko bidaia txarrena izango zela jakin gabe.

Bide berdina hartu nuen, ezagutzen nuen bakarra zen eta. Egia esan, ez nekien seguru Espainiako zein tokitan nengoen. Orain dela asko autopista nagusia alde batera utzi, eta orain errepide txikiagotik nebilan. Nekatuta nengoen, lotara joan nahian. Baina pentsatu nuen bidaia guztia gelditu gabe egitea, iristeko gogoia bainuen.


Baina, gaueko hamabiak zirela, autobus atzealdean domistikuko motel bi entzun nituen. Eta pentsatu nuen norbait beharbada hor gelditu zela, edo mekaniko bat zela, eta hau harrapatuta utzi nuela. Baina nola? Autobusa beti berrikusten nuen irten baino lehen, eta ez nuen ikusi ezer. “Nor da?”, galdetu nuen. Erantzunik ez. Urduri jartzen hasi nintzen, eta autobus barruko argiak piztu nituen. Argi hauek ere zaharrak ziren eta ez zen gauza askorik ikusten. Bost minutu geroago pentsatu nuen ametsetan nebilela, nekatuta nengoelako.

Baina berriro entzun nuen doministikua. Ispilutik ikusi nuen, eta atzealdean norbait zutik zegoela ikusi nuen, eskuak eserlekuetan jartzen zituela. Pasilloan zutik balego bezala. Oso beldurtuta nengoen. Pertsona hura poliki-poliki hurbiltzen hasi zitzaidan. Beldurra nuen, lapurreta egingo zidan norbait zela uste nuelako. Orduan abiadura moteltzen hasi nintzen, bide bazterrean geratzeko.

Bat-batean, poliki-poliki hurbiltzen zegoen hura, oso azkar mugitu zen nire ondoan egon zen arte. Orduan begiratu nion, eta konturatu nintzen gizon bat zela, oinutsik eta arropa urratuekin, zaharrak balira bezala. Oso ile gutxi zuen. Baina gehien izutu ninduen gauza zera zen, ez zirudiela begirik zuenik. Berehala konturatu nintzen agerpen bat zela.

Metro batera zegoen agerpen hau, atzera egiten hasi zen eta erdiko eserlekuetan eseri zen, ia ez nuen ikusten. Leku argiztaturen baten, zerbitzuguneren baten edo nonon gelditu nahi izan nuen, baina errepideko tarte hartan ez zegoen ezer. Halako beldurrarekin, ozen otoitz egiten hasi nintzen. Orduan ikusi nuen agerpena gelditu egin zela une batez eta zeozer ulertezina esan zuela. Berriro begiratu nuenean, desagertu egin zen. Atzeko ispilutik begiratu nuen eta autobusa hutsik zegoen.

Aurrera begiratu nuenean, gizon hori bide bazterrean zutik zegoela ikusi nuen. Autobusa instintiboki gelditu behar izan nuen, ez nuelako zapaldu nahi. Baina segundo gutxiren buruan, ez nuen gehiago ikusi.



Udane Bilbao Triay
DBH 3. maila
“ Iluntasunaren menpean ”

KATU BELTZA

Ez dut espero, ezta eskatzen ere, norbaitek sinestea idaztera noan kontakizun bitxia baina sinplea. Erotuta egongo nintzateke espero banu, nire zentzumenek bere ebidentzia baztertzen dutenean. Baina ez nago erotuta eta badakit hau ez dela amets bat. Bihar hil egingo naiz eta gaur arima arindu nahiko nuke. Nire berehalako asmoa etxegertakari batzuk, labur eta komentariorik gabe, agerian jartzea da. Gertakari horien ondorioek izutu egin naute, torturatu egin naute eta, azkenean, suntsitu. Baina ez naiz azaltzen saiatuko. Niretzat izugarriak izan badira, beste batzuentzat Barbie-ak baino beldurgarriagoak izango dira. Geroago, agian, norbait agertuko da, zeinaren adimenak nire mamuak leku komunetara murriztuko dituen; nirea baino adimen lasaiagoa, logikoagoa eta askoz ere estimulatzaileragoa, kausa eta efektu naturalen sekuentzia arrunt bat ikusteko gai dena.

Haurtzarotik nire izaeraren mantsotasun eta ontasunagatik nabarmendu nintzen. Nire bihotzaren samurtasuna hain zen handia, non nire lagunentzat iseka egiteko gai bihurtzen bainintzen. Bereziki animaliak gustatzen zitzaizkidan, eta gurasoek aukera handiak ematen zizkidaten. Haren ondoan ematen nuen denbora gehiena, eta ez nintzen inoiz zoriontsuago sentitzen jaten eman eta laztantzen nienean baino. Nire izaeraren ezaugarri hori nirekin batera hazi zen, eta gizentasunera iritsi nintzenean, nire atsegin-iturri nagusietako bat bihurtu zen.

Inoiz txakur leial eta zuhur batenganako maitasuna izan dutenek ez dute zertan eragozpenik izan jasotzen nuen ordainsariaren izaera edo intentsitatea azaltzeko. Bada zerbait animalia-aren maitasun eskuzabal eta ukatuan, zuzenean gizakiaren adiskidetasun faltsua eta leialtasun hauskorra sarritan frogatu duenaren bihotzera iristen dena.

Gazte ezkondu nintzen, eta poztu nintzen nire emazteak nire lehentasunak partekatzen zituelako. Etxe-abereen gustua ikusita, ez nuen aukerarik galtzen haien artean atseginenak eskuratzeko. Txoriak genituen, koloretako arrainak, txakur eder bat, untxiak, tximinotxo bat eta katu bat.



Azken hau tamaina eta edertasun handiko animalia zen, erabat beltza eta zolitasun harrigarrikoa. Haren adimena aipatzean, nire emazteak, funtsean sineskeria gutxikoa ez zenak maiz aipatzen zuen katu beltz guztiak sorgin metamorfosiatuak antzinako herri-sinesmena direla. Ez dut esan nahi benetan sinetsi dudanik, eta gogoratu berri dudalako bakarrik aipatzen dut gauza.

Pluton – Horixe zen katuaren izena – Nire kuttuna eta nire laguna bihurtu zen. Nik bakarrik ematen nion jaten, eta berak alde guztietatik jarraitzen ninduen etxetik. Asko kostatzen zitzaidan kalean nire atzetik ibiltzea eragozte.

Gure adiskidetasunak urte batzuk iraun zuen horrela, eta urte horietan zehar (gorritu egiten naiz aitortzean) nire izaera zeharo aldatu zen deabruaren erruz. Neurrigabea. Egunez egun malenkoniatsuago, suminkorrago eta axolagabeago bihurtu nintzen besteen sentimenduetara. Emazteari deseroso hitz egitera ere iritsi nintzen, eta azkenean bortizkeria pertsonalak eragin nizkion. Nire gogokoek, jakina, nire izaeraren aldaketa ere sentitu zuten. Ez nituen bakarrik deskuidatzen, baizik eta min egin nien. Plutonen aldera, ordea, aski begirune izan nuen hari tratu txarrik ez emateko, untxi, tximino eta txakurrarekin ere egiten bainuen hori, kasualitatez edo maitasunak eraginda nire bidean gurutzatzen zirenean. Nire gaixotasuna, ordea, larriagotu egiten zen – Beraz, zer gaixotasun konpara daiteke alkoholarekin? –, eta, azkenik, Pluton bera, zahartuta eta, beraz, haserre samar zegoena, nire umore txarraren ondorioak jasaten hasi zen.

Gau batean zeharo horditurik etxeratu nintzenean, hirian barrena ibilaldi bat egin ondoren, iruditzen zitzaidan katuak ez ninduela ikusten. Besoetan jaso nuen, baina, nire bortizkeriak izuturik, eskuan hozka txiki bat egin zidan. Berehala deabruzko amorru batek hartu ninduen, eta ez nekien zertan ari nintzen. Nire arimaren sustraia bat-batean nire gorputzetik banandu balitz bezala izan zen; ginebrak elikatutako gaiztakeria deabruzkoa baino gehiago, nire izatearen zuntz bakoitzak ikaratu zuen. Txalekoaren patrikatik lumamozteko bat atera eta ireki egin nuen, animalia gaixoari lepotik heltzen nion bitartean, eta, nahita, begi bat jauzarazi nion. Gorritu egiten naiz, kiskali, dardara egiten dut hain ankerkeria gaitzesgarria idazten dudan bitartean.




Arrazoimena goizarekin itzuli zenean, gaueko orgiaren baporeak lozorroan uxatu nituenean, sentitu nuen izua eta egindako krimenaren damua nahasten zitzaizkidala, baina nire sentimendua ahula eta anbigua zen, ez zitzaion arimari

interesatzen. Berriz ere gehiegikerietan murgildu nintzen, eta berehala ito nituen ardoz gertatutakoaren oroitzapenak.

Bitartean, katua pixkanaka hobetzen ari zen. Begia falta zen orbitak itxura beldurgarria zuen, baina bazirudien animaliak ez zuela jadanik sufritzen. Etxean zebilen, ohi bezala, nahiz eta, pentsatzekoa denez, izututa ihes egiten zuen ni ikustean. Nire lehengo izaeratik aski geratzen zitzaidan, inoiz hainbeste maite izan ninduen animalia baten gaitzespen nabariagatik laidotua sentitzeko. Baina sentimendu horrek berehala eman zion bidea sumindurari. Eta orduan, nire azken erorketa ezeztazinerako, gaiztakeriaren izpiritu agertu zen. Filosofiak ez du izpiritu hori kontuan hartzen, eta, hala ere, hain ziur nago nire arima existitzen dela, non gaiztakeria giza bihotzaren bulkada nagusienetako bat dela, ahalmen primario zatiezinetako bat, gizakiaren izaera gidatzen duten sentimendu horietako bat.

Nork ez du bere burua ehun aldiz harritu ekintza inozo edo gaizto bat egin behar ez zuelako? Ez al dago gure baitan joera iraunkor bat, zentzu onari, lotsagabekoari aurre egiten diona, Legea, izate hutsagatik, osatzen duena urratzeko joera bat? Gaiztakeriaren izpiritu hori, esan dudan bezala, nire azken erorikoan agertu zen. Eta nire arimak bere burua iraintzeko, bere izaera bortxatzeko, gaizkiaren beraren alde gaizkia egiteko zeukan irrika hondogabeak bultzatu ninduen aurrera egitera eta, azkenik, piztia errugabeari egindako oinazea burutzer.



Goiz batean, odol hotzean ari nintzela, lepotik begizta bat pasatu nion eta zuhaitz baten adarrean urkatu nuen; urkatu egin nuen malkoak begietatik zerizkidan bitartean, eta bihotz-zimikorik mingotsenak bihotza estutzen zidan; urkatu egin nuen, maite izan ninduela gogoratzen nuelako, eta ziur nengoelako ez nuela hiltzeko arrazoirik eman; urkatu egin nuen, banekielako, hori egitean, bekatu bat egingo nuela, bekatu mortal bat, nire arima arriskuan jarriko zukeena, Jainkoaren errukirik errukitsuenaren eta izugarrienaren irismenetik harago eraman arte, hori posible balitz.



Garoa Oleaga Goikolea
DBH 4. maila
“Urak dakarrena urak daroa”

BESARKATUTA

-Lur Gorostidi Baigorria-

Betirako oroimenean gordeak gelditu diren oroitzapenak dira gaztetakoak. Azken arnasaraino nire barrenean oihartzuna egin zuten oihu eta negarrek. Oroipen ilunak, ubelduraz josiak, minez beteak. Amaren ezkutuko garrasiak eta aitaren amorru kontrolaezinak.

Zortzi urte nituela hasi zen beldur hau, nire barnean betikotasun guztirako iraungo duen beldur hau. Gogoan dut egun hura, apirilaren 14a. Oihuz estalitako etxe batean sartu nintzen, bertatik ateratzeko modurik ez zegoela jakin gabe. Oroitzapenak datozkit burura. Egund hartako sufrimendu eta negarrak, oihuak.

Apirilaren 14a.

Gaur eskolatik itzultzean, etxeko leiho denak itxita aurkitu ditut. Arraroa egin zait normalean amak irekita izaten dituelako. Etxeko atea ireki bezain laster aitaren oihuak entzun ditut, bere amorrua. Hotzikara batek igaro du nire gorputza. Zarata asko egin gabe itxi dut atea eta ahalik eta isilen hurbildu naiz egongelara. Ateko zirrikitutik begiratu eta aita ikusi dut, haserrez betea, bere begiradan gorrotoa islatzen dela. Ama lurrean eserita dago, negar zotinka. Ez dakit zer den gertatzen dagoena, zer den egin behar dudana. Ahotsak entzuten ditut, urruneko ahotsak izango balira bezala. Begiak lausotu egin zaizkit. Halako batean hots zatar bat entzun dut, kolpe bat. Begiak igurtzi eta amaren eskua bere masail gorrixkan ikusi dut, bere begietatik itsaso bat erortzen.

Bihotzeko taupadak arindu egin zaizkit. Zerbait egin behar dut baina ez dakit zer. Nire gorputza ez da mugitzen, nire gorputzak ez du erreakzionatzen.

Segundo batzuk igaro dira, niretzako orduak izango balira bezala izan da, eta nire gorputza mugitzeko gai izan da. Korrika batean abiatu naiz amarengana eta besarkada handi batean estutu dut, aitaren oihuak atzean utzi nahirik. Baina ez da ondo atera. Aitaren oihuak are ozenagoak entzuten ditut nire izena behin eta berriz errepikatzen. Ikaratu egin

nau. Ikaratu egin nau eta ama gehiago estutu dut, oraingo honetan berak ni babestuko nauen itxaropenarekin.

Beldur barik nagoela esan nahi nuke, aitaren bortizkeria honen aurrean ausarta naizela eta ama amaieraraino defendatu dudala. Baina egia esan, aitak nire sorbalda ukitu eta bertatik tira egin duen segundoan nire bihotza gelditu egin da. Alde batera bota nau, eta ama tiraka atera du gelatik kanpo. Bakarrik gelditu naiz egongelan. Oihuak entzuten ditut atearen beste aldean, deszifratu ezin ditudan oihuak.

Bi minutu baino gutxiago pasatu dira aita berriz egongelan sartu denean. Ama ez dator atzetik. Berak babestuko nauen itxaropena desagertu egin da, haize bolada batek eraman izan balu bezala.

Malko artean aurkitu nau aitak, baina bere begiradan ez da errukirik ageri. Oihuka hasi da, belarri batetik sartu eta bestetik ateratzen diren oihu uler ezinak. Botere magikoren bat dudala pentsatu dut une batez. Momentu gogorretan desagerrarazi egin eta beste mundu lasai batera garraiatzen nauena, baina pentsamendu hori lehen kolpearekin batera aienatu du aitak. Masaila minez bete didan kolpea, aitak niri eman didan lehen kolpea. Izua. Malkoak bata bestearen atzetik erortzen dira nire masaileko berotasunetik behera. Begiak gogor itxita ditut, aitarentzat nahikoa izan dela desiratuz. Baina denborak aurrera egiten ez duela dirudi amaigabeko oihu eta kolpe hauen artean.

Etxeko atearen hotsa entzun dut, aita joan eta gaurkoz bukatu dela adieraziz. Amaren pausoak entzuten ditut arineketan nigana hurbiltzen. Lurrean botata jarraitzen dut, aitak utzi nauen toki eta posizio berdinean. Dena lausotuta ikusten dut, lanbroz betetako gelan egongo banintz bezala. Aitaren oihuek oihartzuna egiten dute nire barrenean.

-Nerea Baigorria-

Zortzi hilabete pasatu dira dagoeneko, zortzi hilabete Xubanek, nire gizonak, lehen aldiz jo gintuenetik. Aspaldi ematen genituen musuak oihu bilakatu dira gure artean eta elkarri eginiko laztanak kolpe itxuran ageri dira orain.

Dena da oso ezberdina etxean. Azkenaldian, hainbat gau igaro ditut nire seme Lurren alboan, dauzkan amets gaizto guztiak uxatzeko asmoarekin. Bere buruko munstroak urruntzen ditudala esan dit sarritan, bere buruko bele beltzak aldentzen ditudala, eta nahiz eta inoiz ez didan zuzenean esan, bere ama naiz, eta badakit bele beltz horiek Xubanek eragindakoak direla, buruan daraman munstro ilun hura bere aitaren oihu eta kolpeek sortutakoa dela. Malkoak begietatik behera erortzen zaizkit Lur nire ondoan lo geratzen den bakoitzean, hain da txikia oraindik. Eskuarekin masaila laztantzen diot leun-leun eta malkoak nabariagoak egiten dira nire begiradako isla galduan. Sentitzen dudala xuxurlatzen diot beti, bekokian musu bat utzi eta joan baino lehen.

Bere begietatik begiratuta, ama ausarta naiz ni. Xubani aurre egiten dion ama eta bera laino ilun guztietatik hastantzen duena. Itxaropena ematen diona. Baina berak jakingo balu nola sentitzen naizen ni. Entzungo balitu goizetan, etxean bakarrik nagoenean, oihukatzen ditudan garrasi guztiak, edo ikusiko balitu nire dardaraz estalitako eskuak Xuban hurbil dabilenean, ez litzaioke itxaropenik geldituko. Ikaratuta bizi naiz, beldurrez josia, baina Lurren aurrean gogor itxurak egin behar ditut, gure malkoz betetako itsasoan hondoratuko ez dela jakin dezan, aurrera egin eta bakea aurkituko duela argi eduki dezan.

Hilabeteak daramatzat etxetik irten gabe, nire bakardade belztu honetan babeslekua aurkitu nahian. Nire lagun taldea aspaldi ikusi nuen azkenengoz, oraindik ubeldurek nire gorputza estaltzen ez zutenean. Hilabeteak daramatzat min hau jasaten, neurea den min hau. Neure erruagatik gertatu da guztia, neure erruagatik min hau. Ez dakit zer den egin behar dudana, nola jokatu behar dudan iluntasun honetatik ihes egiteko.



Xubanen mugak ez dauzkat batere argi egia esateko, noizbait gu akabatuko gaituen beldurrarekin bizi naiz, bukatzear dauden itxaropen hauei eutsi nahian, baina gogoak faltan ditudala. Xubanen bortizkeria handiagoa bihurtu da denborarekin eta egia esaten badizut, ez dakit zenbat falta zaidan hiltzeko, zenbat izarrak ukitzeko. Beldurra. Beldurra gorputzean eta beldurra gure inguruan. Beldurra baino ez dugu sentitzen etxe honetako izkina bakoitzean.

Eta zer esan nire Lur maiteaz, egoera latz honetan nire itxaropenaren iturri izan den mutiko gazteaz, ni babesten saiatu den une bakoitzarengatik eta orain arte jasan duen guztiarengatik, bigarren aukera bat merezi du. Zoriontsu bizitzeko bigarren aukera bat. Lokartzeko irakurri izan dizkiodan ipuin labur haietako bizitza alai eta lasaiak. Laztanez betetako besarkada eta musuak, lorez estalitako belardiak, kolorez margotutako kaleak. Zoriona bilatzeko bigarren aukera bat.

Otsailaren 18a.

Ubelduraz estalita daukat azala, kolorez aldatu eta orain lila ilun kolorekoa den azala. Mina. Barruan ia urtebetez gordeta eduki dudana mina. Lur nola jotzen zuen ikustearen mina, nire semeak nola suntsitzen zuen ikustearen egonezina.

Aste bat baino gutxiago igaro da nire buruak “klik” bat egin eta Lur inguratzen duen iluntasun honetatik ateratzeko moduarekin eman zuenetik. Orain zuri beltza den nire semearen bizitza kolorez margotuko duen aukera. Gogorra izango den arren, noizbait gaindituko duen etapa latza. Gu alde batean utzi eta bakea aurkitzeko aukera.

Gaueko 21:37

Lur oheratzeko unea iritsi da. Bata bestearen ondoan etzan gara bere ohe txikian, liburu labur bat eskuetan daukadala. Burua nire bularrean pausatu du nik ipuina irakurtzen diodan bitartean. Begiak erdi itxita dauzka eta bere arnas sakona nabari dezaket. “Zer dator mila ondoren?” ipuina irakurtzen jarraitu dut. Nire ahotsa hautsi egin da ipuina irakurtzen bukatu aurretik, begiak malkoz bete zaizkit. Lurrek besarkada epel bat eman dit, eta nik beso zabalekin jaso dut hau. Lur lokartu da dagoeneko. Liburua lurrean utzi dut eta minutu

batzuk igaro ditut berari begira. Azkenak izango direla ahaztu nahian, beste bizi batean elkartuko garen itxaropenaz. Gauero bezala, musu bat eman diot bekokian, eta, “sentitzen dut” bat xuxurlatu dut oso baxu. Negar artean agurtu naiz. Izarretatik ikusiko dudala zin eginez. Izarretan aurkituko nauela zin eginez.

Gaueko 22:09

Xuban eta biok baino ez gaude esnatuta ordu hauetan. Gure azken ordu hauetan. Ohitura den bezala, oheratu baino lehenagoko kamamila prestatzen ari naiz. Kamamila berezia.

Bi katilu bete ditut kamamila beroz, baina azken efektua falta da. Armairuko izkina ezkutu batera hurbildu naiz eta bertatik kristalezko pote txiki bat atera dut. Zuku antzeko bat darama barruan, gure biziarekin akabatuko duen zukua. Zianuroa.

Izutzen hasia naiz dagoeneko. Zianuroa katiluetara bota, edo ez bota. Azken aukera bat eman edo ez eman. Dena zalantzan jartzen hasi naiz. Hain da erabaki zaila. Lurren irudia etorri zait burua. Nire mutiko gaztea. Behin eta berriz errepikatu diot nire buruari Lurrek beste aukera bat merezi duela. Gu gabe biziko den bigarren bizitza bat.

Gehiago pentsatu gabe, bi katiluetara bota dut zianuroa. Jada ez dago atzera itzultzerik. Gelara hurbildu naiz Xubani prest dagoela esatera. Ohetik begiratu nau eta laster jaitsiko dela esan dit begirada horrekin. Atea itxi eta sukaldera itzuli naiz.

Bi katiluei begira nago. Nire buruarekin azken eztabaidan.

Eskuetan hartu dut nire katilua, begiak gogor itxita ditudala, eta kamamila guztia edan dut gehiago pentsatu gabe. Errailak bueltaka sentitzen ditut, gorputz barruan sua edukiko banu bezala da. Sofara hurbildu eta bertan etzan naiz. Hurbil dagoela nire bukaera badakit. Hurbil dagoela nire azken arnasa. Begirada lausotu egin zait.

Atetik itzal antzeko bat sartzen ikusi dut, oso ondo bereizi ezin dudana itzal ilun bat. Xuban.

Kamamilaria zurrupada bat baino gehiago eman dizkio, begirada sukaldeko horma batean galduta daukala. Bira eman eta nigana hurbiltzen hasi da. Ikara. Azken momentu hauetan zerbait egiteko gai dela badakit, neu kolpez hiltzeko zianuroak efektua egin baino lehen. Gero eta hurbilago nabari dut Xuban, hurbilago bukaera.

Bat- batean, “ama” deitzen nauela entzun dut. Ezin da izan; bihotza geldi geratu zait. Begiak igurtzi eta nire semea ikusi dut, zutik, niri begira.

Hotzikara erraldoi batek gurutzatu du nire gorputza. Ikara. Buruan hainbat galdera eta erantzun sortu zaizkit, ikara kontrolaezina. Beldurra. Atzera itzuli ezina. Sufrimendua. Sua.

Lurri begiratu diot. Bere aurpegian zalantzak baino ez dira ageri. Mina. Barrua sutan edukiko balu bezala, gorputza sute baten erdian egongo balitz bezala. Ikara.

Bukaera hurbil dagoela baino ez dakit. Edozein momentutan gure bihotzak bere azken taupada emango duela. Ez dakit zer egin behar den holako egoeretan, hau ez zen nik aurreikusitakoa.

Lurri hurbiltzeko esan diot. Gaurko honetan biok elkarrekin egingo dugula lo, hemen, egongelako sofa gris honetan. Lur isil- isilik hurbildu da. Ni alde batera mugitu naiz, nire ondoan berarentzako toki bat uzteko. Nirekin etzan da.

Besarkada estu bat eman diot. Azken besarkada. Manta fin batez estali ditut gure gorputzak eta ondoren, musu bat eman diot bekokian. “Sentitzen dut” xuxurlatu diot baxu-baxu. “Maite zaitut, Lur”.

Besarkatuta, gure azken arnasa iritsi zaigu. Gure bihotzaren azken taupada.

Zerurantz goaz, Lur eta biok, eskuz esku, izar dirdiratsuek bidea argitzen digutelarik. Bakea aurkitu dugu, ipuinetako lasaitasuna. Kolorez margotutako kaleak eta zoriontsu izateko bigarren aukera.





Aicha Abdelhadi Mulay
DBH 4. Maila

*“Azkenean denok berdin bukatzen dugu,
amets hautsien Boulevard batean”*

GAUZEN BESTE AURPEGIA

Hotzak busti zizkidan oinak atzealdeko mahaietako batean azken whisky-kopuruak zerbitzatzen nituenean. Diskoteka horren ustezko uniformeak beharrezkoa estaltzen zuen bakarrik eta horrelako neguko gauetan nahi nuen bakarra nire ohe epelean sartzea zen.

Ez dut sekula bizimodu onik eraman, gogoratzen dudanetik umezurztegi batean bizi izan naiz eta handik irten nintzenean, anaiak eta biok geneukan diru apurrarekin, Erromako auzorik txarrenetako batean apartamentu bat alokatzea lortu genuen. Beti izan gara bera eta ni bakarrik; horrela ondo geunden...

Gaueko ordu biak laurden gutxi ziren, eta nire apartamentura itzultzen ari nintzen, Claudiarekin, nire lagunik onenarekin. Sekulako festa egin ondoren, esku batek eskumuturra inguratzen zidala sentitu nuen. Inertziatz jokatu nuen, eta ukalondoko bat eman nion urdailean eta kolpetik suspertzen zen bitartean ukabilkada bat emateko aprobetxatu nuen, nebak erakutsi zidan bezala. Bira eman nuenean, Claudia konorterik gabe zegoela ikusi nuen, eta beste gizon batek arrastaka zeraman.

- Claudia! -oihu egin nuen neure indar guztiaz, gizonarekin borrokatzen nintzen bitartean.

Bat-batean, Jainkoari esker, gizon bat agertu zen, ni eraman nahi ninduen morroiarekin lagundu ondoren besteaz arduratu zena. Nik anbulantzia bat eskatzen nuen bitartean Claudiarentzat. Lagundu zigun gizonak ospitalera eraman gintuen eta nirekin geratu zen Claudia esnatu zen arte. Gure etxeetara eramateko eskaintza egin zuen, eta asko eskertu nuen hori, ordu horietan ez baitut uste taxirik aurkituko nuenik.

- Bide batez, Mateo Petrova naiz-esan zuen irribarrez, Claudia bere etxean utzi ondoren, nire eraikinaren aurrean aparkatzean eskua luzatzen zidan bitartean.

- Alicia Keller, zu ezagutzeaz pozik. Benetan ez dakit nola eskertu gaur gugatik egin duzun guztia. Ez dakit gu orain non egongo ginatekeen zu agertu ez bazina...

- Nik uste dudanez, ondo. -Esan zuen hunkituta- noizbait zurekin zerbait hartzera edo bueltaren bat ematera joatea atsegingo litzaidake. Zuk nahi baduzu, noski.
- Ongi da -esan nion irribarretsu. Gero, telefono zenbakiak elkar trukatu genituen eta ni nire apartamentura igo nintzen.

Mateok eta biok egun batzuk geroago izan genuen irteera hura, eta sinestezina izan zen. Egun hartan konturatu nintzen Mateok ez zituela gustoko gauza erromantikoak edo kurtsiak. Gainera, komunikatzaile oso ona izan ez arren, bere familia osoa sute batean hil zela esan zidan, nahiz eta horretaz hitz egitea gustuko ez izan.

Egun horren ondoren, gero eta sarriago geratzen hasi ginen, gure arteko harremana formalizatu genuen arte. Zoratuta nengoen gizon horrengatik: ederra zen, garaia, beltzarana begi berdeekin eta pertsona ona. Unibertsitatera nire bila zetorren, bazkaltzera gindoazen eta egun osoa elkarrekin ematen genuen. Batzuetan kosta egiten zitzaion niri bere barrua irekitzea, edo bat-batean isilik geratzen zen, baina denborarekin hasi nintzen ohitzen, ulertzen eta bere lekua uzten. Lucas, nire anaia, nire maitelaguna Mateo zela jakin zuenean, gauza bera errepikatzen zuen etengabe: 'Gizon hori ez zaizu komeni Alicia, urrundu zaitez berarengandik, benetan diotsut'

Maiatza iristerako, 9 hilabeteko harremana izan genuen eta gizon horretaz maiteminduta nengoela esan nezakeen inolako beldurrik gabe. Beste inorekin izan ez nuenarekiko lotura sentitzen nuen, elkarri begiratzearekin bakarrik ulertzen genuen elkar eta besteak zer esan nahi zuen jakiten genuen.

Egun batean, Unibertsitatetik irtetean, Mateoren autoa ikusi nuen aparkatuta, eta korrika joan nintzen harengana.

- Mateo, zer moduz? -esan nion, ezpainetan musu bat ematen nion bitartean.
- Orain zerbait larria sortu zait. 11etan itxarongo zaitut industrialdeetan dauden upategietan.
- Ondo da -oso aztoratuta zegoela ikusita, ez nion ezer gehiago galdetu. Han hitzordua jarri zidalako zalantza nuen, leku hori abandonatuta baitzegoen.

Hamakak ziren eta esan zidan lekuan nengoen baina ez nuen Mateo ikusten. Pixka bat gehiago itxaron nuen, baina leku horrek ez zidan itxura onik ematen, beraz, joatea erabaki nuen. Orduan entzun nuen haren ahotsa.

- Alicia, itxaron, negozio batzuk egin behar ditut eta behar zaitut -Mateo lasai eta irribarretsu zegoen, bainabere itxura ez zitzaidan gustatzen.
- Negozioak? Badakizu nik ez dudala zuk egiten duzun horretan sartu nahi -Mateok hasiera hasieratik esan zidan nola irabazten zuen bere dirua, eta ez da legezkoa baina horrek ez ninduen inoiz kezkatu.
- Badakit, baina hau negozio berezia da, orain zu izango zarelako produktua - izoztuta geratuko nintzen nire lekuan. Zer ari zen esaten?- Aurrera jaunak.

Berak hitz horiek esan ondoren, 4 gizon irten ziren itzaletatik, niri begira, haiek lehoi gosetiak balira bezala eta ni harrapakina izango banintz bezala. Pixkanaka-pixkanaka gehiago hurbildu ziren, eta nik atzera egiten nuen, baina Mateok haiengana bultzatzen ninduen.

- Mateo, atera nazazu hemendik mesedez -negarrari ematear nengoen.

Mateok argi eta garbi azaldu zuen zer gertatzen ari zen, baina ez nuen ulertu nahi. Gizon guztiak ni ukitzen eta jotzen hasi ziren, horrela besterik gabe, edonor banintz bezala. Oihuka eta ostikoka ari nintzela, haietako bik eskuetatik eta oinetatik heldu ninduten, ni geldiarazteko. Garrazika, laguntza eske eta erreguka ari nintzen, baina Mateok ez zuen ezer egin haiek niri arropak kentzen hasi ziren bitartean.

“Hau nire amaiera da” pentsatu nuen. “lau gizonak bortxatuko naute”. Nire maitelaguna saldu egin ninduen. Orduan zer gertatuko ote zen? Nire gorputzarekin nahi zutena egin ondoren hilko ninduten, edo bizirik utziko ninduten? Begiak itzi nahi nituen, ohean esnatu eta amesgaizto bat izan zela pentsatu.

Bat-batean, bi ate ireki zirela entzun nuen eta haietako batetik nire neba atera zela ikusi nuen, eskuan arma bat zuela. Bi gizoni tiro egin zien, baina gainerakoek ere armak atera eta bala zaparrada hasi zuten. Ez nekien zer gertatzen ari zen; nire anaiarengan pentsatzen nuen eta ihes egin nahi nuen. Lortu nuen kaxa batzuen atzean ezkutatzea haiek borrokan jarraitzen zuten bitartean. Muniziorik gabe geratu eta buruz buru borrokatzen hasi ziren. Izututa nengoen.

- Zoaz Alicia, zoaz! -Nire nebak oihu egiten zidan gizonetako batekin borrokan ari zen bitartean, baina berak ez zuen ikusten atzetik beste bat labana batekin hurbiltzen ari zela
- Lucas, kontuz! -baina beranduegi zen, behin, bitan, hirutan eta lautan iltzatu zion labana, geratzen zitzaidan familia bakarra odoletan eta bizirik gabe gelditzen zela ikusten nuen bitartean. Ezin zen gertatu, ez!

Polizien sirena hotsak jotzen hasi ziren, eta gizon guztiek ihes egin zuten, nire anaiaren gorpuarekin sotoan bakarrik utzita.

- Alicia! -Claudiaren ahotsa entzun nuen, hasieran nire irudimena zela pentsatu nuen baina gero atetik sartzen ikusi nuen beste hiru poliziekin.

Hitz guztiak trabatuta nituen, eztarrian korapilo bat nuen hitz egitea galarazten zidana. Bat-batean dena lausotuta ikusten hasi nintzen eta azkenean, konortea galdu aurretik, norbaitek harrapatu ninduela sentitu nuen.

Esnatu nintzenean, pareta zuri bat ikusi nuen, zauriak sendatzeko gauzez betetako armairu batekin. Berehala konturatu nintzen ez nengoela nire logelan, ospitale batean baizik. Bira ematean, Claudia aulki batean lo ikusi nuen, eta oroitzapen guztiak bat-batean etorri zitzaizkidan burura. Konturatu gabe, malkoz beteta neuzkan masailak. Gorputz osoa minduta neukan, hematoma nituen besoetan, hanketan eta benda bat saihetsetan. Baina askoz ere gogorragoa zen nire barruko mina. Mateo, maite nuen gizona, ahalik eta ankerren traizionatu ninduen, eta bere erruz nire anaia, nire ondoan beti egon zen pertsona bakarra, ni babeste arren hil zen. Nire ondoan mugimendua entzun eta bira eman nuen. Claudia esnatzen ari zen.


- Alicia, sentitzen dut- besarkatu egin ninduen eta ni bere sorbaldan negarrez hasi nintzen.
- Claudia, nola jakin zenuen non zegoen eta zer gertatzen zen?

- Zure anaiak zure mugikorra arakatu zuen gau hartan, oso berandu baitzen. Zure bila joan ginen, eta bera sartzen ari zen bitartean, nik polizia deitu nuen, konturatu ginelako zer gertatzen ari zen.
- Zenbat denbora daramat lotan?
- Bost egun. Bi aldiz esnatu zara, baina bietan antsietate-atake batek jo zaitu eta azkenean, garrasika hastean beldurraren beldurrez, medikua lasaigarri bat jarri dizula lasaitzeko. Gauza asko gertatu dira. Haien artean Mateo eta beste bi gizon harrapatu dituztela. Gutxienez 30 urteko kartzela-zigorra jasoko dute, antza denez aurrekari asko zituzten.
- Kartzelan betiko geratzea espero dut. Claudia, nire neba nire aurrean hil zutela ikusi nuen; ez dut inoiz ahaztuko.

3 hilabete beranduago

Aldaketa bat behar nuen eta horregatik hiria eta baita herrialdea aldatu ditut. Orain bakarrik nago mundu ikaragarri honetan. Oraindik ez dut barneratu nola aldatu den nire bizitza gau hartatik. Maite nuen gizonak traizioa egin zidan eta ni bortxatzeko zorian egon zen mafioso talde bati saldu ninduen. Nire nebaren oroitzapenak min ematen didate oraindik nire arimaren sakonenean, eta ezin dut burutik kendu ni naizela bere heriotzaren errudun. Ondorioz, gauetan amesgaiztoak izaten ditut. Beti esnatzen naiz oihuka eta ikaratuta.

Jada ez naiz Alicia bera eta ez naiz berrito inorekin fidatzen. Aurrera egiten saiatzen naizen arren beti zulo berera itzultzen naiz. Orain nire zalantza bakarra da, nola egiten da bizitzen jarraitzeko, barruan hilda zaudenean?



Alluitz de Bilbao Ortega
DBH 4. Maila

“Akats handietatik lagunak atera daitezke”



Julen eta Nere, Donostian bizi diren neba-arrebak dira. Julenek 20 urte ditu, eta familiaren tabernan egiten du lan. Bestalde, Nere 24 urterekin ospetsu egin da biologia munduan, Pirinioetan dagoen lore oso arraro baten bila dabilelako, Edelweiss izenekoa.

1893. urtea:

Kondairak dioenez, zeruko izar batek ilargiari esan zion lurreko izaki bizidunenganako inbidia sentitzen zuela, baso, mendi eta erreka oso politak genituelako. Ilargiak haserre, bere mesedea bete zuen, eta Pirinioetako mendi altuenera bidali zuen, elur eta harrien artean. Izarra lore bihurtu zen. Lore hark izar itxura zuen, petalo ilargi kolorea.



Lurreko jendeak jakitean, loreak topatzera joan ziren, baina inork ez zituen topatu. Egun batean gizon gazte bat, Edelweiss izeneko emakume bati bere maitasuna erakusteko, lorearen bila joan zen. Neskak, bueltatzen ez zirela ikusirik, beraien bila ateratzea erabaki zuen. Egun hartatik aurrera ez ze ezer gehiago jakin bikote gazteari buruz.

2022. urtea:

Nere, laborategian dago. Bere sakeleko telefonoa zarata egiten hasi da, ama deitzen dauka. Nerek telefonoa hartu eta amari erantzun dio. Kontatu dionez, bere lehengusina, Amaia bisita bat egitera dator. Amaia era zientzialaria da, eta bere laguntzarekin Nerek, agian, asmakuntza berriak egin ahalko ditu.

Nere eta Amaiak ez dute elkar ikusi 7 edo 8 urte zituztenetik, eta ez du inoiz bere argazki bat ikusi, horregatik ezezagun batekin egotea bezalakoa da.

Amaiarekin astelehen batean elkartzeko adostu zuten. Julen eta Nere elkarrekin joan ziren aireportura, bere lehengusinarekin bila. Amaia neska altua, eta ile marroia da. Hasieran, ez zuten elkar ezagutu, baina ez zitzaion asko kostatu lagun egitea.

Nerek, Amaia eraman zuen lan egiten zuen laborategira. Bertan, harrিতa geratu da, berak lan egiten zuen lekuan ez zeudelako horrelako makinak edo produktuak. Nerek asko daki biologiari buruz, eta asko disfrutatzen du, baina bere lehengusinak beste modu batera hartzen du. Ez du lan moduan sentitzen; baina dena den, Nerek bere asmakizunean lan egiteari utzi zion.

Dena azaldu ostean, biak mendira irten dira, agian, zerbait topatu ahal dute lorearen inguruan. Julen ere beraiekin joan da. Hirurak hitz egiten eta istorioak kontatzen eman dute bidaia osoa. Baina Julen eta Nere konturatu dira, Amaiak ez zituela gauza asko gogoratzen, nahiz eta ez dioten garrantzi handirik eman.

Egunak pasatzen direla ikusirik, Nere urduri jartzen hasi da, bere proiektua unibertsitate ospetsu baten aurkeztu behar duelako. Horretarako, Estatu Batuetara bidaiatu behar du. Berarekin batera Amaia eta Julen ere joango dira. Bertara heltzerakoan, hotelera heldu eta lotara joaten dira. Nerek hurrengo goiz osoa aurkezpenak ikasten eman du, 24 ordu faltan bakarrik zituelako. Bitartean Julen eta Amaia, jarduera ezberdinak egitera joan dira, zinerama joatea, adibidez.

Zineramara heltzerakoan, txikitan batera ikusten zuten film bat jarriko zutela konturatu dira. Julen harrিতa geratu da, film horrek urte asko zituelako, bai eta Amaiak ez du ezer esan. Julenek galdetzerakoan, Amaiak film hori zein den ez zekiela esan dio. Julenek ezin zuen sinestu, bera txikiagoa zen filma ikusi zutenean. Ez zen lehenengo aldia horrelako egoera batean zeudela, Amaia ez zelako gauza askotaz gogoratzen. Julenek galdetzea erabaki du, agian arazo bat duelako. Amaiaren erantzuna arraroa iruditu zaio Juleni.

Galdetu dionean, Amaia harrিতa geratu da, ez zekiela zer esan. Bat-batean negarrez hasi da, eta Juleni kontatu dio, orain dela urte batzuk, burmuinean arazo bat izan zuela, eta txikitako gauza askotaz ez dela gogoratzen. Julenek ez zuen erantzun hori ezta erreakzio hori espero. Antzeztuta zegoela zirudien.

Biak bueltatu dira hotelera, eta heldu direnean, Nere lotan zegoen jada. Hurren goizean, Nere arin esnatu da, eta bere lanaren bila joan denean, desagertuta zeuden. Nork lapurtu dizkio? Nork zapuztu nahi dio aurkezpena? Isilpean Julen esnatu du, eta gertatutakoa kontatu dio. Julenek sentsazio arraro bat sentitu zuen, eta bi aldiz pentsatu gabe, Amaiaren gauzetan begiratzen hasi da. Bere poltsak, hondo bikoitza duela konturatu dira, eta bertan zeuden Amaiaren aurkezpeneko orriak.

Amaia esnatu eta azalpenak eskatu dizkiote. Amaiak aurkitu dutela jakitean, aurpegi-adierazpena guztiz aldatu zaio, beste pertsona bat zirudien. Irteerarik ikusi gabe, egia esatea erabaki du.

Beren etxean aurkeztu zen “Amaia”, benetan Irati deitzen da, eta benetako Amaiaren lehengusina da. Juleni atzo kontatu zion, Amaiari gertatu zitzaiola, baina aldea da benetako Amaiak azken 17 urteak ahaztu zituela.

Haien lehengusinari, dilista baten tamainako bolatxo bat topatu zioten 17 urte zituela. Operazio asko izan zituen, emaitza onekin, baina izan zuen azkenengoan, nerbio bat ukitu zioten, eta bere bizitzan gertatutako guztia ahaztu zuen. Berririo ibiltzen, idazten eta irakurtzen erakutsi izan behar zioten. Ez zuen ezta bere izena gogoratzen ere.

Irati, Amaiaren lehengusina, txarto sentitzen zen istripuarekin, familiak dirua behar zuelako Amaiarentzako errehabilitazioa ordaintzako. Orduan, ideia bat bururatu zitzaien. Egunkarian Nere ikusi zuen inoiz, eta beraren proiektua lapurtu, eta bere izenean aurkeztuko balu, dirua berarentzako izango litzateke.

Iratiren teoria egia dela egiaztatu ondoren, Julen eta Nere, denbora luze batez hitz egin zuten. Azkenean, adostu zuten, Nerek irabaziko zuen diruaren zati bat, Amaiarentzako izango zela. Nerek aurkezpena amaitu bezain laster, hirurak hegazkin bat hartu eta Amaia bisitatzera joan ziren. Oso arraro sentitzen zen, 24 urteko pertsona betek, mentalki 7 urte zituela zirudielako.

Azkenean istorio honetatik, gauza onak atera ziren. Irati, Julen eta Nere kontaktuan jarraitu zuten, Amaia zelan dagoen jakiteko. Noizbait, errehabilitaziora ere joaten ziren, haien lehengusina laguntzeko.

2034. urtea:

Amaia guztiz sendatuta dago, eta medikuen laguntzarekin gauza askotaz gogoratzea lortu du. Bai Julen, zein Irati, zein Nere, gaur egun Amaiaren lagun minak dira, eta elkarrekin daude beti.



Anastasia Rotari
DBH 4. Maila

*"Denbora gehiena lagunekin eta familiarekin ematea gustatzen zait.
Irakurtzeaz, ilunabarrak ikusteaz eta bidaiatzeaz gozatzen dut."*

EIDER

Mina.

Iluntasuna eta hezetasuna. Usain nazkagarria.

Aterabiderik gabeko kalezulo bat zen hura, eta han zeuden guztiek Eider hil nahi zuten, denek gorrotatzen baitzuten.

Inguruan zeukan guztia bere kontra zegoela zirudien. Haien begiradek zerbait esan nahi zuten.

Zerbait txarra egiten ari zen.

Agian bere ibilera da erruduna, edo orraztu gabe dago.

Ez, bere kurba gabezia da.

Barre egin zuen pozik munstroak. Bere asmoa bete du gaur.

Eiderrek erresumin txiki bat sentitu zuen sabelean. Esku bat eskuineko aldera eramane eta likido epel batekin topo egin zuen. Eskua begiratu eta...gorri zegoen.

Berriro gertatu zen. Munstroak sastatu egin zuen. Odoletan zegoen. Min handia ematen zion, eta pozo hori guztia sentitu zuen berriro bere zainetan korrika.

Sentsazio hori gorrotatzen zuen, ezkutatu beharra zeukan, bestela, munstroak berriro bilatuko zuen, eta oraingoan ezin izango dio minari eutsi oihu egin gabe. Hala ere, pozo hori gero eta gehiago hedatzen zitzaion gorputzean, Eiderrek azkar ibili behar zuen. Oso gutxi falta zitzaion. Iristen ari zen. Urrats bat gehiago eta babestuta egongo zen.

Azkenean bere gelako atearen heldulekua ukitu zuen. Motxila lurrera bota eta ohera bota zuen bere burua.

Azkenean iritsi zen egunaren zatirik onena, negar egin zezakeen, desintoxika zezakeen.

Eskua masailera eraman eta malko hura garbitu zuen, bere ezpainetara zihoana. Zapore gazia zuen, eta Eiderri ez zitzaion gazia gustatzen, eztia maite zuen, argitasuna maite zuen, baina bizi zuen arazoak ez zion distiratzten uzten, munstroak eta bere pentsamenduen pozoiak distira itzaltzen zioten.

Sarritan galdetzen zion bere buruari noiz amaituko ote zen hori guztia, noiz izango ote zen bere irribarrea polita, noiz desagertuko ote zitzaion gorputzeko koipea, noiz izango ote zen sukaldeko goiko armairura iristeko bezain altua edo noiz izango du Eiderrek Amaia bezalako larru perfektua?

Inoiz ez zuen erantzunik aurkitzen, baina behin entzun zion norbaiti denborak dena sendatzen duela, hala eta guztiz ere denborak aurrera egiten zuen, zauriak ez ziren sendatzen, itzalek, deabruak eta pentsamenduek etengabe erasotzen zioten, eta zauriak sendatzen hasten zirenean, munstroak eraso egiten zion berriro.

Jaiki eta dutxa bat hartzea erabaki zuen, agian horrek burua argituko zion.

Komunera sartu, arropa kendu eta bere playlist gustukoena jarri zuen. Taylor Swiften ahotsak bainugela osoan entzuten zen bitartean, ur tanta beroak Eiderren gorputzaren gainean jausten ziren. Haren gorputz itsusiaren gainean, Amaiarena bezalakoa ez zena. Amaiarena jainkosa batena zen. Zergatik ezin zuen Eiderrek Amaiaren gorputza eduki? Zergatik Amaiak Eiderrek nahi zuen guztia zuen? Zergatik Amaiak lortzen zituen hain erraz nahi zituen gauza guztiak, Eiderrek aldiz dena egiten bazuen bere proposamenak lortzeko eta ez zuen ezer ere lortzen? Eiderrek bazekien Amaiak ez zuela perfektua izatearen errurik, baina ezin zuen pentsatzeari utzi. Zer izango litzateke Eider gai egiteko Amaia izango balitz?

Ezin zuen sinetsi pentsamendu gaizto horiek berriz ere izaten zituela. Gorroto zuen gehiegi pentsatzea, bere izaeraren zati hori asko gorrotatzen zuen. Nazkatuta zegoen bera zen bezalakoa izateaz, burua jateaz. Lagunekin izandako elkarriketa guztiez gogoratzea gorrotatzen zuen. Eta zerbait gaizki esan ote bazuen? Edo bere lekuan esertzeko modua arraroa bazen? Baina nola izan zitekeen pertsona baten esertzeko modua arraroa? Ez zekien galdera horren erantzuna, baina ziur zegoen berea oso arraroa zela.

Orain bai, bere burua argitu behar zuen, bestela erotu egingo baitzen.

Jantzi eta sukaldara joan zen korrika ama besarkatzera. Norbaiten laguntza behar zuen, bere burua norbaiten sorbaldan jarri behar zuen, pertsonen menpekoa zen. Hauen onespena behar zuen.

Eiderrek hainbeste sentitzeari utzi nahi bazion ere, ez zuen lortzen. Eiderrek ez zion amari sinesten, “gaur oso polita zaude” egunez egun entzun arren. Ispiluari, bere barruko munstroari eta Amaiarekiko konparazioei sinesten zien bakarrik. Haiek seguru ez ziotela gezurrik esango.

Eiderrek goiz hartu zuen lo egun hartan, agian horrela lortuko zuen barruko ahotsak isiltzea. Beharbada, biharamun goizean esnatzen ez bazen, ahots horiek alde egingo zuten, baina haren zati batek ez zion uzten borrokari uzten. Eider benetako borrokalaria zen, hori argi zuen. Pentsamendu txarrak blokeatzen saiatzea borrokatzea zen, Amaiarekin konparatzea gaizki zegoela jabetzea borrokatzea zen, bere burua batzuetan baloratzea borrokatzea zen.

Bat-batean, kolpe bat entzun zen bere leihoan, Eider esnatu egin zen. Nor izan liteke? Inork ez luke bere leihora deitu nahi, ezta? Gortina kendu eta leihoa ireki zuenean, ilargiaren distirak musu bat eman zion masailean, haizeak besarkatu egin zuen, eta errekatxoaren soinuak kanta bat abestu zion belarrira.

Eiderrek errekastorearen mugitzeko eran pentsatu zuen. Ez zitzaion axola zarata egitea, eta horrekin jendea gogaitzea, ez zitzaion axola bere korrontorearen abiadura oso gogorra izatea. Aske mugitzen zen errekatxoa.

Eider askatasun horren gose zen. Ur kantitate handi hori puntu finko batera nola joaten zen begiratzen zuen, eta ez zuen ezer gelditzen uzten, azkenean itsasoratzeke.

Orduan, Eiderrek ulertu zuen bere helburua ez zela Amaiaren antza izatea, errekastorearen antza izatea baizik. Nahi duena egiteko aske izatea, horrek izango dituen ondorioetan pentsatu gabe, eta zein barregarri izan litzatekeen pentsatu gabe.

Hurrengo egunean, Eider irribarrea aurpegian zuela esnatu zen. Ibaia imitatzeke prozesua oso luzea eta gogorra izango zela ulertzen zuen, baina bazekien merezi zuela ere. Isuriak izan ziren malko gazi haietaz ere ez litzateke damutuko, zeren eta dena sendatzeko beti ur gazia da: itsasoa, izerdia edo malkoak.

Jertse eta galtza gogokoenak jantzi zituen, ile beltzaran luzea orraztu zuen, eta ispiluan islatzen zen neskari begiratzean, zur eta lur geratu zen. Ez zen bera. Izan ere, altutxoagoa eta lirainagoa zen.

Sekula ez zion erreparatu begirada distiratsu hari, ez bere kafe koloreko begiei, ez bere aurpegia estaltzen zuten oreztei, izarrek zerua bezala.

Eta bere gorputza? Gorputz perfektua zuen. Desberdina zen. Bitxia zen. Bere burua maitatu behar zuen, bere burua besterik ez baitzuen. Eider zen bere buruari inoiz huts egingo ez zion bakarra. Eta bere burua maite ez badu, nork egingo luke hura beragatik?

Eider ederra zen, eta hori ezin zen eztabaidatu. Haren atzetik zebilen munstro harekin berriro topatzeko beldur zen, Eider zauritu nahian. Pozoi mingarri hori berriro askatuko ote zuen, baina konturatu zen bera zela hura menderatzen zuena. Bera zela oinak geldiaraz ziezaiokeen bakarra, hura suntsi zezakeen bakarra, eta hala egingo zuela, denbora pixka bat besterik ez zuen behar hura despitzatzeko, tranpa bat jarri eta gero suntsitzeko.

Bere instituturantz abiatu zen, bere helbururantz, ezerk geldiaraz ez zezan, azken batean, zorionean itsasoratzeko helburuarekin.



Naroa Sandia
DBH4. maila

“Musika entzutea eta lagunekin egotea gustuko dut.”

GEHIAGORIK EZ

- Zertan lagundu ahal zaitut?—polizia batek galdetu zidan.
- Emm... bortxaketa bat salatu nahi nuke. —ezin nuen sinetsi hitz horiek nire ahotik atera zirela, inoiz ez nuen imajinatuko nire burua honelako egoera baten aurrean topatzea.
- Itxaron minutu bat, nire nagusiari galdetuko diot.

Metro batzuk urrundu zen, eta “NAGUSIA” jartzen zuen ate baten aurrean geratu zen. Ireki, eta tonu desatseginetan nagusiak nola erantzuten zion entzun nezakeen.

- Ez etorri garrantzirik ez duten bortxaketekin. Ziur gona labur bat eramaten zuela, berak dauka errua.

Berehala atera nintzen, munduko pertsonarik ahulena sentituz.

Astelehena zen, eta institutura joan nahi ez banuen ere, neure burua behartu nuen; bestela guztiek jakingo zuten gertatu zitzaidanari buruz. Gelako atletik sartzerakoan, ikusi nuen biologiako irakaslea azterketak banatzen ari zela. Ez nuen ezer ikasi. Azken egunetan irudi bera etortzen zitzaidalako burura, behin eta berriz, ziklo bat balitz bezala. Txirrinak jo, eta azterketa ematera joan nintzen, nahiz eta nire izen-abizenak soilik zituen barne. Maisuak nire froga ikusi eta galderarik bete ez nuela ohartu zen.

- Ez duzu inoiz azterketarik hutsik uzten. Zerbait larria gertatu zaizu, Esti?
- Ez, ikasi ez dudala bakarrik.
- Badakit arrazoa ez dela hori. Beraz ez etorri aitzakia horrekin.

- Asier, ez zait ezer gertatzen benetan.
- Badakizu edozer kontatu al didazula, ezta? Lasai, hartu behar beste denbora.

Ez nekien zer egin. Nire lagun gehienek ez ninduten sinesten. Ezta poliziak ere. Bat-batean konturatu nintzen nire begiek ezin zutela egoera hura eutsi eta negarrez hasi nintzen. Berehala atera nintzen ikasgelatik, ez nuen atea itxi eta komunera joan nintzen korrika, gau ilun hartako irudi guztiak nire burura itzultzen ziren bitartean.

Larunbata zen eta nire urtebetetzea lagunekin ospatzera nindoan. Taberna batean afaltzea zen gure asmoa, eta gero, jai batera joatea, ondo pasa genezan.

Nire lagunik onena hogeit hamar minutu barru etorriko zen nire bila, eta oraindik ez nekien zer jantzi. Gona beltza, top zuria eta gehien gustatzen zitzaizkidan botak jartzea erabaki nuen. Makillatzen amaitu bezain laster, klaxon bat entzun nuen. Leihotik begiratu, eta nire lagun onenaren autoa zela konturatu nintzen. Honen gurasoek auto bat oparitu zioten joandako hilean, 19 urte bete zituelako. Gurasoak agurtu eta eskailerak bajatu orduko nire laguna korrika zetorren niregana, besarkada bat ematera.

- Zorionak Esti! — esan zidan belarri arteko irribarre batekin.
- Eskerrik asko, Ander.
- Oso guapa zaude 17 urte hauekin.
- Ez esan gezurrik, tira, beste lagunak gure zain egon behar dira eta.

Autoan sartu ginen biok, eta hamar minutuan afaltzeko erreserbatutako tabernan geunden. Taberna atsegina zen, eta atzeko aldean lorategi handi bat zuen, itsasora begira. Mahai ugari zeuden, gehienak guk betetzen genituen, beste hainbat zerbait hartzen ari ziren mutil koadrila batek eta beste guztiak hutsik zeuden. Pizza batzuk eskatu genituen, eta gure artean hitz egiten aritu ginen afaria ekartzen ziguten bitartean. Eguzkia ezkutatzen ari zen, zerua koloretsu utziz, eta baita arroken kontra jotzen zituzten olatuak entzun genitzakeen.

Leku hartatik irten ginenean, denok oinez joan ginen hamar minutura geratzen zen diskoteka batera. Bertara sartu eta edariak eskatu genituen. Gau osoa eman genuen abesten eta dantzatzen, ondo pasa genezan asmoarekin.

Bat-batean, orduari begiratu eta ia goizeko hirurak zirela ohartu nintzen. Beraz, berandu zenez, Anderren bila joan nintzen, txikitatik auzo berean bizi ginelako.

- Ander, etxera zatoz? — galdetu nion.
- Ez, oraindik goiz da. Ordu bat gehiago geratuko naiz.
- Ni banoa, joan beharra daukat.

Nire gauzak hartu eta diskotekatik irten nintzen. Oso iluna zen gaua, eta ez zegoen inor kalean, diskotekatik metro batzuetara erretzen ari zen neska koadrila bat izan ezik.

Bi kale geratzen zitzaizkidan etxera heldu baino lehen. Bat-batean, norbaitek horma baterantz bultzatu ninduen. Paretaren kontra aurrez aurre nengoen eta atzean neukan pertsonak zer egin nahi zidan imajina nezakeen. Beraz, ihes egiten saiatu nintzen, buelta eman eta niri erasotzen ari zenaren aurpegia ikustea lortu nuen. Baina ni baino indartsuagoa eta altuagoa zenez, ezin izan nuen ihes egin.

- Gelditu mesedez, ez egin ezer. Uutz....utz nazazu joaten. — esan nion, beldurrez.

Gogorrango eutsi ninduen. Une horretan hasi ziren nire bizitzako hamar minuturik amaiezinenak. Bere usaina pixkanaka nire arropan barneratzen ari zen, eta belarrira xuxurlatzen zidan nire ilea heltzen zuen bitartean. Gero joan egin zen eta lurrean botata utzi ninduen, ezin nintzen mugitu, gorputz osoa minduta neukan.

Asierri gertatutakoa kontatu eta osteko astean ez nintzen institutura joan, ez nintzen inortaz fidatzen, ezta neure buruaz ere, baina astea amaitu zenean, konturatu nintzen eskolara joan behar nuela, ezin nuelako nire bizitza osoan zehar horrela jarraitu. Ikasgelan Asier ikusi eta amaieran nirekin hitz egin nahi zuela esan zidan.

- Nire arreba abokatua da, azken aste honetan ahal izan duen guztia egin du epaiketa bat lortzeko, bortxatu zaituen mutil hori salatzeko.

- Asier, ez eman itxaropen faltsurik, mesedez.

- Esti, benetan ari naiz. Bihar goizean duzu epaiketa, eta nahi baduzu zurekin joan naiteke.

Ezin nuen sinetsi, baina amesgaizto hori betiko amaituko zen eguna iritsi zen. Biok, Leire (abokatua) eta ni mahai batean eserita geunden epailearen aurrean. Atzean, jendea eseri zitekeen lekuan, Asier eta Irati, nire laguna, zeuden. Hauek ziren sinetsi ninduten bakarrak.

- Zer gertatu zen gau hartan, Esti?— galdetu zidan epaileak.

Ez nuen erantzun, beldurtuta nengoen. Nire buruak behin eta berriz esaten zidan berak ere ez ninduela sinetsiko. Leire begiratu nuen, eta buruarekin baietz esan zidan.

- Berak bortxatu ninduen.—gelditu nintzen, esan ala ez jakin gabe—Nire lagunik onena izan zen. Ander. Berak bortxatu ninduen gau hartan.

Estik dena kontatu zuen egun horretan. Ander atxilotu, eta zortzi urtez kartzelan sartu zuten adingabe bat bortxatzeagatik. Urteak igaro ondoren, Esti abokatua egin zen horrelako kasuak borrokatzeko.

Ez da Estik zeraman gona edo eskotea. Ez. Ezta berak gehiegi zirikatzen edo erakusten zuenik ere. Ez. Eta ez, berak ez du errurik. Jantzi, nahi dugun bezala jantzi gaitezke. Eta bakarrik joan beharko ginateke kalean zehar, horrelako gauzak gertatzeko beldurrik gabe. Libre garelako nahi duguna izateko eta nahi duguna egiteko. Eta ezin dugu ezer egin hainbeste sufritu duen pertsona horren iragana aldatzeko. Baina egin dezakeguna pertsonen oraina eta etorkizuna aldatzeko borrokatzea da. Hori bai. Eta egin behar ez duguna, eta egingo ez duguna, isiltzea da. GEHIAGORIK EZ!



Nahia Ertzilla Goicaskoetxea
DBH 4. maila

“Kaiola erraldoietan askeak, eta oihu egin ezean kondenatuak”

ISPILUAREN BI ALDEAK

Txikitan, erori eta berriz jaikiz ikasten genuen oinez, nerabezaroan ordea, era horretara prestatzen gara hegan egiteko. Hauek baitira horrenbeste denboran gogoan giltzapeturik izandako ideia guztiak azaleratu eta hitzen garrantzia zein den ezagutzen ditugun urteak. Guraria eta gorrotoa zer diren ikasten dugu, eta hauen baitan ezkutaturiko sentimendu eta jakin-minaren erroa zein den. Behin urdailean lo egondako tximeletak hegan hasten dira, begietan distira berezi bat ezarriz. Batzuetan tximeletak beharrean hegazti saldoa diruditenak, eta kilimak beharrean barruak iruntzitara jarri dizkigutela diruditenak. Behin kolore zehatzak zituen oihalaren itxura aldatzen dugu, guk aukeratutako koloreak direla pentsatzen dugun bitartean.



Amonak amorratuta telebista itzali du nekatuta bertatik irtendako astakeriez, harrigarria iruditu zait piztu izanak, hamabost minutu eskas iraun baditu ere. Orain gutxi arte etxe honetan entzun zitekeen bakarra ziren albisteetako ahots arrotzak eta aitonaren zurrunga lasaiak. Baina honen faltan amona ez da nekatu ere egiten inor gaitzesten, aitona falta du matrakan haritzeko, eta telebista entzuteak soilik zentzurik ez duela dio.

Urteek eta bizitako guztiak argia lapurtu diote honi begi marroietatik, behin izandako emozio eta zirrara guztiak zerbaitek xurgatu balizkio bezala, horien arrastorik utzi gabe. Hainbestetan kontatu dizkit gaztea zeneko istorioak, horietako asko gehiegi puztuz ia fantasia bilakatu arte. Kasu horietan badaki kontatutakoa sinesten ez dudala, baina ez du inork sekula ezer esaten. Bestetan aldiz,

memorian harrapaturik balego bezala da, begirada urruntzen zaio eta ahotsa zurrumurru batera jaitsi, egun horietan ez du ipuinik kontatzen, milaka kilometrora balego bezala da, eta bakean uztea nahi duen seinale.

Urteak igarotzen dira, zaharrago egiten gara, zimurrak eta ile zuriak erantsiz, ondo ezagutzen dut zahartzearen gaiztakeria. Urtaroak igarotzen dira, hostoak erortzen dira, kaleak kolore gorriz tindatuz. Negua heltzen da, ile zuriak txanoz estalaraziz eta hostoak haizeak eramanez. Baina umore grisa gelditzen da, haizeak eta igarotako urteek ez dute hori eraman nahi. Agian, gauak eraman dezan utzi dute. Gauaren iluntasunean ordea, umore grisa ere gehiago iluntzen da, eta horren babespean ez dio kontzientziari lasai atseden hartzen uzten.

Buelta eta buelta iluntasunean burukoak ere ihes egin du gorantz, estalkia aldiz, hanketan korapilatu da. Loa geroz eta urrunago dagoela ikusita, eta alarmak minutu gutxi barru joko duela eta, oinek komunerantz joatea erabaki dute. Eskuek ere beraien gogo propioa izango balute bezala, hortzetako eskuaira urdina hartu eta mihiaren atzealdea zirikatzen dute goragalea eraginez. Baina ez da ezer ateratzen, aurreko egunetan bezala. Haserre neure buruarekin, zutitu, eta burua altxatu bezain pronto, tristuraz eta negarrez beteriko begi marroiekin egiten dut topo. Islatutako irudiko neskak begi ertzak gorriz tintaturik ditu, ileak koletako gomatik ateratzen zaizkiolarik eta masailak arrosa kolore batez estalirik. Ezkerreko eskuan duen eskuaira berriz harraska gaineko edalontzian uzten du, eta beste eskuarekin aurpegia estaltzen du, lotsaturik aurrean duen irudiarekin. Nazkaturik. Besoa luzatu eta argia itzaltzen du ahal bezain azkar, ispiluko irudia begi bistatik kentzeko asmotan. Bat-batean, belaunek komuneko baldosa hotza jotzen dute, ikara eraginez gorputzean gora. Hasiera batean oin hutsetatik soilik sartutako hotzak eragindako hotzikaren minagatik izango ez balitz bertan gelditzea tentagarria irudituko litzaidake, eginbehar eta ardurak ahaztuz azpiko harri eta zementu gogorrak irentsi nezan utziz.

Gaur ere horietako egun bat dela dirudi, leihoaren aldameneko besaulkian eserita darama goiz osoa, urrunera begira, zerbaiten esperoan balego bezala edo kristalean behera lasterkatzen diren euri tanten arteko jolasean murgildurik. Kontu guztiak noizbehinkako ipuin-kontalariak eraman ditu amonaren ahots xumearekin batera. Jateko gogo handirik gabe esnatu da, goizeroko kafea ere mahai gainean utzi du pilula kutxaren alboan. ‘Kolorezko pilulek sendatzen ez dutena baretzen du euriak’ dio begi-zorro goibelez sukalderra begiratzuz, ‘baina urteen poderiozko oinazeak sendagaitzak dira, maitea’.

Batzuetan amonaren hitzek zerbait gehiago dutela iruditzen zait, ispilu baten bi aurpegiek bezala; islatzen den irudia baino gehiago dagoela, begiek antzeman ezin dutena, azaleratzen ez dena. Baina galdetzeko ausardia faltak bere horretan utzi nau.

Jakin-minaren egonezina agerikoa da ilobaren begi argietan, bizitzari zirrarez eta ilusioz beterik begiratzeko moduak behin ezaguna nuen neskaren irudia dakarkit gogora. Behin izandakoaren eta atzean gelditutakoaren antz handia hartzen diot. Begietan daraman distirak eta ezpainen ertzak beti gorantz egiteko ohiturak, berriz, bizitzaz maitemintzeko gogoia ematen dit. Goizean euriak aleroirik gabeko leihoen kontra zakar jotzen duenean sortutako soinuak esnatzerakoan eta ohe-estalkien artean egondako berotasuna irensteko ematen duen gogoaz; goizeroko kafe eta ogi txigortuaren usainaz; eta liburueta hitz potoloez berriz maitemintzeko gogoia ematen duen irribarre hura. Baina indar falta, urte horietako guztietako borroka amaigabeak indarririk gabe utzi nau, lehortuta. Burua uraren azalean mantentzeko ahaleginak egin arren, konturatu orduko hondoan nintzen.

Behatz punten azpiko sukaldeko baldosa hotzari erreparatzen diot, begi bistatik lauso artean galtzen den bitartean. Malko lodiek masail arrosak erretzen dizkidate, tanta gazi bakoitzaz begi ertzak gorrituz. Ihes egindako malkoak kontrolatzen saiatzea alferrikakoa da, edozein unetan eztarria itxiko dela sentitzen baitut. Pasatzen den minutu bakoitzeko, gorputza gero eta astunago bihurtzen dela dirudi, burua arintzen den bitartean. Sukaldearen presentziak lasaitzen nau, bertan egote hutsak, armairuetako taparik irekiko ez dudan arren. Oin hutsez lurraren freskura sentitze hutsak eta ingurukoa begiratzeak.

Gaur ere, etxean sartutakoan amona atzoko toki berean aurkitu dut, leihoaren aldameneko besaulkian eserita hankak manta lodi batez estalita dituela, altzoan liburu batekin. Giltza sarrailan sartzen entzutean liburutik burua altxatu du hurbiltzeko keinu eginez, harrigarria da emakume honek duen entzumen abila.

Ile-apaindegirako txanda hartu nahi diot, ikusi aspaldiko partez etxeko zapatilak ken ditzan lortzea posible den, egunak daramatza lau hormen artean gordeta. Baina nekez lortuko dudala dirudi, eroso baitirudi etxeko lasaitasun gozoan, nahiz eta berak kalean ibiltzeko zaharturik dagoen eta nekatu egiten dela esan. Auzi galdua dela ziurtatzerakoan eta telebista pizteko aukerarik ez dagoela erabaki ostean, egongelako isiltasunak irents gaitzan utzi dugu, gela milaka burutazioz betez.

Amak kontatutakoagatik dakit amonak ezagutzen duen mundua iluna dela, gaztea zenean gaixotu eta orduz geroztik mundua gaixo ezagutu duela; inoiz bizitza beste era batera erreparatzea bururatu ez balitzaio bezala. Gaztea zenean mundua aldatzeko amets handiegia zuela, eta nagusitzen joan ahala amets erraldoi hura bere aurrean nola birrintzen zen ikusteak bera ere hautsi zuela, eta horrela suntsitu zirela gizarteari jarri zizkion harresiak.

Azkenean, guztiok ikasten dugu harresiez inguraturik bizitzen. Hasiera batean gizarteko eredia gogotik kanpo mantentzeko ahaleginetan horma bat eraikiz; eta beranduago konturatzen gara ezer handirik egiterik ez dagoela, dagoeneko harrapatutik gaudela. Pentsamendu horiek eta gizarteko jarraibideek hainbeste hondoratu gaituzte, igerian jakin gabe itsasoratu gintuztenean.

Oraindik nerabezaroa ezagutu gabe neukan maite nuena mugatzen hasi nintzenean, konturatu gabe inoiz landu gabeko kontzeptuak ezagutu nituenean eta nik altxatutako harresian lehen arrakala agertu zenean. Geroago, handik agertu ziren besteak. Haur ilehori gozozaleak ere handik gutxira bistatik alde egin zuen, alaitasuna eta poza berarekin eramanez; gogoia ere desagertu zen, bere lekuan hutsa soilik utziz. Urte horiek guztiak lehenago haurra laga zutenen lekua zurrumbilo batek hartu zuen, inor konturatu gabe bere begien distiraren atzean ezkutatuz, egunero hasi eta barruak irensten zizkion horrek.

Koaderno batean hasi eta koaderno batean bukatuko zela argi nuen, konturatu gabe zenbakiak menpekotzat hartzen ninduten bitartean.

Zenbakiak gorantz egiten zuten gehitzen eta pilatzen joan ahala, igotakoak jaitsi beharra zegoenez, erre beharra zegoen. Ez zen nahikoa ordea, orriak pasatu ahala metatzen jarraitzen baitzuten, guztiak ezabatzeke astirik eman gabe. Momentu batean guztiak denboran izoztu balira bezala gelditu ziren arte.

Ikusmena lainotzen zizkidaten orbanak eguneroko gauza bilakatu ziren, hasieran izandako ikara ere galdu nien lurrera begiratu eta begiak kliskatuz uxa zitezkeela konturatu nintzenean. Goragale eta hotzikaren morroi egin nintzen, neure burua bat-bateko mugimenduen etengabeko mehatxuez ohitzera behartzen saiatzen nintzen bitartean. Mehatxuak kontutan hartzen ez nituenean, une batez oreka galtzen nuen beraien existentziaz gogorarazten nindutelarik. Bihotz taupada bizkortuak belarrietan

sentitu nitzakeen, eta zin egin dezaket alboan norbait egongo balitz, entzun egingo lituzkeela. Zaletasunez aspertu nintzen, dagoeneko nekatu nintzen marrazkiez eta behin txunditzen ninduten kolore biziez, nekeak osorik irentsi ninduen, baina loa lapurtu izan balidate bezala zirudien eta amesgaiztoez ordezkatu. Gauaren ilunak nengoena baino gehiago zikinduko ninduelakoan, ez nintzen argirik itzaltzen ausartzen, horregatik, estalkien babespean ezkutatzea besterik ez neukan. Nebaren erreguak, negarrekin batera inpotentziaz bustirik agertzen hasi ziren, airean nola desagiten ziren ikusten genuen bitartean.

Udazkena igaro zen eta negua zetorren, zuhaitzak biluzik zeuden ordurako, kaleak hostoen kolore gorria ere galtzen hasita zeuden. Zurrunbiloak dagoeneko barruak irentsita zituen eta eskuetatik joana neukan, hori hezterik ez zegoen.

2019ko abenduaren 19a

19:47

Txikia nintzenean
eta txokolatez beteriko espatula
miazkatzen nuenean,
masailetara arte
txokolatez zikinduz,
pastela labean nola sartzen zuten
behatzen nuen bitartean,
ez nuen inoiz imaginatuko
nire baitan
zurrunbilo batek
lekua hartuko zuela.

Guztien sarbide
errazagatik
sortutako zurrunbiloa.
Gizartearen arauak
jarraitzera
behartzen nauen zurrunbiloa.
Espatula horretaz gogoratzerakoan,
orain goragalea
eragiten didan zurrunbiloa.
Arauen arabera jokatzeko
behartzen
nauen zurrunbiloa.

2020ko apirilaren 7a

Eta momentu hartan konturatu nintzen, ez zela inoiz nahikoa izango jada ezaguna zen ahots horrentzat.



June Zameza Azurmendi

BATX 2. maila

“Merezi dabenengaitik, gora kopak!”

HITZ EDERRAK ZURETZAT

Gaur, abenduaren 22a, zure eguna da, amona; zuretzat idazten dut testu hau. Hil orduko zure eguna bazen, gaur ere, zurea da.

Pertsona bat hiltzen denean ohikoa izaten da berari buruzko hitz ederrak esatea. Lau hitzetan definituko nizuke, amona: kementsua, langilea, adoretsua eta eskuzabala. Beti lanean, edonori laguntzeko prest. Gurasoek auto istripuaren ostean utzi nindutenetik, zeu izan zara nire familia bakarra; beste inor ez da oroitu nitaz; ezta Peio, anaia zaharrena. Atzerrira bizitzera joan zenetik, ez genuen bere dei bat ere jaso. Bere falta ere sarritan nabaritzen zitzaizun; telefonoak jotzen zuen aldiro, han baitzeunden zeure loba kuttunaren berriren baten zain... Baina ez zen ezta zu hildakoan ere heldu.

Denbora azkar igaro da zure galeratik; azken urtea, ziztu-bizian. Gabonak ospatzeko jomugan gabiltza, eta nahiz eta zenbait lagunek haiekin afaltzera gonbidatu didaten, nahiago dut gure etxean geratzea...

Peiok deitu zuen atzo, behingoz. Ez nuen ezta bere ahotsa ezagutu ere; hain zeukan ahots sendoa... Urrunean umeen zarata ere entzuten zen, beharbada, bere familia propioa eratuko zuen Londresen, agian, izeba naiz, batek jakin... Dena den, Gabon Gaua pasatzera etxera etorriko zela esan zidan, faltan botatzen zuela etxea eta txikitako bizitokia. Ez dizut gezurrik esango, izoztuta geratu nintzen, zer erantzun ez nekiela.

Nola ausartzen da horrenbeste urte desagerturik egon eta gero berriz etxera itzultzen? Ez ote da eragin digun minaz konturatzen, amona? Zer egin behar dut nik orain? Nire ondoan bazina, seguru nago bururatuko zitzaizula zerbait...

Beharbada, egokiena ezer gertatu ez balitz bezala egitea da, baina ez dakit. Nola ahanzi ihes egin zuen momentu hura? Nola ahanzi esan zizkigun hitzak? Nola ahanzi neba falta hori? Nola ahanzi nebarengandik jaso nuen babes eza? Orain itzultzea

alferrik dela esango nuke, beranduegi jada. Zer esango diot ba, nik? Zer moduz dagoen bere bizimodu berri horretan? Nola sentitzen den gu atzean hainbat urtez utzi eta gero? Bere laguntza, beharbada, ederki etorriko zitzaidakeela, baina orain arte moldatu banaiz, ez dut uste benetan beraren laguntza beharko dudarik, orain ez behinik behin. Moldatuko naiz, lagunak eskaintzen didaten laguntzarekin bada ere. Peiok nigatik ez badu atzamar bat ere mugitzen, neu ere ez naiz joango bere laguntza eske.

Tristura nabaritu dut hau guztia idaztean. Masailetan behera dabilzkit malkoak; lurrera erori eta txiri-txiri itsasoaren gazitasunerantz joko dute, munduan barrena bidaiatuz. Txikitan biziriko momentuak ere gogoan ditut, Parisera joan ginenean bidaia euritsu hura, igandeetan egiten genituen txangoak... A ze momentu zoriontsu eta gazi-goza bizi izan ditugun elkarrekin...

Ezkutuan gordeta izan ditudan tarte horiek gogorarazteak itzelezko mina ekarri nau. Ez naiz gai izan familiaren hutsuneaz inorekin hitz egiteko, ez da gai ohikoa; nahiz eta orain inguruko denek aitortu didaten egoeraren berri zirela. Baina tira, ez naiz horren koldarra izango, ni ez. Errealitatea onartuko dut eta aurre egingo diot. Horrela ikusiko dut eta nor dagoen benetan nire alboan. Azken finean, bizitzak jarritako traba baten aurrean nago, eta ez naiz makurtuko inondik inora ere! Peiori esan beharreko guztiak esango dizkiot eta hor konpon! Berak erabaki dezala zer egin!

Heldu da agur esateko momentua. Zauden tokian zaudela, amona, ez ahaztu maite zaitudala eta beti izango ditudala hitz ederrak zuretzat. Hamaika gauza ikasi ditugu elkarrekin eta une gogorrenetan ere ez garela erortzen irakatsi didazu. Baina mesedez, ez ahaztu nitaz, zeu zara eta nire bizitzari argia eman diona. Gatibu taldearen esaldi hau aukeratu dut zuretzako amona: “Merezi dabenengaitik, gora kopak!”. Hortaz, egun hau ospatuko dut zure omenez, zeurea da eta.



Ane Mei Aspiazu Etxeandia
BATX. 2. maila
“Egunero argitzen du”

ARGI-ITZALAK

PITZADURA

Denbora zalantzati bat daramat,
teilatuko pitzadura ezin ikusirik,
ezin lorik hartu,
nire begirada sabaian iltzaturik.
Ezker oina umeldu zait putzu batean,
tanta ikusgaitzez osaturik,
eta barne kontzientzia baretzearen saiakeran:
“ez dago putzurik, ispilatze bat ez da besterik”
neure buruari ukatzen diodalarik.

Zu, berriz, ikusten zaitudala uste dut,
zure itzala paretetan zizelkaturik.
Higuindura diot ilunantzari,
baina ez daukat hemendik irtetzeko pronostikorik.
Beste behin, adimena darabilkit azpijokoetan?
Ez iezadazue esan orbanak zirriborroak direnik,
ez baititut nahi badaezpadakoen aholkurik.

Nolatan ni hemen eta zu beste munduan?
Akaso tiketa galdu nuen zurekin aldentzeko?
Frustrazioan eta atzeraezintasunean pixkanaka itotzen nihoa,
errugabeen artean errudunak salatuz ezinegona uxatzeko,
putzuaren sakoneraren handitasunean arnasestuka
errealitatea ezerezten ahalegintzeko,
zure itzalak ikusten jarraitzeko, etsipeneko uretan ez ahitzeko.

Hutsa besterik ez naiz zu gabe,
askatu ezin dudan korapilo sendo bilakatuta,
ezin dut jarraitu, oztopaturik,
zentzugabekeria batean nago abandonatuta.
Kale itsuetan barrena nabil murgilduta,
kale zulo berean trabatuta,
esperantza ezaz akatuta.

Baina bukatu da,
danbateko batez itxi zenuen atea
nire muturraren aurrean,
itzalen artean geratu nintzen, iluntasunean,
bakardadean, bihozmina nuen bularrean,
baina bukatu da.
Udaberritu du, piztu dut argia,
putzua hustutzen dihoa, arnasbideak libratzen diren einean,
eta ez, jada, itzaletan ikusten ez zaitudan arren,
beti argituko du nire barrenean gogoan zaitudan bitartean.

MARTE

Ez zenituen kolore hotzak gustoko,
baina ni aukeratu ninduzun.
Gorria eta ziana ginen,
magenta berezia osatzen genuen,
zu Marte eta ni Neptuno,
hala esaten zenuen.

Bolbora kartsua antzigar izoztuarekin juntatzea
bateratze arriskutsua zen, baina berdin zitzaidan
burugabekeria hutsean erortzea,
hain erreza baitzirudien elkar maitatzea.

Negua heldu da, eta ez zara bueltatuko,
hozturik egon arren, ez zaitut berriz sentituko,
zure azal umela nirea ukitzen,
hormako siluetan gure itzalak bat egiten.

IZOTZA

Ispilura begiratu naiz,
begiratu naiz, baina ez naiz ikusi,
ikusi ez, baina hotzikara bat sentitu dut.
Ahitzeaz ditut indarrak, baina ez nauzu uzten,
esklabu bihurtu nauen ispilatzetik ihes egiten.

Urdailean marraztu dizkidazun tolesdurak
atsekabea eta ezinegona dira,
ez ditut nahi, ez al zara kargutzen
saiazen naizela hauek desagerrarazten,
baina nire izatea dihoala indargabetzen?

Ahitzeaz ditut indarrak, baina ez nauzu uzten,
ispilura zintzoki begiratzen, ez naiz ikusten.

Ez dakit noiz galdu nuen nire sena, baina
ez dago abiapuntura bueltatzeko aukerarik,
apurturik, ahuldurik, izozturik,
ez al dut bizitzeko beste modurik?

Hozturik, barrena husturik, biluzturik,
ulertu ezin nauten begiradaz inguraturik.
Berriz erori naiz, nire gorputzaz sortu duzun
irudi faltsu horretan, erori naiz.

Ahitzeaz ditut indarrak, baina ez nauzu uzten,
ni neu naizena ulertzen, izaten.



Elena Agirre Martija
BATX 2. maila
“Bihotzaren taupadak”

KAFE BAT?

-Lierni-

Iratzargailuak esnatzen nau
Mugikorra hartzen dut
Ding! Mezu bat
“begira ezazu Iñigoren post berria”

Taup, taup, taup
egiten dit bihotzak
bere profilean klik egitean
Ikusi nahi ez nuena dago

“Asko gutxut” argazkiaren azpian
Negarrak nire begietan
Hasperen bat askatu eta
lotara joan

Bihotzez dudak oskol hau
mugikorrean betetzen saiatu
baina ezin dut.

Ezin dut egia ukatu
itsasontzi baten nago
noraezean
norbaitek salbatzeari itxaroten

Swipe left, swipe right
Ding! Match bat
Mezu bat
“Kafe bat?”

Beharbada,
erreskatean datorren aingerua da
Behar dudana mapa
Oratuko nauen soka

Baina oskol hau
oraindik hutsik dago
ez da asetu

Berriz ihesean nabil
ametsen erreinura joaten
egia ukatu nahian
Bakarrik nagoela ukatu nahian

-Iñigo-

Eguzki izpiek esnatzen naute
usain gozo bat heltzen zait
eta eskatzera begiratzean ikusten dut
nire planeta txikiko lorea

“Kafe bat?”
hitzek ihes egin diote
begietara begira geundela
ni printze txikia bezala sentitzen

Nire arrosa,
beste mila lore egon daitezke
baina ez hain ederrik

Jantzi eta abentura bila irten naiz
baina jende tarte horretan
bakarrik nago,
jendez inguraturiko basamortu batean

Bapatean, distira bat urrunean
oso ezaguna da
hurbildu ahala konturatu naiz
aspaldiko lorea dela

Bera zegoen lekutik ihesean
bere burua defendatzeko
lau arantza zituen
eta pixkanaka zimeldu egin zen

Orduan izan zen,
loreak iragankorrak direla,
konturatu nintzela

Horrek beldurtu egin ninduen,
bakarrik geratzeko beldurra
iragantzeko beldurra
galtzeko beldurra

-Lierni-

Begiradak gurutzatu genituen,
sastada bat nire bihotzarentzat
play botoia nire biziarentzat

Iman batek bezala
erakarrita hurbildu nintzaion,
begi berde haietan galduta
salbamendua aurkitu nuen

Begiak erreka bihurtu ziren
ahoak irribarre bat marraztu zuen
eta konturatu baino lehen
elkarren aurrean geunden

Gure besoak urtu egin ziren
bata bestearen besoetan
aspaldiko zirrien antzera,
garai zirrargarri haietakoak

Oraindik elkar eusten
gure burbuila magikoan
hitz haiek ihes egin zuten
“kafe bat?”



Zihara Undabarrena Loizaga
BATX 2.maila

“Gaitz gogorrenak ere badu bere azkena”

OROITZEN ZAITUT, AMA

Gaur bezalako egun batek arrunta izateari utzi zion duela 15 urte. Lorez betetako mundu batetik zorigaitzez inguratutako mundu batera igaro nintzen begien kilika batean. Oraindik oroitzen naiz egun hartaz, bakarrik utzi ninduzun egun hartaz. Ohikoa ez zen bezala amona etorri zitzaidan ikastolara bila. Harritu egin ninduen, zu baitzinen egunero arratsaldeko lau eta erdietan txokolatezko ogitartekoa ekartzen zenidana, azkarregi jaten nuen eta zuk, astiroago jatera behartzen zenidan noizbait ditzosozko ogitartekoarekin itoko nintzen beldurrarekin. Egun hartan amonaren aurpegi iluna besterik ez nuen ikusi, ez ogitartekorik ezta amarik. Ezer esan gabe amonaren eskua hartu eta etxerako bidea hartu genuen biok. 4 urteko neskatoa nintzen, baina horrek ez zidan ekidatu zerbait gaizki zihoala nabaritzerik. Halako batean hitz bat irten zitzaidan nire ezpain fin eta leunetatik, “ama?” galdetu nion amonari. Behera begira zegoen honek, aurrera begiratu zuen, ez zen begietara begiratzen ausartzen. Lau bat minutu igaro ondoren oraindik ez nuen erantzunik jaso, amonaren eskuak dardarka nabaritzen nituen. Halako batean, bosgarren minutua pasatzear zegoela “ez dago” soltatu zuen. Orduan konturatu nintzen bakarrik nengoela eta momentu hartatik aurrera nire bizitza maldan behera joango zela, zulo beltz batean murgilduko zela.

Soinu ozen eta mingarri bat sartu zait belarrietatik, segituan eskua luzatu eta argia piztu. Gabe itzaltzen saiatu naiz, lortzen ez dudala ikusita eta soinu ziztrin horrekin gogaiturik argia piztu eta eskua zabal zabalik dudala izugarrizko golpea eman diot. Orduan lortu dut itzaltzea. Goizeko bederatziak dira. Egun luze eta goibel bat daukat aurretik. Ohetik altxatu eta armairua ireki dut. Arropa guztia hankaz gora dagoela konturatu naiz, baina ez diot garrantzirik eman. Kaos horretan, armairu erdian eskegita dagoen arropa eder bat nabarmentzen da, beltza izan arren izugarrizko distira egiten duela dirudi. Amonak oparitutakoa da, duela bi aste bisitatzerantz joan nintzaionean, sorpresa bat zeukala gordeta esan zidan eta zuk gaztaroan erabiltzen zenuen soineko zoragarri hau erakutsi zidan. Armairura eskua luzatu dut eta pertxatik jaitsi dut soinekoa. Hainbat denbora pentsatzen egon ondoren gaur soinekoa estreinatzeko egun egokia dela erabaki dut. Ispiluaren aurrean jarri naiz jantzia aldean dudala, eta joan zinenetik lehenengo aldiz zure babesa sentitu dut. Zure usaina nabaritu dut eta begiak

berez itxi zaizkit. Salto bat egin dut denboran, orain dela 15 urtera. Zure besoetan nago, eskaileretatik erori naiz, zuk etxetik korrikan ibiltzea debekatu ondoren, belaunean egin dudana zauria estaltzen ari zara. Haserre zaude eta ni errudun sentitzen naiz, barkamena eskatu dizut eta bi aldiz pentsatu gabe irribarre bat eskaini didazu, eta segidan besarkatuegin nauzu. Zure usain leuna nabaritu dut eta berriro orainera bueltatu naiz. Orain ilun eta triste honetara.

Nire gelatik irtetea gosaririk hartu ez dudala konturatu naiz eta goserik ez daukadan arren nire burua gosaltzera behartzea erabaki dut. Sukaldera iristean aita ikusi dut, egun berezi honetarako traje beltz dotore bat janztea erabaki du. Kafe-makinak noiz amaituko itxaroten dago eta egun on esatera ausartu naiz baina ez dit erantzun. Zu ez zaudenetik aitak eta biok ez dugu ia hitzik egiten, etxe berdinean bizi diren ezezagunak gara. Aita beti izan da, gizon serioa, dena kontrolpean izan behar du, bere arropa zimurtuta dagoenean haserretzen den horietarikoa. Axola ez diezaiodala, pentsatzen dut, hori erakutsi dit behintzat. Hamabi urte nituenetik arduratzen naiz jatekoa egiteaz eta Etxea garbi mantentzeaz, ni arduratzen naiz bere arropa garbitzeaz eta erosketak egiteaz, hala eta ere azken 15 urteetan ez dit eskertu behin ere ez. Gosaltzen amaitzean, hortzak garbitzera abiatu naiz, ilea apaindu eta kotxean sartzea erabaki dut. 10 bat minutu itxaron ondoren aitak kotxea piztu eta zure herriko hilerriarantz abiatu gara. Bidean aitak auto barruan geratuko dela esan dit, ez duela egun txarrik izan nahi. Ez nau harritu hori esatea. Lehengo urtean, komentario bera egin zuen baina aitona ez zuen onartu, eta zu bisitatzera behartu zuen. Aurten ordea ez dago aitona, eta ondorioz ez dago inor kotxean geratzea ekiditeko dionik.

Amona bertan dago jada, bere arrebarekin etorri da, oso harreman estua dute. Aitona gaixotu zenetik asko laguntzen dio izebak amonari, biak elkarrekin joaten dira leku guztietara, ez da sekreturik bien artean. Aparkatu baino lehen irten naiz kotxetik eta korrika joan naiz amonari besarkada bat ematera. Azken urteetan lagundu didan pertsona bakarra da amona, galdu zintuenean, izugarrizko zulo beltz batean murgildu zen, nola ez zen murgilduko bada? Bere alaba bakarra galdu zuen eta. Zulo beltz horretan aurkitu nintzen berarekin eta biok batera, ikastolara bila etorri zitzaidan egun hartan bezala, bata besteari eskua emanez aurrera egin genuen. Besarkatzeari utzi diogunean, niri begira geratu da malko bat bere masail zimurtuan behera doan bitartean. Segituan konturatu da bai bera eta baita izeba ere. izebak eskua poltsikora eramanez eta prest zeukan zapi morexka bat ateratu du, amonari eskainiz. Amonak bi aldiz pentsatu gabe hartu eta aldean duen makillajea izoratu ez nahian, kontuz-kontuz bere begi umelak lehortu ditu nire begiratzeari utzi gabe. Hasperen egin du. “Ama ikusten dut zugar” esan dit. Izan ere, inoizko irribarrerik zintzoena eskaini diot, ez baita existitzen esan dituenak baino hitz politagorik. Sentimenduz betetako momentu hau igaro ondoren, izeba agurtu dut beste besarkada batekin. Aita hilerriara sartzeko prest ez dagoela esan dit. Amona, nire antzera ez da harritu, nabari da inoiz ez duela gustuko izan aita. Hori jakinik, amonak aitari etxera joan dezakeela esan dio ni izeba eta biekin geratuko naizela.

Hilerrian sartu gara eta aurkitu zaitugu. Ni izan nahiz lehenengoa zurekin hitz egiten, 4 urteko umea izango banintz bezala sentitu naiz. Ikastolatik bueltan amari zer egin duen kontatzen dieten horietakoa. Beste behin nire istorioak kontatu dizkizut. Unibertsitateko bizitzaz hitz egitean aspertu zaitudala sentitu dut. Gaiz aldatu dudanean ordea, lagun eta amodioei buruz hitz egitean interes handiagoa izan duzu. Ordu erdi bat

eman dut zurekin elkarriketan eta nahiz eta kontatzen ari natzaizuna gustuko ez izan, beti egiten zenuen bezala, entzuten zaudela nabaritu dut. Amona eta izeba batera joan zaizkizu hamar bat minutu eman dituzte zurekin elkarriketan. Amaitzean, loreak jarri dizkizugu eta agurtu egin zaitugu malkoz betetako begien artean, hurrengo urtean berriztortzeko asmoz.

Hirurok, kanpoan bazkaltzea erabaki dugu, orain zure herriko tabernan gaude, ogitarteko bat jateko asmoz. Bertan eguneratu egin gara, bakoitzak bere gauzak kontatu ditu, eta hain eremu seguruan sentitu naiz, aitari buruz hizketan hasi natzailea. Aitarekin gustura ez nagoela kontatu diet, ez dela nitaz arduratzen eta pertsona ezezagun bat bezalakoa dela. Amonari beste behin ez dio harritu nik esandakoak. Pentsakor geratu da eta hasperen luze bat egin ondoren honako hau esan dit:

“Begira, zure ama eta aitaren erlazioa ez zen erlazio arrunt bat. Ama aitarekin barruraino maitemindurik zegoen eta egunero erakusten zion hori. Aitak ordea bere maitasuna adierazteko modu desberdina zuen. Hasieran onartzen nuen beraien harremana, gazteak ziren eta bikote normal bat osatzen zutela pentsatzen nuen. Denbora aurrera joan ahala gero eta urrunago nabaritzen nituen bata bestearengatik, eta hainbat aldiz galdetu nion amari ea zer gertatzen zen. Honi, aldiz, ez zitzaion gaia gustatzen eta ahal zuenen bezain laster beste gai bati buruz hasten zitzaidan. Azkenengo urteetan gero eta gutxiago ikusten nuen ama eta aitaren itzalpean nabaritzen nuen. Orduan konturatu nintzen aita gizon ilun bat zela”.

Amonaren perspektibak zer pentsatu eman dit, etxera bidean zure eta aitaren arteko harremanaz pentsatzen ibili naiz eta bat-batean txikia nintzeneko irudi bat etorri zait burura: gaueko orduak dira eta loak hartzeaz nagoela aita oihuka entzuten dut, ondoren zure txanda da, zaratak ozenegiak dira, nire alboan egongo badinate bezala sentitzen zaituztet. Pasatuko dela pentsatzen dut baina ez da horrela orduak aurrera doaz eta ez da isiltasunik nabari etxean. Orduan ateak eman duen kolpea entzuten dut eta ohetik altxatzea erabaki eta logelako atea burua ateratzeko bezain beste irekitzen dut. Hor zaude, lurrean horma batean makurtuta, itsaso bat betetzeko beste malko erortzen zaizkizula. Orain oroitzen naiz, honelako eztabaidak izaten ziren gauean lo gabe uzten zidatenak. Garuna bueltaka daukat ez dakit zer den, baina egun hau ondo bukatuko ez delakoan nago. Halako batean hainbat galdera etorri zaizkit burura: Zer gertatu zitzaizun benetan ama? Zergatik ez dut inoiz jakin zer gertatu zitzaizun zehatz?

Etxeko atea ireki dut, beldur naiz eta ez dakit jakin nahi dudan zerk eramaten didan beldur izatera. Aita egongelan dago, garagardoz betetako baso bat eskuetan duela bere ohiko cowboy-en pelikulak ikusten. Begiak zarratu ditut eta hasperen egin dut. Buelta gehiago eman gabe aitari, hitz egitea erabaki dut:

- *Zer gertatu zitzaion amari?* - ez dut hitzezko erantzunik jaso baina bere aurpegian aldaketa bat nabari dut. Amorrua eman dit eta bigarrenenez galdetzera ausartu naiz.
- *Zer gertatu zitzaion amari?!* - oraingo honetan oihukatu egin dut eta bere arreta jaso dut.
- *Joan zaitez ohera nekatuta zaude* - esan dit.
- *Ez erantzun bat jaso arte!* - kontra egin diot, begi umelak ditudala.
- *Zer gertatuko zaio ba? Hil egin zela! Eta orain ohera!* - oihukatu dit berak ere.
- *Ez noa ohera jakin nahi dudana esan arte!* - esan diot aulkia ateraz eta bertan eseriz.

- Benetan jakin nahi duzula? Esango dizut bada, galdera gehiegi egiten zituela, hori gertatu zitzaion, eta nik esandakoa betetzen ez zuela! - oihukatu dit eskuetan zuen garagardoa aireratuz.

Jakin ez nahi nuen hori kontatu dit aitak, munduak bueltak emateari utzi dio, shock egoeran sartzear egon naiz, baina garagardoz betetako basoa muturren aurrean ikusi dudanean, alde batera mugitzeko beharra izan dut. Hura idatzi eta nire atzean zegoen horma zuria zikindu duen aldi berean apurtu egin da, kristalak ere aireratu egin dira. Nik bi aldiz pentsatu gabe, sarrerako atea ireki dut eta korrika hasi naiz, gaueko orduak dira, bakarrik nago eta amonaren etxeko bidea hartzea erabaki dut norbaiten babesa behar dudala pentsatu dudalako. Ez dira zazpi minutu pasatu amonaren etxera iritsi naizen arte. Malkoak lehortu zaizkit kanpoko haizearekin. Amonak atea ireki didanean ikusi dudanez lehen gauza ez da amona izan. Zu izan zara ama, sarrerako ispiluan agertu zara, zure soineko beltz horrekin ahul eta babes beharrean. Orduan erabaki dut ni naizela zuri babesa emango dizudana, zure alaba den emakume honek mendekatuko zaituela.



Irati Arana
BATX. 2. maila

“Irakurtzea gustatzen zait”

JOLASTEN IRAKATSI

Urrunean soinu bat entzuten dut, zarata. Nire bihotzak burutik hasita hanketara bi buelta eman ondoren, gorputzak salto eman eta bat-batean argia ikusten dut, nire logelako leihotik sartzen den eguzki izpi batek zuzenean jotzen dit aurpegian. Bukatu dira amets goxoak. Oheko izkina batean eseri eta mugikorra piztu dut ordua ikusteko: 9ak puntuan. Sare sozialak berrikusi ostean, altxatzea erabaki dut. Gosaria prestatuta utzi dit amak, beti bezala esnea eta zerealak. Gosaltzen ari naizen bitartean, nire lagunenek WhatsApp-ei begira ari naiz, beti dituzte zurrumurru interesgarriak kontatzeko. Konturatu gabe, esnea jadanik hotz gelditu zait eta ezagutzen nauten guztiek jakin dakitenez, esne hotzak nazka ematen dit, beraz, harraskatik botatzen dut isil-isilean aitak entzun ez diezadan.

Lanak egiten ari naizen bitartean, soinu bat entzuten dut, soinu laburra eta altua, kanpaitxo batena bezalakoa. Ez diot jaramonik eman eta lanak egiten jarraitzen dut. Haatik, berriro entzuten da soinua, behin eta berriz. Orduan konturatzen naiz nire mugikorra dela, nor izango ote da? Zerbait garrantzitsua izango al da hainbeste aldiz jotzeko? Intrigaz beterik, hartzea erabakitzen dut, hainbeste mezu zeri zor zaizkion ikusteko. Pantaila piztu eta 4 mezu agertzen dira, amonarenak.

- Kaixo laztana, zelan zabilta?
- Aspaldian ez zaituztet ikusi zu eta zure anaia.
- Aitonak eta biok pentsatu dugu ea gustatuko litzaizuekeen egun hauetan gure baserrira etortzea, zuen gurasoek lan egin behar dute-eta, eta horrela gure biloba maiteekin denbora gehiago pasatu ahal izateko.
- Gaur goizean dozenaka kroketa eta erroskillak prestatzen hasi naiz zuek jan ditzazuen.

Pare bat buelta eman dizkiot, ez baitut nire lagunak ikusiko eta batzuetan baserriko bizitza oso aspergarria izan daiteke. Alabaina, aspertzen banaiz, beti izango dut nire mugikorra eskuan lagunekin hitz egiteko, jolasteko edo sare sozialak begiratzeko. Ez hori bakarrik, paisaia hain polita denez, aukera paregabea izango dut Instagram-ean argazki mordoa publikatzeko eta *like* asko izateko. Gainera, amonak

ondo daki bere kroketak eta erroskillak nire ahulezia direla, oso gustuko ditut, eta hori irakurtzen nuenean, zalantzarik gabe baietz esango nuela automatikoki. Oso ona baita xantaiak egiten. Beraz, anaia txikiarekin baserrira joatea erabaki dut.

Pozez beterik nago. Mugikorrean zerrenda bat egin dut zer gauza eramango ditudan apuntatzeko eta ohe gainean uzten hasi naiz ondoren motxilan sartzeko. Jarraian, irrikaz kontatzen diet lagunei nire plana, inbidia pixka bat emateko.

Ordubete inguru ondoren, giltzak entzuten ditut kisketan, atea irekitzen da eta ama agertzen da, irribarre ikaragarria duela. Nire motxila ikusten duenean amonarekin hitz egin duela jakinarazten dit eta autoan sartzeko keinua egiten digu. Ordu eta erdiko bidaia da, baina oso laburra egin zait, serie bat ikusi baitut tabletean.

Azkenean iritsi gara herrira. 10 baserrik osatzen dute, bata bestetik nahiko bereizita, errepideak asfaltatu gabe, harritxintzarrez eginak. Gurasoek aitona-amonaren baserria nolakoa den azaldu ziguten, eta, egia esan, oso ondo deskribatu zuten, alabaina uste baino txikiagoa iruditu zait. Zuriz eta urdinez margotuta dago, koloretako loreak ditu leiho guztietan eta bigarren solairuko balkoi erraldoian. Txakur zuri handi batek harrera egin digu, Lagun, nire ama ezagutzen duena eta autotik jaitsi bezain laster korrika joaten dena. Lagunen zaunekin, nire aitona-amonak atera ateratzen dira.

Hizketan denbora luzea emanda, agur esan diogu amari eta aitona-amonak etxera eraman gaituzte. Sarrera egurrezkoa da, zorua harrizkoa, aurreko belaunaldietatik datozen altzari oso zaharrekin. Gure gelara eramaten gaituzte zuzenean, egurrezko eskailera zahar batzuk igoz. Txikitan amarena izan zen gelan sartu ginen. Hormetan, nire adina zuenean berak egindako marrazkiak eta familiako argazki zaharrak daude. Oheak haritz-egurrezkoak dira, artilezko koltxoi batzuekin, inoiz ikusi ez ditudanak. Ohea anaiarekin partekatu behar dut, baina egia esan ez dit axola, oso handia delako eta oso ondo sartzten garelako.

Bat-batean, ezaguna egiten zaidan usain bat igotzen da sukaldetik eta "Urdaiazpiko kroketak!!!" oihukatzen dut. Amonak barre egiten du eta eskutik heltzen dit sukaldera korrika jaitsiz. Nire anaia aitonarekin geratzen da gelan, motxilak irekitzen. Sukaldea izugarria da, leihate bat du, nire amonak berak jositako gortinekin, eta ate bat beiratearekin, baratzera ematen duena. Zurezko mahai handi baten gainean, amonak egindako urdaiazpiko kroketak eta erroskillak daude. Hau poza! Mugikorra atera eta ikusten dudana guztiaren argazkiak egiten hasi naiz, lagunei erakusteko zein paradisutan nagoen. Argazkiak bidaltzeko WhatsApp zabaltzen dudanean, estaldurarik ez dagoela konturatzen naiz, eta, jarraian, amonari galdetzen diot ea zer gertatzen den Internetarekin. Irribarre egiten du eta esaten dit: "Herri honetan ez dugu Internetik". Ametsgaizto baten ari naiz, ez da ari benetan gertatzen. "Esaidazu txantxa dela. Egidazu atximur!"

Ezin dut sinetsi 5 egun emango ditudala Internet gabe, Instagram gabe, WhatsApp gabe, nire lagunak gabe. Jarraian, negarrez hasten naiz. Ohera noa ohartaraziz oker nengoela esperientzia ona izango zelakoan pentsatzean, hori bai, tripa kroketa eta erroskillaz beterik.

Goizez da jadanik, anaia aitonarekin joan da behia jeztera, gosarirako esne freskoa ekartzera. Esperientzia ikaragarria izan dela eta aitonak jezten irakatsi diola kontatu dit. Baina oraindik txikia da eta ez du faltan botatzen niri barrutik hiltzen ari didana. Amonak galdetzen dit ea zergatik nagoen hain triste, eta esaten diot ezin naizela Internetik gabe bizi. Harridura aurpegia jartzen du eta esaten dit: "Nik, zure adinean, ez nuen Internetik, eta oso zoriontsua nintzen". Eta nik galdetzen diot: "Eta nola nahi duzu ni ez aspertzea hori gabe?". Orduan, honako galdera hau datorkit burura: "Nola bidali zenizkidan mezu haiek Internetik ez badago?". Berak erantzuten dit ondoko herrira joan zela, Interneta duen lagun baten kafetegira.

Gero amonak dio: "Lehen galdetu didazu ea nola ez zaren aspertuko zure mugikorra erabili gabe, bada...", eskutik heltzen dit, leihora eramaten nau eta esaten dit: "Ikusten al dituzu zelai horretan dibertitzen ari diren ume horiek? Ez dute Internetik, jolasten ari dira, benetan jolasten. Nahi duzu baten bat erakustea? Dibertigarria izango da!" Ganbarara goaz, non zurezko kutxa handi bat dagoen. Bertan gordetzen baititu haurtzaroko oroitzapenak. Irekitzen duenean, ikusten dut zer diren ez dakidan gauzez beteta dagoela. Kutxa metaliko bat hartu, eman eta esaten dit: "Ireki ezazu". Gailera kaxa marroi bat da eta barruan marrazkidun eta tamaina desberdineko papertxo batzuk daude. "Amona, zer da hau?". Amona irribarrez: "Papertxo horiekin ordu asko eman nituen txikitan". Kromoen jokoa da. Hasieran txorakeria iruditzen zait, baina lurrean eseri, batzuk hartu eta jolasa zertan datzan esaten dit. Azkenean dibertigarria iruditzen zait, egia esan, barre asko egin dugu eta asko gustatu zait irabazi izanak! Gelatik irtetea, nire anaia aitonarekin jolasten ari dela ikusten dut, kristalezko bola batzuekin: kanikak. Harrigarria da nola dibertitzen ziren beste garai batzuetako haurrak. Beste ume batzuekin jolastera kalera irtetera animatzen gaituzte, eta horrela egun batzuk igarotzen dira joko asko deskubritu ahala: goma, soka, tinkatzea, txapak, txorromorroa. Onartu behar dut denbora hegaz pasatu zaidala, eta nire mugikorrak ez naizela gogoratu nire gelara leher eginda iritsi eta mahai gainean ikusten dudanean baino.

Igande arratsaldea da eta ama dator gure bila. Aitona-amonari agur esatean, amonak pakete bat ekartzen du opariaren paperean bilduta, begizta urdin batekin, nire kolore gogokoena. Etxera iritsi arte ezin dudala ireki esan dit, eta halaxe egin dut. Nire gelara iristean, presaka papera hausten dut eta opari zoragarri bat aurkitzen dut: kromoz beteriko kaxa marruskatu hura. Behekaldean zerbait du itsatsita, apertxo bat ohar batekin: "Jolasten irakatsi".

Lagunekin harremanetan jartzen naiz etxean nagoela esanez eta aitona-amonaren herrian aurkitu dudana zerbait erakutsi nahi diedala. Korrika datoz eta arratsalde osoa ematen dugu amonak erakutsi didan eta bizitza aldatu didan jolasa jolasten. Egun horretatik aurrera nire lagunak eta nik jolasetara jolasteko elkartzeko gara, eta ez jolas birtualetan, baizik eta ikasi nituen eta irakatsi dizkidan jolasetan. Gure artean tratatu bat egin dugu, guztiok amonaren ametsa betetzea lortzea.



Iera Larrinaga Vergel

BATX. 2. maila

“Ikusten ez duen begiak negarrik ez”

BARKAMENAK EMANGO DIDAN BAKEA

“Zer egingo zenuke zure bizitzari urte bete gelditzen zaiola esango balizute?” Iragarki bateko esaldi bat dirudi, ezta? Munduko emakume eta gizon ederrenekin eginiko iragarki baten amaieran jaurtitzen duten esaldia. Kale printzipaleko eraikin nagusiaren fatxadan eskegita dagoen mezua, azpian luxuzko autoen sinbolotxoaren distirarekin. Edo aldizkarietako atzeko orrietan agertzen den esaldia, nortasun-testaren atalean, erantzunaren arabera “ausarta” edo “zuhurra eta gogoetatsua” zarela esaten dizuten horietako batean. Jendeari galdera hau eginez gero, erantzunak beti izaten dira antzekoak: Lana edo ikasketak pikutara bidaliko nituzke, bizitzako bidaiarik ikusgarriena egingo genuke, edota familiarekin ahalik eta denbora gehien pasatuko nuke. Bai, familia...

Orain dela egun batzuk hau galdetu izan balidate seguruenik antzeko zerbait erantzungo nukeen, baina medikuaren ahotik entzundako sententziak segundu batean lurrundu ditu aurrez pentsatutako ideia eta azalkeria guztiak. Burura datorkidan hitz bakarra hau da: Ez. Ukapen hutsa. Amaren negar-zotinek atera naute nire gogamenean askatzen ari den batailatik, baina amesgaizto batean esnatu naizela sentitzen dut, nire bizitza bihurtu den amesgaiztoan.

Etxera eraman nau amak, kotxez. Bidaia luzea izan da baina ez gara hitz bat esateko gai izan. Amak irratia piztu du, isiltasun honek itoko gaituenaren beldur izango balitz bezala, baina ez du ezertarako ere balio izan, gure isiltasunak kazetariaren ahotsak baino ozenago egin du hitz eta. Portalaren aurrean utzi nau eta besarkada handi bat eman dit. Batak besteari aurrez aurre begiratu diogu eta begi ertzetatik malko batzuk irtetzen ari zaizkiola ikusi dudanean eskuekin hauek lehortu eta ez kezkatzeko esan diot, hori esateak zerbait konponduko balu bezala.

Etxean sartu bezain pronto estutasun sentimendu batek hartu nau, baina ez naiz negar egiteko gai izan. Lasaitzeko disko-jogailuan zerbait jartzea erabaki dut eta ohean etzan naiz. Frank Sinatraren disko bat aukeratu dut, aitaren gogokoena. Bere irudia etorri zait burura, badira urteak berarekin hitz egin ez dudala. Bere oroitzapenek nostalgiaz bete naute baina laster baztertu ditut pentsamendu hauek, hobe gauzak

dauden moduan uztea, egoera hau gehiago nahastea behar dudan azken gauza baita. Abestian kontzentratu naiz, Sinatraren ahots dotore eta indartsuan, “but where are the clowns, send in the clowns...”, eta amesgaizto honi ordu batzuetako etenaldia eman diot. Hala ere, loan murgilduta ere... Ez! Ez!, ukapenak hor dirau.

Etxeko telefonoak esnatu nau, Aroa da. Deia hartu eta negarrez egon dela nabaritu diot, ahotsa urratuta baitauka. Mugikorra begiratu dut eta hamar galdutako dei ditudala konturatu naiz, Aroarenak denak. Barkamena eskatu diot, mugikorra isilunean neukala eta lo geratu naizenez bere deiak ez ditudala ikusi. Ez arduratzeko esan dit, amak berria kontatu bezain pronto ni ikusi nahi izan nauelako deitu didala eta berarekin kafe bat hartzera joateko gopurik daukadan galdetu dit. Baietz erantzun diot, dutxatu eta hogei minututan betiko kafetegian geratuko garela. Dutxan sartu naiz eta ura bero bero jarri dut, ohi dudan bezala. Txikitan amak halako batean dutxan urtuko nintzela esaten zidala gogoratu dut eta irribarre bat atera zait aurpegitik Arrapaladan jantsi, kalera irten eta kafetegirako bidea hartu dut. Udaberria den arren hotz handia egiten du eta ilun dago zerua, eguraldiak nire sentimenduekin bat egiten du. Kafetegira heldu eta jesarrita ikusi dut Aroa, bere pentsamenduetan murgilduta, begiak gorrituta ditu.

Bere mahaira hurbiltzen hasi naiz eta ikusi nauenean altxatu eta estuki besarkatu nau. Hizketan hasi da, konpultsiboki, urduri dagoen bakoitzean egiten duen bezala. Bere eskua hartu dut lasaitzeko asmoz eta laster ulertu du mezua. Jesarri egin gara eta ea zelan nagoen galdetu dit. Ondo nagoela erantzun diot, oraindik medikuak esandakoa asimilatu behar dudala baina batez ere amak kezkatzen nauela. Orduak eman ditugu haurtzaroko oroitzapenez hizketan eta behin baino gehiagotan aurkitu dugu geure burua negar eta barre algaraz. Iluntzen hasi denean etxera lagundu nau eta, atean sartzen nagoela, aitari kontatuko diodan galdetu dit. Izugarri harritu nau galderak, nahiz eta nire lagunik kuttunena izan gutxitan egiten baitut aitaz berba Aroarekin eta zer esan ez nekiela, sorbaldak jaso ditut. Nire etxera heldu garenean berriz ere besarkatu dugu elkar, eta mesedez bihar dei bat egiteko eskatu dit.

Etxean sartu naizenean mahai gainean amaren ohar bat aurkitu dut. Afaria egin didala jartzen du, sukaldeko mahai gainean utzi duela eta munduan gehien maite duena naizela. Sofan afaldu dut amak egindakoa, pozik. Txikia nintzenean ez zitzaidan batere gustatzen amak sukaldatutakoa, baina atzerrira dantza ikasketak egitera joan nintzenetik nire jakirik gustokoenak bihurtu dira. Film bat ikusten hasi naiz afaldu bitartean baina ez diot kasurik egin, Aroak galdetutakoa baitaukat gogoan. Izaren artean sartu eta normalean transmititzen didaten babes sentsazioaren ordezkari bakardadea sentitu dut. Sentimendu hau saihesteko amaren irudia saiatu naiz ekartzen burura, baina aitarena baino ez da agertu.

Dantzalekuko aldageletan nago, kideekin hizketan eta dantzarako punta-oinetakoak jartzen. Berriro errepikatzen dut hainbat urtetan zehar eginiko prozesua: Punta-oinetakoei kolpetxo batzuk ematen dizkiet zoruaren kontra pixka bat biguntzeko, tiritu batzuk jartzen ditut behatzetan, paperezko toaila bat jartzen dut oinaren inguruan eta punta-oinetakoak janzten ditut. Oinetakoen begiztak lotzen ditut orkatilen inguruan, gogor, dantzan nagoen bitartean ez askatzeko. Dantza pistara abiatu eta luzatzen hasi naiz nire dantza kideekin batera. Harritzen nau zenbat lagun on egin ditudan dantzaren mundan, lehiakorregia den lanbide honetan bakardadea baino ez bainuen espero. “The Royal Ballet”-eko lehen dantza klasera sartu nintzenetik, andereñoek balletaren mundua

lehiaketa bat dela gogorarazten ninduten egunero, “a rat race”, eurek deitzen zuten bezala.

Beroketa amaitu dugunean musika jarri du maisuak. Hurrengo barikuan “Kraskagailua” obra antzeztuko dugu Londresen eta antzezlanen aurreko asteetako entseguak oso gogorrak izaten dira. Agian nire bizitzako azken ballet antzezlan izango delaren ideiak izugarriki mindu nau. Dantzan hasi naiz, “pirouette”-ak eginez, oin puntetan jarritz eta pistan zehar flotatzen egongo banintz bezala mugituz. Dantzan gehien gustatzen zaidana beti izan da nire burua hustu egiten duela, kezka guztietatik libre utziz, baina gaur ezinezkoa egiten ari zait. Haurtzaroko oroitzapenek bete dute nire gogoa, aita nire heroia zen garai hartakoak. Izugarri maite nuen, bere ondoan munduko erronkarik zailenak gainditzeko gai nintzela uste nuen. Neskari zorionsuena egiten ninduen, eta baita ama ere. Baina denborarekin gauzak okertzen joan ziren. Ni nerabea nintzela osaba istripu batean hil eta aita depresio sakon batean hondoratu zen. Lana galdu zuen eta baita lagunekin eta familiarekin egoteko gogoa. Bere bizipoza itzali egin zen erabat. Errealitatetik ihes egiteko nahiarekin edaten hasi eta urte beteko epean alkoholiko hutsa bihurtu zen. Etxera mozkortuta heltzen zen bakoitzean amarekin liskarretan hasten zen. Gauero entzuten nituen nire logelatik amaren negarrak, inpotentziak hartuta, nola lagundu bizi nahi ez duenari? Bat-batean nire heroia izan zen gizona izaki triste eta zaputza bihurtu zen. Etxea eta familia utzi egin zituen. Parkaezina. Aita mespretxatzen nuen. Hortik aurrera amarekin bizi izan naiz, Londresera ballet ikasketak egitera joan nintzen arte. Ez dut jakin ezer aitaz ordutik.

Aitaren irudiak nigan eragiten dituen kontraesanak beti atsekabetu naute eta tormentu hauen ondorioz ez dut berarekin harremana berreskuratzeko saiakerarik egin. Baina mundu hau utzi aurretik berarekin hitz egin behar dudala sentitzen dut, helduen arteko elkarriketa bat behar dut, haren zergatiak ulertzeko. Ukapenak tokia egin behar dio bakeari. Entsegu amaitu bezain laster aitaren telefono zenbakia markatu dut. Dardarka nago deiaren doinuak entzuten ditudan bitartean.

-Bai? Nor da?



Mikel Gomez Jauregi
BATX 2. maila

“Eta horrexegatik maite zaitut”

NIRE BIZITZAREN MELODIA

Udako egun berotsuetako hotsek, lorez betetako zelaietako animalien soinuekin, gure etxe ondoan zegoen plazan jolasten ari ziren umeen barreekin, poztasunez erreztetzen zidaten bizitza. Horregatik, gogoz besarkatzen nituen bizitza eta bera igarotzeko egunak, ni bizi beharrean, neuk bizi izaten nituen pozarren, pozez. Eta normalean ez nuen egun bat bakarrik gogoratzen, baizik eta egun zoragarriak izateagatik, uda osoa amaigabeko abesti alaia izango balitz bezala gogoan izaten nuen.

Hala ere, egunak joan eta egunak etorri eta nahi gabe, udari berriro agur esaten nion. Nahiz eta inork udazkenari deitu ez, bertan azaltzen zen bere aurpegi tristearekin, bere kolore grisekin, bilusik zeuden arbolekin. Orduan, bazirudien desagertuak zirela sinfonia guztiak, zeren eta udan laguntzen zidaten umeen barreak, txorien kantak, anaiak egindako bromak... desagertzen ziren. Beraz, eskolarik ez neukan udazkenetako arratsalde horiek, irudi zitekeen, ez zeukatela ez erritmorik, ez konpasik.

Aitzitik, nire amarekin pasatzen nituen udazken horietako arratsaldeak ezin izango ditut inoiz ahaztu. Udazkenean egon arren, arratsalde horietan Vivaldik egindako “Udaberria” entzuten nuen beti momentu maitagarri horietan eta nire amak sortutako musikak laztantzen ninduen maitasun osoz.

Ama eta biok munduko orkestra ospetsuenetariko musikagile bihurtzen ginen; eta gure sukaldea, etxeko gela xumeena izatetik Vienako Musikverein aretoa izatera pasatzen zen. Biok sukaldeko tresnen sinfonia jotzeari ekiten genion.

Nik zuri-beltz zen amantal bat jartzen nuen neure buruan. Amantal hori handiegia zen niretzat, baina nire ustez, smokin dotorena zen, eta harro nengoen; prest, eskenatokian ager nendin.

Eskatzaren erdian zegoen eta dagoen egurrezko mahai zaharra gure arratsalde txalapartari haietako lekukoa zen. Musikagileok mahai gainean partitura jartzen genuen momentua ailegatzen zen. Partitura sol klabea zegoen eginda, mantel urdin bat zen. Bakoitzak eskina batetik heltzen genion mantelari eta erritmo berberean eta konpas berberean estaltzen genuen gure egurrezko mahai zaharra.

Behin gure partitura jarrita, mantelaren gainean, alde batean afinaturik zeuden gure musika tresna guztiak jartzeari ekiten genion, gure melodia has zedin.

Bertan zeuden; milaka kontzertutik pasatutako neurriak hartzeko ontzia, irina kolatzeko koladorea, irabiagailua, osagai guztiak nahasteko kristalezko ontzi handia eta ateratzen genuen azken tramankulua zen gure musika tresnarik preziatuena, gustukoena, nire amamak amari oparitu zion batuta, egurrezko goilara, hain zuzen ere.

Goilara hori olibondo egurrezkoa zen eta nire amamak Bilboko alde zaharrean zegoen denda txiki batean erosi zion amari, bera ezkondu zenean. Goilara horrek, erosi zutenean, ez zezakeen imajina munduko zuzendari onenaren batuta izango zenik. Nire ama batuta horrekin, edozein motatako melodía aurrera eramateko gai zen; pil-pil makailutik arrautz frijitura ... eta den-dena, nahiz eta noizean behin, notaz nota partiturari jarraitu ez, beti konpasa galdu barik amaitzen zuen kontzertua.

Mahaiaren beste aldean, nota guztiak, osagai guztiak; lau arrautz “do” klabea, obrari gorputza emateko irina, partituraren tentsioa igotzeko legamia, azukrezko nota gozoak, minuettorako Danone yogurta naturala eta alegretto lortzeko txokolate beltza.

Orduan bai, dena zegoen prest gure melodia jotzen has gintezen. Musika tresnak eta nota guztiak urduri azaltzen ziren eta zuzendariok seinalea noiz eman zain egon ohi ziren. Amak eta biok elkarri begiratu ostean, lehengo notak entzuten has zitezkeen.

Amak bere esku jakintsuekin nire esku traketsak gidatzen zituen. Bere eskuak zabalak ziren, baina zeuzkan hatzamarrak luzeak ziren, pianojole onenak bezalakoak. Esku horiek, txikia nintzenean altxatzen laguntzen zidaten, gaixorik nengonean maitasunez laztantzen ninduten eta beti, beti nireekin batzeko prest egon dira, inork baino hobeto ezagutzen nindutelako. Eta orain, nire ondoan ez badaude ere, beti nire aurpegian sentitzen ditut.

Lehenengoz, beti bezala, do nagusia jotzen genuen gure melodiari hasiera emateko. Horretarako, maitasunez garbitutako lau arrautzak ontziaren aldean apurtu eta, kontu handiz oskola zatirik barrura ez jauzteko, botatzen genituen. Horren ostean, melodiaren lehengo alegretto azaltzen zen irabiagailuaren eskuaren bidez. Botatako arrautzak irabiatzen genituenean “re” borobila entzun ahal zen. Nota gozoak azukreari esker lortzen genituen, eta jarraian bigarren alegretto, irabiagailua berriro erabiltzen genuenean.

Pixkanaka-pixkanaka elkarrekin egiten genuen abestia gure bizitzako melodíaosatzen zihoan.

Minuettoaren aldia ailegatzen zen, eta kristalezko ontzian yogurta botatzen genuen, beti egurrezko batutaren laguntzaz. Minuettoa eginda hirugarren alegretto

jotzen genuen, jakinda hurrengo pentagraman melodiaren gorputza jotzea tokatzen zitzaigula. Behin irina botata, klimaxa ailegatzen zen legamia nahastean beste alegretto baten bidez. Orduan, burdinezko ontzi batera egindako melodia botatzen genuen eta azken eta gozoen zegoen alegrettoa jotzen genuen, txikitutako txokolate beltza gainetik botatzean. Hori egiten genuen bitartean, amak eta biok, gaur oraindik errepikatu ahal izango nituzkeen umeen kankak abesteari ekiten genion, gure melodia eginda zegoela genekielako.

Nire amak egurrezko goilara erabiliz, orkestra hau guztia zuzentzen zuen. Leku batetik nota bat hartu, beste toki batetik beste bat...eta horrela, prisa barik, lortzen genuen melodia aurrekoa baino politagoa zen beti.

Azkenik, amak bere ikasleari, niri, batuta uzten zidan eta nik ontziari azken erredoblea ematen nion. Behin erredoblea emanda, orkestako zuzendariak “koda” jotzeko agindua ematen zuen. Umeak hurbildu ezin zitezkeen leku batean, labean, egindako melodia sartzen zuen.

Handik berrogeita bost minutura geuk eginiko melodia zeruan bizi diren aingeruek beraiek entzuteko musika bilakatuko zen.

Labean, egindako nahasia poliki-poliki forma hartzen bazihoan ere, berrogeita bost minutu horiek, luzeak baino luzeagoak egiten zitzaizkidan. Labeko atearen aurrean jesartzen nintzen. Atetik barrurantz begiratzen nuen eta ez zegoen inor hortik kenduko ninduenik. Bertan berotasuna eta usain gozoa nabaritzen nituen eta gainera ikusten nuen nolako konpasak sortzen ziren.

Denbora amaiezin hori pasatzen zenean, zuzendariak eskularruak jarrita labetik kanta eginberria ateratzen zuen mimo handiz eta ontzitik maitasunez ateratzen zuen eta plater berde batean jartzen zuen.

Momentu horretan amak eta biok elkarri begiratzen genion eta elkarri ezer esan barik barre egiten genuen, gure kanta amitutzat ematen genuelako. Eta ni orkestako solista bihurtzen nintzen. Amak ia ezer ebakitzen ez zuen ganibeta bat nire eskuan jartzen zidan, eta bibolinetako arkoa izango balitz bezala, geuk egindako bizkotxoan jotzen nuen lehengo pentagrama, oraindik berotuta, jan nezan. Egia esan, ez dakit beste musikagileek egiten duten musikak zaporerik daukan. Hala eta guztiz ere, oso argi daukat nire amak egiten zuen melodiaren zaporea beti nirekin bihotzean daramadala.

Gaur, urtero gertatzen zaigun bezala, ezer esan barik kolore grisak gurekin denboralditxo bat ematera datoz eta arratsalde ilunak luze-luzeak izaten dira. Nahiz eta urte asko pasatu diren, eta hainbeste aldiz gidatu ninduten esku horiek nirekin ez dauden arren, amaren batuta dagoen sukaldeko bazterrera joan naiz. Eskuan hartuta, nire amantal zaharra jarri eta mahaia, erabiltzen genuen pentagramarekin jantzi dut, ondoren amak eta biok lehen egiten genuen moduan musika tresnak eta nota guztiak mahai gainean jarri ditut, orquesta berriro martxan jarriko nahi dudalako.

Seguraski, gaurko melodia ez da izango hain alaia, ezta hain gozoa ere; baina beti eramango dut nire bihotzean, nire bizitzako abesti ahaztezina; ama zenaren oroitzapena.



Oleksandra Mazur

BATX 2. maila

“Bizitza ez da beti alai, noizbait tristea ere bai”

SUSTRAIAK

Petalo gorriek ikusarazten zuten ilunpetan edo planeta galdu bateko lekuren batean ere. Zurtoinaren kurbak bere feminitatea nabarmentzen zuen. Usain indartsu baina atseginak bakarria egin zuen mundu honetan. Edo agian ez guztientzat, bakarrik berarentzat. Zurtoineko arantzek ukiezin eta apetatsu bihurtu zuten. Baina inork ez daki arantza horien atzean arima samur eta hauskor bat dagoela. Arantzengatik ez balitz, berehala hautsi eta zapalduko zen. Arantzak babesa dira harentzat eta mina besteentzat. Bat-batean sentitu nuen min hori nire neskalogunak urtebetetzean oparitu zidanean. Harrigarria bada ere, egun honetan mundu osoak irribarre egin beharko lizuke, eta hemen lore batek zure hatz txikia kaltetzen du, oraindik esperientziarik lortu ez duena, denboran zehar desbideratzeko. Odol tanta handi bat gelditu zitzaion petaloan, arrasto bat utziz. Jakina, norbaiti min ematen diozunean, zauri horren marka geratzen zaizu. "Zer egin dizut?" Pentsatu nuen eta nire egoiliar berria jarri nuen leiho ondoko lorontzi batean. Biharamunean konturatu nintzen nire arrosa leihora itzuli zela, luzatu egin zela norbaiten bila bezala. Bigarren solairutik gora eta, agian, zuhaitzaren gainetik dagoen norbait, urte asko eta maila asko dituen. Nire hatz txikiko zauria oraindik sentitzen ari zen, baina hain ederra eta misteriotsua zenez, ordu luzez eseri ahal izango nintzen haren misterioa argitu nahian. "Nola izan zaitezke hain ederra eta gaiztoa?" Sarritan galdetzen zion. Hala ere, emakumea isilik geratu zen.

Egun batean ura aldatu eta hizketan hasi nintzaion. (Txakurrekin hitz egiten duen familia batean hazitako haur batentzat, hau normala da). Uste nuen ulertzen zidala, eta petaloak mugitzen zizkiola. Nire ahizpa konturatu zen horretaz, eta barre egiten hasi zen ni ez nengoela ondo. Hau da haur bati gerta dakiokeen gauzarik txarrena. Hil itzazu ametsak errealtatearekin. Miraria uxatzen du, aingeruenganako fedea, Nikolas. Haztea eta ume bat agurtzea deitzen diozu. Eta nik astronauta izatearekin amets egiten zuen "ume bat hiltzea" deitzen diot. Ura aldatuz, begiratu eta esan nion: "O, ez dit axola isilik zaudenean..." Hasieran ulertezina zen, zetazko oihalen xuxurla bezala. Nire gonbidatuarengana jiratu nuen burua, leiho-ertzean zutik baitzegoen, eta bere petaloak pixka bat mugitzen ikusi nituen. Ezin nuen ulertu, nire ahizpa helduaren ahotsa buruan nuelako eta ezin nuelako itzali, 10 urteko aurrerapenarekin programatu izan banindu

bezala. Baina loreari begira, xehetasunez begiratu, esaldi ezagun bat entzun nuen: "Hitzek elkar ulertzeko baino ez dute oztopatzen". Esaldi ezagun samarra, baina gogoratzeko zaila.

- Barkatuko zenidake zure hatz txikiagatik barkamena eskatzen hasten banaiz?
- Norbaitek zuri eman ez zizkidan aitzakiak bilatu, nekatuta nengoen eta ez nuen zure hatza ikusi...?
- Agian haserreago egongo nintzateke.
- Batzuetan hitzak soberan daude eta gaizki ulertzen dira. Horregatik asmatu zen isiltasuna egia sor zedin.
- Zergatik ziztatu nauzu? Zergatik ez dituzu arantzak ezkutatzen?
- Ezkutatzen badituzu, min emateari utziko diotela uste duzu?
- Orduan zurtoin leuna izango duzu eta ezin izango duzu ziztatu.
- Pertsonak azal leuna dute, leuna, baina etengabe zulatzen dute.
- Jendeak ere arantzak ditu?
- Bai, gutako bakoitzarean barruan ezkutatuta daude, batzuetan beste pertsona batzuk ziztatzen dituzte. Batzuetan barruan ernatzen dira, pertsona bat barrutik ziztatuz eta min emanez. Ez du axola kanpoan edo barruan arantzarik dagoen. Garrantzitsua da gutako bakoitza kontuz tratatzea, denok baikara arantzatsuak, baina hauskorak oraindik, denok hautsi gaitezke.
- Seguruenik zaila izango da arantzekin bizitzea, ezta? Horregatik zaude hain triste...
- Triste nago joaten utzi zuelako.
- Nor?
- Beti nirekin egon zirenengatik, zaindu nindutenengatik, birentzako planeta bat genuenengatik. Ikusiko duzu, planeta oso bat non ezin zaren galdu, non bi bakarrik dauden.
- Arrosa, nori buruz ari zara?
- Nire printze txikiari buruz, burua makurtu eta jiratu egin nintzen gerezi doinuz.
- Itxaron, hemen zaude.
- Itxaron, B-612 planetako printze txiki horretaz ari zara?
- Bai, B-612.

- Zu al zara, arantzadun arrosa apetatsu hori?
- Hau da niri buruz idatzita dagoen guztia? Arrosa arantzaduna eta guzti?
- Zer gehiago idatzi zutaz? Printzeak planeta utzi du, eta zuk ere bai; hori da zure historiaren amaiera.

Arrosak leiho aldera jaso zituen petaloak eta isilik geratu zen. Gero isiltasuna eten zen:

- Esnatzen zarenean, zer egiten duzu lehendabizi?
- Amaren bila nabil.
- Zergatik?
- Ez dakit, oraindik ez dut ulertzen zergatik, esnatu berritan, baina amari deitzen diodanean, lasaiago eta seguruago sentitzen naiz.

Hitz horien ondoren, pentsatu eta isiltzea erabaki nuen. Rosek ahapeka jarraitu zuen:

Beste goiz bat zen. Orduan hotz handia nuen. Esnatu zinenean, zu bezala, oihuka hasi zinen, pentsatzen duzun norbaiti begiak irekitzen dituzunean, zuretzat garrantzitsua den norbaiti. Hala ere, isilik geratu zen. Isilik geratu zen planeta honetan ez zegoelako. Ez zegoen han, baina denak gogorarazten zion: oinatzak lurrian, pala bat lurra zaintzeko. Eta ni, haren parte sentitzen nintzena, baina ezin nion jakinarazi. Zaila da ederra, hauskorra, errukiorra eta batez ere ahula izatea. Ni sortuta, nire sortzailea konturatu zen lan hori zaila izango zela, eta horretarako arantzak asmatu zituen, batzuetan zapaltzen utziko ez zizkidatenak. Baina jendea mindu ez zezan, adeitasun handia erantsi zidan, denak nahastuz. Inork ez du pentsatuko arrosa arantzatsu eder batek gehiegizko adeitasuna duenik. Eta arantzarik gabe ez legoke misteriorik. Asmakizunik gabe, jendea aspertu egiten da. Nire printzea ere nekatuta dago monotoniaz. Beraz, desagertu egin zen. Jendeak desagertzeko joera du. Ez dute aukeratzen eguna argitu edo ilundu arte itxarotea, joan egingo dira. Goizean jaiki eta bilatuko dituztenengan pentsatu gabe. Bai, nire printzearen bila nenbilen bitartean. Zure gizon galdua. Eguna haizeek eta zero azpiko tenperaturek eragindako hotzean igaro ondoren, indarrak galtzen joan nintzen pixkanaka. Petaloak astun bihurtu zitzaizkidan eta bat-batean gizon baten silueta ikusi nuen. Baina ez zen bera izan. Bidaiari bat zen, traje grisarekin, beira pixka bat zuen buruan eta ez dut gogoratzen zer gertatu zitzaidan gero.

Begiak ireki zituen ahots ezberdinak entzuteko. Ehunka arrosa zeuden. Ez al naiz bakarra? Ni bezalako asko daude. Hala ere, bere petaloen kolorea nirearen desberdina zen. Larrosa horiek petaloen kolorea eta forma aldatu zituzten, eta iruditzen zitzaaien horrek bakarrak, ederrenak egingo zituela.

- Zergatik egiten duzu zeure buruarekin, ez zaizu zure kolorea gustatzen? Ikaraz galdetu nion.

- Gure printzeei gustatzen zaie. Beno, horrela nabarmentzen gara beste kolore batzuetatik.

- Nire printzeak ez lidake inoiz onartuko petaloen forma edo kolorea aldatzea. Benetakoa nintzela iruditzen zitzaidan, baita petalorik ilunenarekin ere, beste guztietatik ezberdina. Izan erreala, horrela besteengandik desberdina izango zara. Zure edertasuna benetakoa da eta zuk artifizial bihurtzen duzu. Gorputz artificial batean maizegi badago, orduan ingurunea horrekin infektatuko da.

- Zure printzeak ez zizula itxurarik aldatzen utziko diozu, baina nola utzi zintuen zu hemen sustrairik gabe egoten?

Eta orduan arrosak, izuturik, beherantz begiratu zuen, eta bere sustraiak moztuta zeudela ikusi zuen. Malko bat isuri zen bere petaloetatik, hau izan zen ziurrenik bere lehen malkoa, hain garbia izan zena, ezen lore guztiak itzali baitziren, edertasunezko mundu honetan zerbait naturala ikusiz.

- Nire sustraiak hemen jende gutxik ezagutzen duen planeta txiki batean dauden arren, ez dut ahaztuko. Edonon nagoela ere, ondo sentitu nintzen lur zati hura gogoratzen dut. Denek entzuten didate? Zurekin nago orain, eta nire sustraiak B-612 planetan daude.

- Zerk kezkatzen zaitu? Mirariak posible diren planeta batean zaude. Sustrai berriak aurkituko dizkizugu orain, noski, min pixka bat izango du, baina berriak sustraiak botako ditu zuga eta biziko zara, - Arrosak baretu egin dira.

- Ez, sustrairik gabe hilko naiz. Berri bat irakatsiko balidate ere, neure burua galduko dut, neure burua.

Beste arrosa batzuek ez zioten jaramonik egin horri, nahiz eta haietako gehienek sustrai errotuak izan, baina haien edertasuna eta printzearen aintza garrantzitsuagoak ziren haientzat.

- Esan duzu mirariak posible direla planeta honetan?

- Beno, hemen dena da posible.

-Aurki dezakezu nire printze txikia?

-Planeta egokian zaude. Horietako asko daude hemen. Baina hemen, aitzitik, aurkitu egin behar zaitu. Argazki bat atera behar zaitugu horretarako?

- Zergatik?

- Tira, printzeak begira zaitzala, begira zaitzala. Eta erabakiko duzu zure printzea den ala ez.

- Eta zure arrosa ezagutzeko, ez duzu usaindu behar. Familiako usaina, berezko zerbait sentiarazten diona.

- Dena konplikatzen duzu. Printzeak ezagutzen zaituen zeure usaina izateko, benetakoa izan behar duzu. Lore artifizialek ezin dutelako beren lurrinik izan.

- Zer gertatzen da kontu horrekin? Kezkatu egin behar du, eta gertutik begiratu bere arrosari.

- Luze joko duzu, oso arrosa kementsua zara. Alferrikakoa izango zara berarentzat, gure lore-munduan zu bezalako asko daudelako. Eta ez dute denbora asko behar.

- Zure planeta oso bitxia da- esan nuen haserre, eta inguruko guztia aztertzen hasi nintzen.

- Arraroa zara. Gu guztiok ez bezalakoa zara. Ez dut astirik zurekin hitz egiteko.

Pentsatu eta ingurura begiratu nuen. Bat-batean konturatu zen bere inguruko guztiak kezkatuta zihoazela korrika. Han, altueran, dena askoz errazagoa da: dena motelagoa da, aurreikusitakoaren arabera: eguzkiak badaki noiz altxatu eta noiz atsedean hartu. Dena harmonian dago. Hemen, aitzitik: arrosa noizbehinka bere helburuaz ahazten zen abiadura eta zarata, bila dabilena. Zarata horrek guztiak ito egiten zuen, ez zion uzten bere ahotsari buruan esaldi bat entzuten.

Eta orduan, bat-batean, norbait nire aurrean gelditu zen. Eskua luzatu zitzaion, baina arantzak ikusi zituenean, paperean bildu zuen. Ahul sentitu nintzen, sustrairik Gabe hiltzeko zorian nengoelako. Begiak irekitzean ikusi nuen papera kendu zidatela eta norbaitek eusten zidala. Behatzak printzea gogorarazten zion norbait, baina erabaki nuen beste engainu artifizial bat zela planeta honetan, eta hatz txikia zulatu nuen. Odol tanta bat ikusi nuenean, zerbait naturala sentitu nuen nire planetan.

- Arrosa, nitaz ari zara orain? Itxaron, ahula zara, ura aldatu behar duzu.

Dena ondo dago. Oraindik badut indarra. Esaiezu arantzak misterio bat direla, barrutik zerbait hauskorra estaltzen duena, eta nik maite nuena. Arrosa apetatsua han geratu zen, eta ni hemen nago. Ez dago gutiziarik. - Ahotsa lasaiagoa zuen.

- Tshh, lasai, dena kontatuko dizut, deskantsatu, nire landare txiki arantzatsua.

Goizean, arrosa ihintzez estalita neukan, eta naturala zen mundu honetan. Hala ere, berak ez zien nire eskaerei erantzun. Horrela gogoratzen dut oraindik. Horregatik ez zait gustatzen sustrairik gabeko loreak oparitzea. Sustraiak garrantzitsuak dira.

Olatz Lejarza GIII - 2 HHI/EPA
Aldita Chávez GIII - 2 HHI/EPA
Tislem Mohamed GIII - 2 HHI/EPA

*“Presaka ibiltzeko beharrik ez. Distira egiteko beharrik ez.
Inor izateko beharrik ez, norbera izan ezik”.*
Virginia Wolf

KOLORE ASKOTAKO BIZITZAK ESKOLA BAKAR BATEAN

Nik ez dut izan ume edo nerabe arrunt batek izan duen gaztaroa. Bizitzan aurkitu ditudan zailtasunak direla eta, ezin izan nituen ikasketak bukatu.

1997ko apirilean jaio nintzen. Lau urte nituela banandu ziren nire gurasoak. Gutxira, aitag neska lagun bat aurkitu zuen, geroago bere emaztea eta nire bi neba txikien ama izango zena, orain banatuta dauden arren. Nire azken haurtzaroko eta nire lehen nerabezaroko oroitzapenak ez ditut batere gustuko; eskolan eta institutuan bullying-a egiten zidaten, batez ere Heziketa Fisikoko saioetan. Heldu zen urte bat institutuan, non nire turorea zen andereñoak ere bullying-a egin zidan. Ez nekien zergatik eta inoiz ere ez nien galdetu.

Hamar-hamasei urte bitartean, oso gaixo egoten nintzen buruko min itzelekin, zorabioekin eta larri. Hain gaixo ipintzen nintzen, Galdakaora eramane behar izan baininduten, eta batzuetan ospitalean geratzen nintzen klasera joan ezinik; medikuek ariketa fisikoa egitea ere debekatu zidaten.

Nire unerik mingarrienetako bat hemezortzi urte nituela izan zen, amona gaixotasun batek jota hil zenean. Denboraldi batez errudun sentitu nintzen haren heriotzagaitik, errua nirea ez zela jakin arren. Beti berarekin bizi eta gero, bat-batean joan zen. Amona izan arren, niretzat bigarren ama ere izan zen, harekin batera hazi bainintzen.

Orain aitarekin bizi naiz, eta batzuetan nire anai txikiak ere etxean egoten dira. Eskolara joaten naiz egunero, eta datorren urterako espero dut Bigarren Hezkuntzako titulua lortzea. Etorkizunean pertsona nagusiei laguntzea gustatuko litzaidake.

Aldita naiz eta Filipinetan jaio nintzen, Tacloban hirian hain zuzen, baina Manilan hazi nintzen, zeren nire aitak bertan egiten zuen lan. Hamar urte geroago, Taclobanera bueltatu ginen berrir; txikia nintzenez, ez nuen ulertzen zergatik bueltatu ginen. Handik eta hilabete batzuetara, nire aitak etxetik joatea eta gu bakarrik uztea

erabaki zuen, lana zela-eta. Momentu tristea izan zen niretzat, Taclobanen jarraitu baigenuen gure bizitza, baina aitarik barik.

Urteak igaro ziren eta nik Lehen Hezkuntza amaitu nuen, oraindik nire aitaren berririk jaso gabe; gutun soil bat ere ez zigun bidali. Bitartean nire amak arroz-baserri batean lan egiten zuen eta auzokideen arropak garbitzen zituen, dirua izan genezan janaria erosteko. Hamabi urte nituenean, arrain eta barazkien merkatuan hasi nintzen lanean, plastikozko poltsak saltzen, amari laguntzeko etxerako dirua irabazten.

Egun batean, amak esan zigun aitak bere bizitza berregin zuela beste familia batekin. Ez dugu hitz egiten horretaz, baina oraindik mina sentitzen dugu.

Bizitzan zailtasun askorekin egin dut topo. Beti pentsatu izan dut zorte ona dudala hain ama ausarta izateagatik. 40 urte pasatu dira hori guztia gertatu zenetik. Orain, anaia Australian dago, arreba Qatarren eta ni Euskal Herrian. Gure bizitza ez da perfektua baina ederra da.

Teslem naiz, 22 urte ditut eta sahararra naiz.

Aljeriako Dajla hiriko errefuxiatu esparruetan jaio nintzen. Erbi-ezpain eta ahosabai-arrailarekin jaio nintzen; horregatik 3 urterekin Espainiara eraman behar izan ninduten, eta harrera-familia espainiar batekin utzi. Familia hura izan zen haurtzaro ederra eman zidana, non gauza asko ikasi nituen eta errekuiperatzen hazi nintzen. Haiei esker, osasuna hobetu nuen eta ikasten hasi nintzen.

Baina aita eta arreba saharauiak hil ostean, nire ama bakarrik eta triste geratu zen; hori dela eta, hamabost urterekin errefuxiatu-esparruetara itzuli behar izan nuen. Oso garai zaila izan zen niretzat: ez nuen nire herriko hizkuntza ezagutzen, ezta kultura ere, eta are gutxiago erlijio musulmana, haurtzaro osoa eta nerabezaroaren zati bat Espainian pasatu baintuen.

Saharan, urte haietan zehar, Hassania arabiera ikasi ahal izan nuen, baita nire kulturan txertatu ere. Zaila izan zen, presiopean sentitzen bainintzen; bakarrik sentitzen nintzen eta iruditzen zitzaidan inork ez zuela ulertzen nire egoera. Ez nuen nire familia ezagutzen, eta iritsi zen garai bat non ni neu nor nintzen ere ez nekiela. Ez nekien nola jokatu behar nuen, beste hainbat gaien artean; baina pazientziarekin eta errealitatea onartuz, alderdi guztiak hobetzen hasi nintzen.

Bi mentalitate eta bi kulturekin bizitzen ikasi dut. Egun, Euskadin nago finkatuta, bizitzako etapa berri batean. Bi familia ditut eta oso zorioneko sentitzen naiz.

Ana Alonso GIII - 4 HHI/EPA

Tamsir Ndoye GIII - 4 HHI/EPA

*“Pobrezia ez da naturala, giza sorkuntza baizik.
Gizakien ekintzen bidez gainditu eta desagerraraziko da”.*

Nelson Mandela

TAMSIR NAIZ

Tamsir Ndoye naiz, 34 urte ditut eta Senegalen jaio nintzen.

Nire bidaiaren zergatia eta Euskal Herrira nola iritsi naizen kontatuko dizuet.

Denok dakigu Afrikako bizi-baldintza bereziki zaila dela, batez ere Frantziako kolonietan. Familiarekin bizi nintzen. 2010ean serigrafia tailer batean hasi nintzen lanean, baina irabazten nuen apurrarekin ez nintzen iristen nire etxeko gastuak ordaintzeko. Nire familiaren etorkizuna hobetzeko irtenbide bat bilatzea erabaki nuen, nire herrialdea uztea.

Internet bidez lan eskaintzak bilatzen hasi nintzen Marokon, hori baitzen errazena, bisarik gabe bidaiatzea. 2016ko urtarrilean atera nintzen Senegaletik Casablancara. Lan bila hasi nintzen nire arloan, hau da, serigrafian, eta tailer bat aurkitu nuen, eskarmentu handiko serigrafo baten bila. Hala ere, aste batzuen buruan ikusi nuen bost pertsonen lana egiten ari nintzela. Hilabete batzuetan soldataren zati bat bakarrik ematen zidaten, eta itxaroten egoten nintzen, baina alokairua eta janari-gastuak ordaindu behar nituen. Hau ikusita erabaki nuen uztea. Beraz, lanik gabe geratu nintzen eta une gogorrak igaro nituen alokairua ordaindu eta janaria erosi ezinik. Zorionez, egun batzuetan mutil batek eta beste pertsona on batzuek janaria ekartzen ziguten niri eta egoera berean geunden beste lagun batzuei.

Orduan, Tangerren zegoen mutil batek pateren kontuaz hitz egin zidan, eta nire herrira itzultzeko dirurik ez neukanez eta dena galdu ondoren itzuli nahi ez nuenez, Tangerrera joan nintzen eta han hasi zen benetako abentura. Itsasartea zeharkatu nahi genuen guztiok Tangerren bizi ginen, komunitatean, handik aterako gintuzten paterak prestatzeko. Bederatzi hilabete eman nituen basoaren eta herriaren artean, itsasoa edo Ceutako hesia zeharkatu nahian. Basoan geundenean hesiaren gainetik salto egiten saiatzeko, egunak ematen genituen segurtasun gutxiago ote zegoen zain. Itxaronaldi honetan saguzarren moduan bizi ginen. Gauez bakarrik ibiltzen ginen mendietan, eta gure menu bakarra arroz zuria eta sardinak ziren. Gauero, bi boluntario basoa zeharkatu eta erosketak egiten zituzten hurbilen zegoen herrian. Egunez, isil-isilik, basoan etzanda, mugitu gabe, egoten ginen. Han bertan, egiten genuen txiza eta kaka, eta gailetez, kuskusez eta urez elikatzen ginen egunero. Bederatzi hilabete eman genituen horrela, eta benetan esperientzia gogorra izan zen.

Lehen gaua ez dut inoiz ahaztuko, zuhaitz baten azpian etzanda, malkoak atera zitzaizkidan nire familiaz pentsatuz, utzi nuen gelaz, eta han, zuhaitz baten azpian nengoela ikustean, munduko pertsonarik ahulena sentitu nintzen. Hala ere, nire

abenturaren zergatiaz pentsatzen nuen bakoitzean, nire bihotza harrotasunez betetzen nuen eta indartsuago sentitzen nintzen.

Zoritxarrez, sarritan militarrek basoan edo itsas armadak itsasoan harrapatzen gintuzten, eta orduan kamioietan sartu eta animaliak bezala tratatzen gintuzten. Gu torturatzeko, itsas ertzean uzten gintuzten arropa bustiekin, gaua hotzetan pasatzeko. Goizean goiz, komisariara eramaten gintuzten eta ziegan sartu, gurekin zer egin erabaki arte. Batzuetan askatu egiten gintuzten, baina beste batzuetan urrutira eramaten gintuzten etxerik eta errepiderik ez zegoen lekura, eta han uzten gintuzten itzultzeko zailtasunak izan genitzan.

Saminez gogoratzen ditut merkatuetako zabor edukiontzietan, janari bila ibiltzen ginen uneak, gau izoztuak pasatzen, zubi azpietan lo egiten, haurrak eta haurdunak zorigaitz hura jasaten, eta horrela bizi izan ginen zorioneko eguna iritsi zen arte.

Hamahiru gizon atera ginen 2018ko uztailaren 21eko gauean, 5 lagunentzako zodiac batean, arraunean, Gurutze Gorriaren itsasontzia aurkitu arte. Itsasoaren erdian hartu eta Algecirasera eramaten gintuzten, guardia zibila zegoen saskibaloi-zelai batera, gu miatzeko. Lau egun geroago, Malagako autobus geltokira bidali gintuzten, bertan Gurutze Gorriaren autobusa hartzeko. Gure harridurarako, inor ez zen gure bila etorri eta kalean etzanda geratu ginen. Gainera, oinean min ikaragarria nuen gurutzatzean jasan nuen zauri batengatik. Zorionez, bidean zegoen neska batek sufritzen ikusi eta ospitalera eramaten ninduen. Nirekin geratu zen gau osoan (eskerrik asko, Marta, ez dut inoiz gau hura ahaztuko).

Biharamunean, Ousmanek (Senegalgo nire auzoko lagun bat) eta biok aterpetxe batean egin genuen lo. Gurutze Gorriak bi autobus antolatu zituen iritsi berri guztientzat: bata Bartzelonara eta bestea Bilbora. Nik Bilbokoan sartzea erabaki nuen Mediterraneotik urrun egoteko. Ousmane eta biok 12 orduko bidaiaren ondoren iritsi ginen Bilbora.

Bertan, Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteko Ana Elenak emakume bat ere ezagutu nuen, Urrian, Ana Elenak Harrera elkartearekin jarri gintuen harremanetan. Etxerik ez zuten mutilak hartzen ari ziren Gernikan eta Harrerari esker, bukatu nuen Gernikan. Harrerak lagundu zigun gure pasaporteak lortzen, erroldatzen eta Gernikako HHEn izena ematen.

2018ko urria zen eta gaur egun, hiru urte pasatu ondoren, Afrikan eduki ezin izan nuen bizitza daukat, familia bat sortu dut, lana daukat, ikasketekin aurrera egiten ari naiz..

Eskerrik asko abentura honetan beren eman duten guztiei.

Ezin dut amaitu nire ama izan zen emakume ausarta aipatu gabe; harengatik ekin nion bidaia honi, bere bizitza hobetzearen, baina, zoritxarrez, abentura gogor honek ekarri didan bizitza-aldaketaz gozatu gabe joan da, asko maite duen semearekin igaro ezinik.

Eskerrik asko Amatxu

Nuria Moreno GIII - 4 HHI/EPA
Mansoura Babouid GIII - 4 HHI/EPA
“Bere beldurrak gainditu dituen izango da benetan askea”.
Aristoteles

MANSOURA NAIZ

Mansoura naiz.

SMARAn jaio nintzen 1969. urteko egun batean, Saharar gurasoengandik nire herrialdeko kultur hiriburuan, Mendebaldeko Sahara delakoan.

Nire gurasoek espainiar nortasuna zuten, garai hartan Sahara Espainiako estatuko 53. probintzia zelako. Tamalez, azaroko gau ilun batean nire bizitza zeharo aldatu zen; zoriontsu eta pozik zegoen neska bat izatetik, gerra eta erbestea bizitzera eta oraindik immigrazioaren ondorioak sufritzen jarraitzen duen beste bat izatera aldatu nintzen. Zergatik?

Urteetan, sahararrek manifestazioak egin zituzten Espainiako gobernuaren aurrean, Espainiak nire lurraldean legez kanpoko presentzia zuela salatzeko. Baina 1973an espainiar armadan zeuden saharar askok eta beste zibil batzuk gure independentzia armekin defendatzea erabaki zuten. Azkenik, 1975ean, akordio bat sinatu zuten Juan Carlos I.a erregeak, Hassan II.a Marokoko erregeak eta Mojtar Daddah Mauritaniako presidentek, hiru aldeko akordio batean. Akordio horren ondorioz, Espainiak Marokoko okupatzaileen eskuetan utzi zuen Sahara, eta orduan milaka herritar marokoar kokatu ziren gure lurraldean.

Nire familia inbasioen mehatxupear sentitu zen, eta ihes egitea eta okupazioari erabat uko egitea erabaki zuen. Beste asko bezala, herrialdearen hegoaldera joan ginen, bizitza berri bat hasteko asmoarekin, nahiz eta han ere ez ziguten trankil bizitzen utzi. Harrezkero, ez dut nire herria berriro ikusi.

1976ko otsailean bonbardatu gintuzten okupatzaileekin bizitzeari uko egin zioten zibilak akabatzeko. Aljeriak Saharako emakume, zahar eta haurrak babestea erabaki zuen eta hegoaldeko mugetatik hurbilen zegoen lekua eman zigun. Leku hartan ez zegoen bizitzarik, eta han hasi ziren emakumeak Saharako estatuaren oinarriak eraikitzen. Gizonak frontera joan ziren Fronte Polisarioaren eta Maroko eta Mauritaniaren arteko gerrara. Aljeriak 1979an utzi zion konplize izateari eta Saharako Errepublikari Arabiar demokratikoa onartu zuen.

Nik, beste askok bezala, barnetegi batean ikasi behar izan nuen, beste 380 neskatorekin Aljerian, Atlas mendilerrotik gertu dagoen erdialdeko hiri batean. Hiru urte igarota bisitatu nuen nire familia lehenengo aldiz udan. Batxilergoko ikasketak amaitu eta ezkondu egin nintzen. Hiru ume izan nituen baldintza oso zailetan Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan, Tindufen. Han hasi nintzen emakume sahararren

batasun nazionalean lan egiten. Bizitza gogorra zen benetan, eta asko kostatzen zitzaidan egoera hura onartzea niretzat, nire herriarentzat eta, bereziki, nire umeentzat. Eta horrela hasi zen nire borroka, nire seme-alabek bizitza hobea izan zezaten.

Gure gorputzetan gerra eta erbeste samingarriak sufritu genituen, baina orain beste erronka bati aurre egin behar genion: immigrazioa. Lehenik eta behin, paperak bilatzea, lan-baimena lortzea eta gero lan egitea nire haurrak nirekin Espainiara ekarri ahal izateko. Prozesu hau ez zen batere erraza izan.

Gaur Gernikan nago, oso modu desberdinetan borrokatu ondoren; hiru seme-alaba aurrera ateratzea, leku batetik bestera etengabe mugitzea, bizitza duina eta askoz hobea lortzeko asmoarekin.

2018ko bukaeran iritsi nintzen Gernikara, denbora luzez Espainiako beste leku askotan bizi ondoren. Euskadik hasieratik harritu ninduen, lehen egunetik etxean bezala sentitu nintzen. Herri honen historiagatik, eta bere iraganagatik, eta gernikarrek herrialdea beren bihotzetan daramatelako, nik bezala.

argitaratzailea:



GERNIKA-LUMOKO UDALA

Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua

gernika-lumoko
euskara zerbitzua



babeslea:

